

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

# **ALDEZLEAREN URTEKO TXOSTENA**

**2016ko abenduaren 15a - 2017ko abenduaren 14a**

**Iñigo Urrutia Libarona**

**aldezleā**



## AURKIBIDEA

<b>Sarrera</b> .....	5
<b>1. 2017ko aztergaiak</b> .....	8
1.1. Bulegora jo duten pertsonen kopurua eta aztergai kopurua.....	8
1.2. Bulegora jo duten pertsonen generoa.....	10
1.3. Bulegora jo duten pertsonen erabilitako hizkuntza.....	11
1.4. Aztergaiak kolektiboen arabera: Ikasleak, irakasle-ikertzaileak, AZP eta "Beste batzuk".....	12
1.5. Aztergaiak campusen arabera.....	14
1.6. Aztergaiak ikastegien eta zerbitzuen arabera.....	15
1.7. Aztergai motak.....	17
1.7.1. Kolektiboek planteatutako aztergai motak.....	18
1.7.2. Emakumeek eta gizonek planteatutako aztergai motak.....	20
1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako gaiak.....	21
1.9. Bulegoaren esku hartzea.....	29
1.9.1. Baietsitako kexen gaiak.....	30
1.9.2. Baietsitako kexak eragin dituzten kolektiboak eta organoak.....	32
1.10. Jasotako erantzuna.....	33
1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen lankidetzak.....	33
<b>2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk</b> .....	33
2.1. Lankidetzak G9 taldeko defendatzaileekin .....	33
2.2. Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren XX. Bilkura.....	34
2.3. CEDUren Batzar Nagusiaren 10. Bilkura.....	34
2.4. Lankidetzak CEDUko defendatzaileekin erakunde horren foroetan parte hartuz.....	34
2.5. CEDUren Zuzendaritza Batzordea.....	34
2.6. Harremanak Arartekoarekin.....	35
2.7. UPV/EHUren Gobernu Kontseilua.....	35
<b>3. Urteko txosten ekonomikoa</b> .....	35
<b>4. Ondorioak eta gomendioak</b> .....	36
<b>I. ERANSKINA: gomendioak</b> .....	43
<b>II. ERANSKINA: 2017ko aztergaien zerrenda</b> .....	77



## Sarrera

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Estatutuen 77. artikulua betetze aldera, Aldezlearen zerbitzuaren urteko txostena aurkezten diogu Unibertsitate Klaustroari, 2016/12/15 - 2017/12/14 aldiari dagokiona, hain zuzen.

Jakina denez, Aldezlea UPV/EHUko erakunde bat da, eginkizuntzat duena unibertsitateko kideek unibertsitatearen organo eta zerbitzuekiko hartu-emanetan dituzten eskubideak eta askatasunak babestea. Gainera, bitartekari lanak egiten ditu unibertsitateko kideen arteko gatazketan. Arautegiak hala aginduta, bere jardueren txostena aurkeztu behar dio urtero Unibertsitate Klaustroari, jarduera horietan izan diren arazo nagusien berri emateko, besteak beste. Aldezlearen arautegiaren arabera, urteko txostenak informazio hau jaso behar du: aurkeztutako eskaera eta kexa kopuruak eta motak; atzera botatakoak eta izapidetu egin direnak; gomendio eta iradokizun nagusiak; eta organoek, zerbitzuek edo pertsonak bulegoak eman dizkien gomendioak eta iradokizunak bete dituzten.

Urteko jarduerari buruzko xehetasunak ematen hasi aurretik, aipatzekoa da aldatu egin dela erakundearen zuzendaritza: 2017ko maiatzaren 23an, bere ardura utzi zuen UPV/EHUko lehen aldezlea izan den Itziar Etxebarria andreak (kargu horretan aritu zen 2011ko abenduaren 15eko Unibertsitate Klaustroak hautatu zuenetik), eta egun horretan bertan hartu zuen haren lekua Iñigo Urrutia jaunak (kargua hartzearen efektu data: 2017ko ekainaren 5a). Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkiot Etxebarria irakasleari unibertsitatearen erakunde hau sortzen eta martxan jartzen egin duen lan bikainagatik. Ahalegin horri esker, gaur egun Aldezlea erakunde sendo bat da, unibertsitateko kolektibo guztien onespina eta errespetua duena. Zalantzarik gabe, Aldezlearen zerbitzuak azken bost urteetan egin duen lana mesedegarria izan da UPV/EHUren garapenarentzat, administrazio praktikak eta prozedurak hobetzen lagundu duelako, unibertsitateko kideen eskubideak bermatzen eta, azken batean, unibertsitate zerbitzu publikoa hobetzen. Etxebarria irakasleari zor diogu Aldezlearen zerbitzuari egin dion ekarpena.

Edonola ere, txosten honetan jasotakoari dagokionez, Aldezlearen zerbitzuak aztergai den aldiko lehenengo bost hilabeteetan egin duen lana Itziar Etxebarriaren zuzendaritzapean izan da; gainerako hilabeteetan ni neu izan naiz zuzendaria. Zuzendaritza aldaketak eragina izan du zerbitzuaren antolakuntza eta lan egiteko moduan. Hala, antolakuntzari dagokionez, nabarmentzekoa da zerbitzua neurri batean deszentralizatzeko hartu den erabakia, asteko lanaldia Donostia eta Leioako bulegoen artean banatuz, helburua izanik gure erakundea unibertsitateko kideengana hurbiltzea. Gainera, bigarren etapa honetan, saiatu gara espedienteetan aztergaien analisi juridikoa indartzen, ahalik eta sendotasun handiena emateko gure erabaki eta gomendioei. Bestetik, barne protokolo bat sortu dugu zerbitzuaren bitartekaritza lanetarako, gatazkak bideratzeko erabiliko duguna: unibertsitateko ikastegi eta sailetan ari diren irakasle-ikertzaileen arteko gatazkak, administrazio eta zerbitzuetako langileen artekoak, edo bi kolektibo horien artekoak. Bitartekaritza buruzko protokoloa eragin handiko tresna bat da, zeregin horretan nola aritu behar dugun zehazten duena. Protokoloak ezartzen duen prozeduraren bitartez, saiaturako gara lan giro egokiago bat sortzen edo berrezartzen, askotan batere samurra ez den zeregina izanagatik gogotsu eta baikor hartzen dugun egitekoa. Eskerrak eman nahi dizkiot Idazkaritza Nagusiko jurista taldeari protokoloa diseinatu eta idazten laguntzeagatik.

Ez nuke nahi lehen txosten hau obligazio formal batek behartutako tramite huts gisa hartua izan dadin. Araudiak txostena aurkezteko ezartzen duen betebeharretik harago, gustatuko litzaiguke dokumentu hau tresna bat izatea unibertsitateko kide guztiok gogoeta egiteko, gure unibertsitatearen funtzionamenduaren alderdi zehatzei buruz, aldi berean kritikoa eta eraikitzailea izango den ikuspegi batetik, hobetzeko helburuarekin. Izan ere, kudeaketa txosten bat izanagatik, kontuan izan behar dugu pertsona asko eta asko igarotzen direla Leioa eta Donostiako bulegoetatik, hainbat unibertsitate kolektibotakoak, eta aukera paregabea ematen digula horrek unibertsitateko kideek dituzten edo gehien kezkatzen dituzten arazoak eta gorabeherak detektatzeko. Alde horretatik, Klaustroari aurkezten diogun txosten honen bidez, azken urtean eginiko lanaz gainera, unibertsitateko kideek zer arazo eta kezka dituzten ere azaldu nahi genuke.

Klaustroak eginkizun bat eman dio Aldezlearen zerbitzuari, eta txosten hau tresna egokia izan daiteke ere arretaz aztertzeke zer egin den ondo eginkizun horretan, zer akats egin diren, eta, bereziki, zer hobetu daitekeen, aurretik aipatu dugun gogoeta kritiko horretatik. Gogor lan egin dugu, geure borondate onenaz, baina ziur gaude ere batzuetan huts egin dugula. Lerrootatik, barkamena eskatu nahi dut Aldezlearen zerbitzuak inoren usteei huts egin badie. Gehiegi eskatzea ez bada, beste aukera bat eskatuko nieke, eta Aldezleak haien zerbitzura jarraitzen duela berretsi. Ildo horretan, esan beharrik ez dago atsegin handiz hartuko dugula Aldezlearen zerbitzua hobetzeko balioko duen edozein ohar edo iradokizun.

Gure bulegoaren ohiko lanari dagokionez, hiru motatako zereginak bereiz daitezke:

- Kotsultak: gugana galdezka datozen pertsonen jakin nahi dute zehazki zer eskubide dituzten eta nola babes ditzaketen eskubide horiek, zein den unibertsitate organo eta zerbitzuen jardun eremua, eta zeintzuk diren aldezlearen eginkizun zehatzak eta lan prozedurak. Aholkularitza lan bat dela esan daiteke.
- Kexak eta erreklamazioak: unibertsitateko kideek edo interes legitimo bat duten pertsonen planteatzen dituzte, uste dutenean urratuak izan direla beren eskubideak edo interes legitimoak, unibertsitateko administrazioaren jardueragatik edo ez-egiteengatik, edota UPV/EHUko organo, zerbitzu, agintari edo pertsonal akademikoak hartutako erabakiengatik. Zerbitzu honek bi modutan erantzun dezake pertsona batek kexa edo erreklamazio bat aurkezten duenean: aholku eta jarraipen lan baten barnean, bere kasua konpontzeko zer urrats egin behar diren azal diezaioke (baldin eta aldezleak ekiteko modurik ez badu, prozedura bide arruntak amaitu gabe daudelako, adibidez), edo gomendio bat helaraz diezaioke gai horretan eskumena duen unibertsitate organoari, dagokion analisi kontrajarriaren ondoren. Gomendioak hainbat motatakoak izan daitezke: adibidez, ohartarazpen bat, arautegia betetzeari buruzkoa; iradokizun bat ere izan daiteke, kasu batean aplikatu beharreko arau bat nola interpretatu behar den adierazten duena; araua aldatzeko proposamen bat ere izan daiteke; edo arau edo akordio berri bat onartzeko aukera planteatu daiteke ere, eskaintzen dugun unibertsitate zerbitzu publikoa hobetzeko edo proportzionaltasun judizio bat egiteko, babestu behar den eskubide edo interes bat bermatzeari begira.

- Bitartekaritza-adiskidetze prozesuak: unibertsitateko bi kide edo gehiagoren artean sortzen diren gatazketan erabiltzen dira. Elkarrizketan oinarritutako konponbide bat bilatzen da, eta aldezearen zeregina da alde biek ontzat hartuko duten akordio batera iristeko bitartekaritza lana egitea.

Hiru zeregin mota horiez gainera, "gertakizunen kontakizunak" ere jasotzen ditu bulegoak. Halakoetan, pertsona batek egoera edo gertakizun jakin baten berri ematen dio aldeleari, ekinbiderik hasteko eskatu gabe –edo ekinbiderik ez hasteko eskatzen dio–.

Nabarmentzekoa da 2017an inoiz baino pertsona gehiagok jo duela aldezearengana, 2011n UPV/EHUn zerbitzu hau martxan jarri zenetik. Pozgarria da guretzat jakitea handituz doala gure laguntza jasotzen duten pertsonen kopurua, eta eskerrak eman nahi dizkiegu guran jarri duten konfiantzagatik. Gainera, aztergaien multzoari erreparatuz gero, aurreko urteekin alderatuta, kopuruetan nabarmen gora egin dugula ikus dezakegu, eta eten egin dela beheranzko joera.

Txosten honen edukiak –lehenbizi Etxebarria irakaslearen zuzendaritzapean eta ondoren neronean izapidetutako aztergaiak biltzen dituen– aurreko txostenen oinarritzako egitura berbera du, aztergaien eta haien ezaugarrien bilakaera analizatzeko. Hala eta guztiz ere, aurten sakonago aztertu nahi izan ditugu eduki batzuk, eta aipamen zehatzagoak sartu ditugu arreta handiagoa eskatu diguten aztergaiari buruz, baita erabaki edo gomendio jakin batzuen edukia ere, unibertsitateko kide guztientzat interesgarria izan daitekeelakoan. Azken aipamen horiek datu pertsonalik gabe eman ditugu, pertsonak identifika litzakeen erreferentziarik gabe, eta horrek beharbada irakurketa zaildu dezakeenez, barkamena eskatu nahi dugu alde aurretik. Nolanahi ere, interesgarria iruditu zaigu jatorrizko bertsioan ematea, lagungarri izango delakoan ideia zehatzago bat izateko zerbitzu honen lan egiteko moduari buruz.

Hasteko, 2017. urtean bulegora iritsi diren aztergaiak deskribatu eta aurreko urteetakoekin alderatuko ditugu, ohar batzuk egiteaz gainera. Ondoren, bulegoak 2017an abian jarri dituen beste ekinbide batzuk aipatuko ditugu, bai arruntak bai beste jarduera batzuei loturikoak, eta urteko txosten ekonomikoa aurkeztuko da. Azkenik, gogoeta orokor batzuen bidez amaituko dugu txostena. Gainera, txostenak bi eranskin ditu: lehenengoak lau gomendio biltzen ditu, gure zerbitzuak agintari akademikoari eginikoak, jendaurrean azaltzeko modukoak iruditu zaizkigunak (pertsonen datu pertsonalak babesteko oinarritzako eskubidea errespetatuta); bigarrean, taula bat sartu dugu, 2017ko aztergai guztien zerrendarekin.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet agintari akademiko guztiei UPV/EHUn *Aldezearengana erakutsi duten prestutasun, harrera eta begiruneagatik*. Hori horrela, errektorearen eta gobernu talde osoaren babesa sentitu dut, eta eskerrak eman nahi dizkiet beren egonariagatik, nirekin biltzeko prest egon direlako eskatu didan guztietan, batzuetan gai ez oso atseginak aztertu behar izan baditugu ere. Eskerrak eman nahi dizkiet, beraz, beren prestutasun, laguntza eta begiruneagatik, eta errespetuz jokatzegatik Aldezearen erakundearekin. Den-denek gure zerbitzuaren independentzia errespetatu dute, ezinbesteko baldintza bulegoaren funtzionamendurako. Bestetik, eskerrak eman nahi dizkiet ere ikastegietako zuzendari eta dekanoei, sailtako zuzendariari, gerentzia taldeko kideei eta arloetako

eta ataletako arduradunei, eman didaten laguntzagatik. Eta eskerrik asko ere Klaustroari, duela hilabete batzuk nigan jarri zuen konfiantzagatik.

Amaitzeko, nire esker on sakonena adierazi nahi diet Aldezlearen zerbitzuan lankide ditudan Ana Saralegi eta Maite Estévezi, beren pazientziagatik, eraginkortasunagatik eta erakundearekiko duten konpromisoagatik. Haiek gabe, ez genuke modurik izango txosten honetan aipatzen den lanaren zati handi bat egiteko.

## 1. 2017ko aztergaiak


Atal honetan, bulegoak 2017an landu dituen aztergaiak eta haien oinarriko ezaugarriak deskribatuko ditugu. **II. ERANSKINAK** urtean zehar aztertutako aztergaien zerrenda biltzen du.

### 1.1. Bulegora jo duten pertsonen kopurua eta aztergai kopurua


2017. urtean, 159 pertsonak jo dute aldezlearengana, eta 164 aztergai planteatu dituzte (kontsultak, kexak eta bitartekaritza eskaerak). Ondorioz, gure zerbitzuak inoizko pertsona kopururik handiena hartu du 2017an. Zerbitzua martxan jarri zenetik, 722 lagun igaro dira bulegotik (horietako batzuk hainbat urtez jarraian), eta 818 kasu planteatu dizkigute guztira.

1. grafikoan ikus daitekeenez, zerbitzuaren lehen hiru urteetan handituz joan zen bai kasu kopurua bai pertsona kopurua. Joera hori aldatu egin zen 2015. eta 2016. urteetan. Grafikoari erreparatuz gero, ikus daiteke goranzko joera hartu dugula berriro 2017an, eta maximo historikoetara heldu garela, hala gurera etorritako pertsona kopuruari nola aztertutako kasu kopuruari dagokionez.







Hurrengo ataletan, 164 aztergaiak hartuko ditugu erreferentzia oinarritzat. Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da urtean zehar 7 pertsonak beste 7 aztergai aurkeztu dituztela bulegoan. Ez dute kontsultarik, kezarik edo bitartekaritza eskaerarik egin, eta egin dutena izan da gertakizun batzuen berri ematea, komenigarria iruditu baitzaie gertakizunok unibertsitatearentzat garrantzitsuak izanik aldezia jakinaren gainean egotea. 2. grafikoa ikus daitekeenez, nabarmen egin du behera aurreko urteei dagokienez "gertakizunen kontakizun" kopuruak. Aztergai mota hau prozedura arruntetarantz bideratu da; kontsulta edo kexa prozeduretara, gehien bat.



## 1.2. Bulegora jo duten pertsonen generoa



Aldezlearengana jo duten 159 pertsonen artetik, 94 emakumeak ziren eta 65 gizonak. 3. grafikoan, bulegoaren sei urteko ibilbideari dagozkion maiztasunak ikus daitezke; 4. grafikoan, ehunekoak.



4. grafikoan ikus daitekeenez, lehenengo bi urteetan ez bezala, azken lau urteetan egokitzuz joan da zerbitzura jo duten pertsonen sexuen arteko proportzioa UPV/EHU<sup>n</sup> sexuen banaketak duen egiazko proportziora (gaur egun, gure unibertsitatean, gizonen eta emakumeen proportzioak % 48,2 eta % 51,8 dira, hurrenez hurren). Hala ere, 2017an, nabarmen egin du gora gure bulegora etorri diren emakumeen kopuruak –sexuen banaketak unibertsitatean dituen zifra errealak gaindituz ehunekotan–, eta arretaz jarraitu beharreko kontua izango da hori, datozen urteetan indartzen ote den ikusteko eta, hala balitz, horren arrazoiak xeheki aztertzeko.

### 1.3. Bulegora jo duten pertsonen erabilitako hizkuntza


164 aztergaietatik, 43 euskaraz planteatu dira, 120 gaztelaniaz eta 1 ingelesez. Ikus 5. eta 6. grafikoak.



6. grafikoan ikus daitekeenez, aurten aurreko urteetan baino gehiago erabili da euskara, gaztelaniarenarekiko proportzioan. Lehen bost urteetan, euskararen batez besteko erabilera % 17,4koa izan da; aldiz, 2017an, kasuen % 26an erabili da. Lau kasutik bat baino gehiago euskaraz planteatu eta ebatzi da, eta horrek erakusten du euskararen erabilera bide onetik doala gure zerbitzuan. Datozen urteetan urrats sendoagoak egitea espero dugu.

#### 1.4. Aztergaiak kolektiboen arabera: Ikasleak, Irakasle-ikertzaileak, AZP eta "Beste batzuk"

Kolektiboen arabera, 2017an, ikasleek 81 aztergai planteatu dituzte; irakasle-ikertzaileek, 51; AZPko langileek, 12; eta unibertsitatekanpoko pertsonak, 20 ("Beste batzuk" kategoria). Azken horien kasuak onartzen jarraitu badugu (sarbideari, matrikulari, izen-emateei... buruzkoak gehien bat), lagungarri izan daitekeela uste dugulako izan da, UPV/EHUK gizarteari eskaintzen dion zerbitzu publikoa hobetzen laguntzen duela uste dugulako. 7. grafikoa datu hauek biltzen ditu, aurreko urteetakoekin alderatuta. Ikus daitekeenez, nabarmen egin du gora irakasle-ikertzaileek eta ikasleek planteatutako aztergai kopuruak aurreko urteei dagokienez (ikasleen aztergaiak, bereziki). Aldiz, beherantz jarraitzen du AZPko langileen aztergai kopuruak, eta arretaz aztertu beharreko joera da hori. 2018ari begira, jarrera proaktiboago bat izan behar dugu kolektibo honekin.




Aurreko grafikoan ikus daitekeenez, ikasleen aztergaiek izan dute hazkunderik handiena. Hazkundera nabarmena izan da aurreko urtearekin alderatuz gero, eta, kopuru absolutuetan, gainditu egin da aise kolektibo honek planteatutako aztergaien maximo historikoa.


Irakasle-ikertzaileek ere aurreko ikasturteetan baino aztergai gehiago planteatu dituzte, eta eten egin da aurreko bi urteetako beheranzko joera.

"Beste batzuk" kategoriari dagokionez, hazkundera nabarmena izan da ehunekotan eta kopuru absolutuetan, 2014ko kopuruetara iritsi ez bagara ere. Kasu kopuru heterogeneo bat planteatu da, patroia uniforme bati erantzuten ez diona, eta horregatik gertatu da hazkundera (besteak beste, ikasketetarako sarbideari, matrikulatzeko ezintasunari, irakasle postuei eta tituluak homologatzeko arazoei buruzko kasuak).

8. grafikoan, irakasle-ikertzaileen, AZPko langileen eta ikasleen datuak bildu dira, ehunekotan. Ikus daitekeenez, lehen urteetan –lehenengoan batik bat– irakasleek zegokiena baino pisu handiagoa zuten aldezearen aztergaietan, ikasleekin alderatuta bereziki, talde bakoitzak UPV/EHU duen ehunekoari erreparatuz gero. Anomalia hau pixkanaka desagertuz joan da azken urteetan. Edonola ere, aipagarriena ez da ez ikasleen aztergaien hazkundera ezta irakasle-ikertzaileen kasuek talde gisa duten pisuari dagokionez ehunekotan izan duten egonkortzea ere. Aipagarriena AZPko langileek planteatutako aztergaien beherakada da.




Bestetik, ikasleek 2017an planteatutako 81 aztergaien artetik, 64 graduiko ikasleek aurkeztu dituzte; 17, graduondoko ikasleek. Esperientzia Geletako ikasleek ez dute bakar bat ere aurkeztu (9. grafikoa).




Esperientzia Geletako ikasleek izan ezik, gainerako ikasleek aurreko urteetan baino aztergai gehiago planteatu dituzte, nabarmentzekoak izanik graduiko ikasleak, hazkunde handienarekin, eta graduondokoak, neurri apalago batean. Graduiko ikasleei dagokionez, alderantzikatu egin da 2014an hasi zen beheranzko joera.

### 1.5. Aztergaiak campusen arabera

Bulegoan jaso diren 164 aztergaietatik, 65 Gipuzkoako Campusetik iritsi dira; 64, Bizkaitik; eta 15, Arabatik (dagoeneko esan dugunez, beste 20 aztergai iritsi zaizkigu UPV/EHUkoak ez diren pertsonengandik). Aurreko urteekin alderatuta (10. grafikoa), ondorio hauek atera ditzakegu: a) 2014ra arte, aztergaien kopurua handitu egin zen campus guztietan; b) 2014tik aurrera, behera egin dute aztergaiak Bizkaiko eta Arabako campusetan, eta gora, Gipuzkoan; c) azken urtean, hazkundeak izan dira Bizkaian eta Gipuzkoan, eta Arabako aztergai kopurua bere horretan mantendu da. Gipuzkoako eta Bizkaiko campusetan kasu kopuru ia berberak izan ditugu.



11. grafikoak datuak ehunekotan ematen ditu. Ikus daitekeenez, lehenengo urtean, Bizkaiko Campusak, handiena izanagatik, zegokiona baino pisu handiagoa zuen (kasuen % 65,5, egiazki UPV/EHUren % 56,21 bazen ere). Dena dela, 2015ean eta batez ere 2016an, gora egin zuten nabarmen Gipuzkoako aztergaiak, espero zitekeena baino proportzio dezente handiago batera iritsi arte. 2017an, Gipuzkoak zertxobait jaitsi du bere ehunekoa, eta Bizkaia nabarmen igo, aurreko urteari dagokionez. Gipuzkoako Campusa izan da alde zlearengana gehien jo duena, nahiz eta Bizkaia kopuru ia berberetan.



## 1.6. Aztergaiak ikastegien eta zerbitzuen arabera

1. taulan, aldezlearengana laguntza eske jo duten ikastegien eta zerbitzuen zerrenda jaso dugu. Aztergai mota guztiak hartu dira kontuan, nola kexak (gero baietsiak izan ala ez) hala kontsultak eta bitartekaritza eskaerak.

Komeni da taulako datuak erlatibizatzea, aztergaien jatorria besterik ez dutelako adierazten, eta ezin daiteke beraz beste mota bateko ondorioz atera. Oro har, aztergai gehiago sortu ohi da tamaina handiagoko ikastegietan, eta badu zerikusirik ere gaiak pertsona multzo bati eragiteak. Hori dela eta, aldatu egin daitezke urte batetik bestera ikastegi edo zerbitzu baten estatistikak eta datuak, hainbat faktoreren ondorioz.

## 1. taula. Aztergaiak planteatu dituzten ikastegiak eta zerbitzuak


Ikastegiak eta zerbitzuak	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Arabako Biblioteka	-	-	-	1	-	-
Arkitektura GET	4	6	4	2	-	-
Arte Ederren Fakultatea	1	5	1	4	2	1
Zientzia eta Teknologia Fakultatea	3	6	11	7	4	7
Berrikuntzaren, Gizarte Konpromis. eta Kulturgintza. arloko Errek.	-	-	-	-	-	1
Bilboko Irakasleen UE	5	3	4	4	7	7
Bilboko Merkataritza Ganberako UE	-	-	-	2	-	1
Campuseko Gerenteordetza	-	2	-	-	-	-
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea	5	24	5	3	5	13
Enplegu Gunea	-	-	-	-	-	1
Errektoregoa	1	-	-	-	-	-
Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua	-	-	-	-	1	1
Farmazia Fakultatea	2	4	4	1	2	2
Gasteizko Erizaintzako UE	-	1	1	-	2	2
Gasteizko Ingeniaritzako UE	2	4	6	6	2	2
Gerentzia	-	-	1	-	-	-
Gipuzkoako Biblioteka	-	1	-	4	2	1
Gipuzkoako Esperientzia Gelak	-	-	1	-	7	-
Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola	2	4	2	1	2	10
Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea	6	8	17	9	2	6
Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza	-	1	-	-	-	-
Graduko eta Graduondoko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	1
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea	1	7	10	11	9	21
Hezkuntza eta Kirol Fakultatea	3	1	4	6	3	4
Idazkaritza Nagusia	-	1	2	1	-	-
Ikas. Enplegu. eta Gizart Erantzukizun. arloko Errektoreordetza	-	-	-	1	-	-
Ikasleen Kontseilua	2	3	1	1	-	-
Korta Eraikina	-	-	-	1	-	-
Bilboko Ingeniaritza Eskola	15	13	13	12	6	11
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	-	-	-	-	1	-
IKT Gerenteordetza	3	-	-	1	2	2
Ikuskaritza Zerbitzua	-	-	-	-	1	-
IMHko Ingeniaritza Dualaren UE	-	-	-	4	6	7
Informatika Fakultatea	-	2	4	2	-	-
Kimika Fakultatea	-	-	1	-	-	-
Kirol Zerbitzua	-	-	-	-	1	1
Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea	1	4	1	-	1	-
Letren Fakultatea	2	6	16	7	3	3
Master eta Doktorego Eskola	-	1	1	5	6	4
Materialen Fisika Zentroa	-	-	-	-	1	-
Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea	13	6	17	12	19	15
Psikologia Fakultatea	5	4	1	6	9	10
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	-	1	2	-	-
Prebentzio Zerbitzua	-	-	-	-	-	1
Zuzenbide Fakultatea	6	7	9	9	5	9
Bestelakoak	15	16	26	14	8	20
<b>Guztira</b>	<b>97</b>	<b>140*</b>	<b>164</b>	<b>139</b>	<b>119**</b>	<b>164</b>

\* Hiru aztergai ikastegi edo zerbitzu bat baino gehiagoko pertsonak planteatu zituzten. Horregatik, zutabe honen guztizkoa 140 da, 137 izan ordez. \*  
 Bi aztergai ikastegi edo zerbitzu bat baino gehiagoko pertsonak planteatu zituzten. Horregatik, zutabe honen guztizkoa 119 da, 117 izan ordez.



## 1.7. Aztergai motak

Aztergai motei dagokienez, 2017an 115 kontsulta, 41 kexa eta 8 bitartekaritza eskaera jaso ditugu. 12. grafikoak datuak aurreko urteetakoekin alderatzen ditu.



Ikus daitekeenez, 2017an, 2016. urtearekin alderatuta, nabarmen handitu da kontsulta kopurua, eta 64tik 115era igaro dira; aldiz, kexa kopurua pitin bat jaitsi eta zertxobait igo da bitartekaritza eskaerena.

Aztergai motek bost urteetan izan duten bilakaera aztertuz gero, nabarmentzekoa da, lehenik eta behin, bitartekaritzari buruzko datuen egonkortasuna, azken urte honetan zertxobait igo badira ere. Bigarrenik, nabarmen egin du gora kontsulten kopuruak, pitin bat behera egiten duten kexa prozeduren aldean. Horiek horrela, kontsulta erabilgarritasun handiko sistema bihurtu da, aurkezten diren kasu asko bideratzeko orduan. Prozedura arin bat da, analisi, ikerketa eta kontraste azkarrak eskatzen dituen, irtenbide egoki bat bilatzeko planteatzen zaigun gaiarentzat. Horrela, kexaren prozedura –burokratizatuagoa– fase dokumental landuagoak behar dituzten egoerarako uzten da.


Lan arloan izandako jazarpen salaketak konpontzeari buruzko akordioaren arabera (EHAAn argitaratua 2014ko abuztuaren 27an), era honetako kexak aztertzea eta ebaztea ez dago jada aldelearen esku, Arbitraje Batzorde baten esku baizik. Aldeleak jazarpenzat har daitekeen egoeraren bat detektatuko balu, batzorde horretara bideratuko luke. Nolanahi ere, akordio horren 18. artikulua honako hau dio: "Hala eta guztiz ere, posible denean eta aldeak horretarako prest daudenean, erraztasunak emango dira bi aldeentzat egokia izango den irtenbide bat aurkitzeko, era estraofizialean edo aldelearen bitartekaritzaren bidez (erakunde horren Funtzionamendu Arautegiaren 18. artikuluan jasotako prozedura erabilia)".

### 1.7.1. Kolektiboek planteatutako aztergai motak

13., 14. eta 15. grafikoetan, aztergai mota (kontsulta, kexa eta bitartekaritza eskaera, hurrenez hurren) bakoitzaren bilakaera ikus daiteke, kolektiboka.


13. grafikoan ikus daitekeenez, kontsulta kopurua handitu egin da azken urtean talde guztietan, AZPko langileen artean izan ezik (egonkor mantentzen da). Prozedura honen bidez, unibertsitateko kideei aholkua eta informazioa emateko helburu bikoitza betetzen da. Bereziki nabarmentzekoa da ikasleen kontsultetan izan den hazkundera, aurreko urtean izan zen jaitsieraren aldean. Jada esan dugunez, kasu askotan, ikasleek planteatutako gaiak sistema honen bidez bideratzen dira, prozedura bide egokienei buruzko orientazioa eta gomendioak ematen dituelako eta auziak konpontzeko gestio arin eta azkar bat erabiltzen duelako.

Honako hauek dira ikasleen kontsultetan pisu handiena duten gaiak: matrikulazio prozedura, ebaluazio irizpideen aplikazioa, baliozkotzei buruzko prozedurak eta kredituen aitortza.




Rexei dagokienez (ikus 14. grafikoa), 2017an, aurreko urteari dagokionez, behera egin dute talde guztietan, UPV/EHUtik kanpoko pertsonen taldean izan ezik. Kexek bost urteetan izan duten bilakaera aztertuz gero, gorabeherak izan badira ere, joera orokorra beheranzkoa dela ikus daiteke.

Unibertsitateko edozein kidek du aukera kexa bat aurkezteko, ados ez dagoenean unibertsitate organo batek hartu duen erabaki batekin, baldin eta uste badu erabaki horrek bere eskubide bat kaltetzen duela edo bere askatasuna arrazoi edo neurririk gabe murrizten duela.





Azkenik, bitartekaritza eskaerei dagokienez (15. grafikoa), 2017an, irakasle-ikertzaileek 6 eskaera egin dituzte eta AZPko langileek, 2. Oro har, bitartekaritza eskaerak egiten dituzte unibertsitatean lanean egonik egoera gatazkatsuren bat bizi duten pertsonak. Aldeztarengana jotzen dute, aldean artean topaguneak aurki dituzan, konfidentzialtasun giro batean, alde guztiak gogobeteko dituen irtenbide adiskidetsu bat bilatzeko, elkarriketaren bidez, lan giroa hobetzeari eta lan ingurune osasuntsu bat eraikitzeari begira. AZPko langileen eskaeren zio nagusia lankideen arteko gatazkak izan ziren; aldiz, irakasle-ikertzaileek arrazoi askotarikoagoak aipatu zituzten: gatazkak lankideekin, doktorego tesia egiten ari zen pertsonarekin eta baita kasu batzuetan ikasleekin ere.




Oharra: 2012-2015 aldian, lerro horia (Beste batzuk) lerro berdearen (AZP) gainetik doa.

### 1.7.2. Emakumeek eta gizonen planteatutako aztergai motak

Atal honetan, generoaren arabera erreparatuko diegu aztergaiei. Lehen grafikoan ikus daitekeenez (16. grafikoa), emakumeek gizonen baino kontsulta gehiago egin dituzte beti, 2017an bereziki. Kexei dagokienez (17. grafikoa), joera hain argia ez bada ere, gizonen emakumeek baino kexa gehiago aurkeztu dituzte beti, 2016an izan ezik. 2017an, joera orokorra izan da nagusi, eta ugariagoak izan dira gizonen kexak emakumeenak baino. Bitartekaritza eskaerei dagokienez (18. grafikoa), datuen bilakaerak erakusten du gizonak eta emakumeak kopuru berdintsuetan dabiltzala, nahiz eta emakumeak izan diren azken hiru urteetan eskaera gehiago egin dituztenak.





### 1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako gaiak

Kolektiboek zer arazo mota planteatzen dizkiguten zehatzago jakiteko (mota guztietako arazoak, ez bakarrik kezak), lau taula osatu ditugu (3., 4., 5. eta 6. taulak), ikasleei, irakasle-ikertzaileei, AZPko langileei eta "Beste batzuk" kategoriari dagozkienak, hurrenez hurren.

Taulak ordenatuta daude kategorien edo gai espezifikoaren arabera, aurreko urteetako txostenetan erabilitako irizpide berberaz. Edonola ere, urtez urte metatutako esperientziaz baliatuta, txosten honetan aldaketa txikiren bat sartu dugu kategorien sisteman; esaterako, azken bost urteetan ia maiztasunik izan ez duten kategoriak kendu eta zegozkien kasuak "Bestelakoak" kategorian sartu ditugu. Horregatik dago desberdintasun txikiren bat taula hauetako 2013, 2014, 2015 eta 2016ko datuen eta dagozkion txostenetan aurkeztutakoen artean.

Tauletan, hondo urdinez nabarmendu ditugu gutxienez lau urtez errepikatu diren gaiak. Bestetik, parentesien artean adierazten da zenbat kasutan esku hartu duen aldezelek –zeinahi ere den aztergaia– erantzunik jaso ez delako dagokion organotik. Kasu hauetan, gaia prozedura kontuekin gurutzatzen da (hala nola idatzi edo errekurtsio bati epean ez erantzutea), eta horrelakoetan aztergaia kategoria nagusiaren barnean sartzen da.

2. taulari erreparatzen badiogu (ikasleek planteatutako gaiak), honako hauek izan ditugu 2017ko gai nagusiak:

- "Ikasleen ebaluazioa": gai hau gatazka iturri garrantzitsuenetako bat izan da, eta kontsulta edo kexa ugari eragin dituzte irakaskuntza gidan agertzen diren ebaluazio irizpideen zehaztasun faltak eta azterketen zuzenketan egiten den irizpideon aplikazioak. Horregatik, komeni da gogoratzea sailek argi eta garbi ezarri behar dituztela irizpide hauek eta era arautuan aplikatu behar direla.

- "Irakaskuntzaren kudeaketa": epigrafe honek era askotako gaiak hartu ditu bere baitan: hala nola irakats orduen erregimena eta klaseen arteko atsedanak (horiek ezabatzea, zehazki esateko); metodologia aldaketei buruzko gaiak irakasleen ordezte kasuetan; ikasleen gehiegizko lan zamari buruzko keak; edo programatutako egutegitik kanpo egiten diren prestakuntza saioei loturiko gaiak.

Alde horretatik, ikasle batzuei eztabaidagarria iruditu zitzairen irakasle batek amaierako ebaluazioa egin ondoren mintegi bat egitera behartzea, hain zuzen ere ebaluazioan eragina izango zuena. Programatutako egunean egin ezin izan zen mintegi bat zen. Ikasle batek bere kexa adierazi zion aldeleari bat zetozelako ordutegian espezialitateko nahitaezko bi irakasgai (bietan egin zuten lehen matrikula).

Beste ikasle batek antolakuntza arazoak planteatu zituen gradu bikoitzeko titulu baten irakaskuntzan: eguneko eskola ordutegiak luzeegiak ziren eta lan zama handiegia, ikasleek nekez har zitzaketenak beren gain –ikasle horren ustez-. Kontua hauxe zen: gradu bikoitzeko ikasleek irakasgai batzuk partekatzen dituzte gradu bakarra egiten duten ikasleekin, eta, beraz, gradu bakarra egiten duten ikasleentzat pentsatutako lan zamari bigarren graduaren irakasgaien zama gehitzen zaio.

Hori horrela, nabarmentzekoa da koordinazio lanak tituluen mailan duen garrantzia; bereziki, ikasturteko koordinatzaileen eginkizuna ikasleen lana era orekatuan banatzeko orduan. Gradu bateko ikasleek eta gradu bikoitz bateko ikasleek irakasgai bat partekatzeak koordinazio maila bikoitza eskatzen du, eta bi motatako ikasketen ezaugarrietara egokitu beharra. Gainera, garrantzitsua da errespetatzea sailek onartutako prestakuntza programa eta irakaskuntza gidak, baita ebaluazio probetarako eta gainerako irakaskuntza jardueretarako egutegia ere.

- "Matrikula": matrikula ikaslea eta UPV/EHU lotzen dituen egintza da, halako moldez, non izena ematen baita ikasketa jakin batzuetan eta dagozkion tasak eta prezio publikoak ordaintzen diren. Gai honi lotuta, askotarikoak dira ikasleak aldelearengana jotzera bultzatzen dituzten arrazoiak: ordainketen epeak, arazoak sistema informatikoan, gutxieneko nota, erreziboen itzulketa, aldaketak matrikulan, planen egokitzapenak, tasak ordaintzeko zailtasun ekonomikoak, etab.
- "Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea": epigrafe honetan, ohikoa da beste titulu batean eginiko irakasgai baten aitortzeak eza planteatzea. Baliozkotzea administrazio egintza bat da, irizpen edo txosten tekniko baten edukia aztertu ondoren ematen dena. Hortaz, aldeleak ezer gutxi egin dezake hor, ez bada aztertzea prozedurak araudia bete duen (araudiak ezartzen dituen eskakizun formalak barne) eta baliozkotzea eman duen organoa organo eskumenduna den. Behar-beharrezkoa da ere era honetako erabakietan arrazoi argiak eta nahikoak ematea, baldin eta eskubideen aurkakoak badira edo eskubideak murrizten badituzte.
- "Bekak": bi atal bereiz daitezke: alde batetik, beka bat –doktorego aurreko laguntzak eta Erasmus beka nagusiki- jaso duten ikasleek planteatzen

dituzten gaiak (bateragarritasunak, doktorego aldaketaren ondorioak, itzultzeko betebeharra...); bestetik, doktoregoa amaitu berri duten ikasleen erreklamazioak, "zubi bekak" delakoen deialdirik ez egiteagatik (beka horiek aukera ematen diete doktore berriei unibertsitatean jarraitzeko, doktorego ondoko prestakuntza programetan sartu arte).

Lehenengo atalean, aldezeak egin ahal izan zuen gauza bakarra izan zen informazioa ematea ikasleei beka onartzean beren gain hartzen dituzten eskubide eta betebeharrei buruz; bigarrenean, errektoregora jo zuen, doktore berrientzako laguntzen deialdi berriei buruz galdezka, eta pertsona hauen egoera azaldu zuen (urte luzez lanean gogor aritu eta doktorego tesia defendatu ondoren, bat-batean galdu egiten dute unibertsitatean ikerketa eta prestakuntzan lanean jarraitzeko aukera). Errektoregoak gaia aztertzeko borondatea adierazi zuen. Kontsulta egin zenean -maiatzean-, ez zegoen aukerarik era honetako laguntzen deialdirik egiteko, aurrekontua agortuta zegoelako; aldiz, uztailean, doktore berriak kontratatzeko deialdia argitaratu zen, UPV/EHUren doktorego ondoko prestakuntza programan sartu arte jarraitzeko aukera ematen zuena (DOKBERRI 2017).

## 2. taula. Ikasleen aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Arautegia aplikatzeko modua	-	6	-	-	-	-
Arautegia ez betetzea	-	-	1	-	-	-
Arazoak agintariekin	1	-	2	-	-	-
Arazoak ikaskideekin	-	-	-	-	6	-
Arreta euskaraz	-	-	-	-	1	1
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	-	6 (1)	1	1	2	4
Bekak	-	3 (1)	3	4 (1)	1	4
Berdintasun arazoak	-	-	1	-	-	-
Datuak babestea	1	-	-	1	-	-
Desgaitasunaren arreta	-	-	-	-	1	1
Diziplina araubidea	1	-	1	-	1	-
Doktorego tesia	2	-	1	5	2	-
Ebaluazio berezia	6	4	3	5	3 (1)	-
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	2
Euskarazko irakaskuntza	-	-	2	-	-	-
Familia kontziliazioa	-	-	-	-	1	-
Genero bortizkeria	-	-	1	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	1	-	4	2	1	3
Gradura egokitzea	2	3	3	-	-	-
Greba	-	-	2	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	5 (1)	1 (1)	-	1	1	2
Ikaskideen portaera	-	1	1	-	1	2
Ikasleen ebaluazioa	7 (1)	10	11	16	14	33
Ikasleen ordezkaritza	-	2	3	1	1	-
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	-	1	-	-	-
Intimitaterako eskubidea	-	1	-	-	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	3	10	15	7	9
Irakasleen portaera	1	4	4	2	1	2
Jendearentzako arreta	-	3	-	2	-	-
Kanpoko praktikak	-	2	3	2	2	2
Lan baldintzak	-	-	-	-	-	3
Matrikula	1	4	5	3	4	7
Matrikula balio gabetzea	-	2	-	1	-	-
Mugikortasuna	-	-	2	1	-	-
Ondarezko erantzukizuna	-	-	-	-	-	1
Presoentzako arreta	-	-	-	1	1 (1)	-
Prezio publikoak	3 (1)	2	1	2	2	2
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1	1 (1)	2	-	1
Tratu diskriminatzailea	-	-	-	-	-	1
Zerbitzuen portaera	-	2	-	-	-	-
Bestelakoak	2	2	1	-	1	1
<b>Guztira</b>	<b>33 (3)</b>	<b>62 (3)</b>	<b>68 (1)</b>	<b>67 (1)</b>	<b>54 (2)</b>	<b>81(0)</b>



Irakasle-ikertzaileen kasuan (3. taula), hauexek izan dira 2017ko gai nagusiak: "Lan baldintzak", "Irakaskuntza esleitzea" eta "Ordezkapen plazak eta poltsak". Denak urtero errepikatzen diren gaiak dira.

- "Lan baldintzak": epigrafe honetan, irakasle lan kontratudunek edo funtzionarioek hainbat gai planteatu zituzten, baita doktorego aurreko kontratua duten eta prestakuntzan dauden langileek ere: besteak beste, kalteordaina jasotzeko eskubidea lan kontratua amaitzeagatik; ikertaldeetan sartzeko aukerak; hizkuntza ez-ofizialetan irakasten duten irakasleen egoera hobetzeko proposamenak; edo Osakidetzari lotutako irakasle-ikertzaileen erregimen berezia.
- "Irakaskuntza esleitzea": eranskinetako batean jaso den ebazpen batek lerro batzuk proposatzen ditu gai honetan urratsak egiteko, irakasleen lana banatzeko prozeduren baitan gatazkan dauden interesak neurri batean bateratzeari begira.
- "Ordezkapen plazak eta poltsak": epigrafe honek hazkunde nabarmena izan du 2017an. Planteatu diren gaiek zerikusia dute nagusiki sailek izendatutako epaimahaiek deialdietan eta oinarrietan ezartzen dituzten irizpideen balorazioarekin. Epaimahaiaren ebazpen teknikoa berrikus ezin daitekeenez, honako hauek aztertu dira aldeleari iritsi zaizkion kasuetan: deialdiaren alderdi arautuak zuzen betetzea, prozedura zorrotz betetzea eta, bereziki, administrazio egintza diskrezional bat izanik modu egokian arrazoitzea.

Nabarmendu beharreko beste datu bat –positiboa, kasu honetan– hauxe da: aurten, irakasle-ikertzaileen artean, "Arazoak lankideekin" kategoriak aurreko urteko maiztasun bera izan du, eta iaz nabarmen egin zuen behera kasu kopuruak aurreko bi urteekin alderatuta.

## 3. taula. Irakasle-ikertzaileen aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Arautegia aplikatzeko modua		4	2	-	-	2
Arazoak agintariekin	1	-	1	-	-	-
Arazoak ikaskideekin	4	17	13	5	3	3
Arreta euskaraz	-	-	-	-	1	-
Azpiegiturak	-	1	-	-	-	-
Barne kontrola	-	-	-	1	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	1
Bekak	-	-	-	1 (1)	1	2
Berdintasun arazoak	-	-	1	-	-	-
Burokrazia	-	-	-	-	2	-
Datuak babestea	-	-	-	1	-	-
Diziplina araubidea	-	-	-	-	-	2
Docentiaz	-	-	-	1	-	-
Doktorego tesia	-	-	3 (1)	1	-	2
Ebaluazio Epaimahaiak hautatzea	-	-	1	-	-	-
Erosketak	-	-	-	1	-	-
Errektoregoaren portaera	-	-	1	1	-	-
Erretiroa	1	-	-	-	-	-
Etika akademikoa (ikasleak)	-	-	1	1	-	-
Etika zientifikoa (irakasleak)	1	-	1 (1)	-	-	-
Familia kontziliazioa	1	-	-	1	-	1
GAURen arazoak	1	1	-	-	-	-
Gradura egokitzea	1	-	-	-	-	-
Greba	-	-	-	-	1	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	-	-	2	-
Ikasleen ebaluazioa	-	2 (1)	2 (1)	-	3	3
Ikasleen portaera	1	3	2	2	2	2
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	-	1	-	-	-
Ikerketa proiektuak	1	1	-	-	-	-
Irakaskuntza esleitzea	5	3	6	4 (1)	8 (2)	5
Irakaskuntzaren ebaluazioa	-	-	-	-	-	2
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	2	-	-	1
Irakasleen ebaluazioa	-	-	-	-	1	-
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	-	-	2	-	-	1(1)
Irakasleen portaera	-	3	-	-	-	-
JAP/Kredituak aitortzea	2 (1)	2	-	-	2	-
Jazarpena/Jazarpen portaerak	8	2 (1)	2	2	1	-
Jendearentzako arreta	-	-	-	-	-	1
Lan baldintzak	3	2	3	2	6	10 (1)
Lanen ebaluazio etikoa	-	-	-	-	1	-
Matrikula baliogabetzea	-	-	-	-	-	1
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	-	-	2 (1)	-
Ordezkapen plazak/poltsak	4 (1)	5 (1)	4 (3)	7 (1)	2	8
Ordezkaritza organoaren portaera	-	-	-	1	-	-
Osagarri gehigarriak	1	2	1	3	-	3
PIF ordainsariak	-	1	2	-	-	-
Presoentzako arreta	-	-	-	1	-	-
Prezio publikoak	1	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	2	2	1	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	1	-
Zerbitzuen portaera	1	-	-	-	-	-
Bestelakoak	4	2	3	4	1	1
<b>Guztira</b>	<b>40 (2)</b>	<b>50 (3)</b>	<b>56 (6)</b>	<b>42 (3)</b>	<b>41 (3)</b>	<b>51 (2)</b>

AZPko langileei dagokienez (4. taula), 2017an hiru gai izan dira nagusi: "Lankideen arteko portaera", "Lan baldintzak" eta "Lekualdaketa plazak/lehiaketa".

- "Lankideen arteko portaera": epigrafe honen pean egiten diren salaketek askotariko gaiak hartzen dituzte, eta izan daitezke lankideen arteko tirabira sinpleak (lanean eragin dezaketen portaera desegokiak sortzen dituztenak) edo bizikidetzaz arazo larriagoak, zerbitzuaren funtzionamendu normala zaildu eta arazoan sartuta dauden pertsona guztiengan sufrimendu sakon bat eragiten dutenak.
- "Lan baldintzak": atal honen barnean sartzen dira lanaldia hobeto antolatzeko proposamenak edo hari buruzko kekek, lanpostuaren balorazioa eguneratzeko proposamenak eta kontratu betebeharrei buruzko kontsultak.
- "Lekualdaketa plazak/lehiaketa": ohiko gaia da AZPko langileen artean. Kontsultek eta kekek zerikusia dute ordezkapen politzen arautegia betetzearekin eta lanpostuen zerrendaren aldaketarekin.

#### 4. taula. AZPko langileen aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	1	-	-	-
Arautegia ez betetzea	-	1	-	1	-	-
Arazoak agintariekin	-	-	-	1	-	-
Arazoak lankideekin	-	1	-	-	1	-
Azpiegiturak	-	-	1	-	-	-
Diziplina araubidea	-	-	-	-	1	-
Errektoregoaren portaera	-	2 (1)	-	-	-	-
Erretiroa	-	1	-	1 (1)	-	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	2	1	2	1
Ikasleen portaera	-	-	-	1	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	2	-	2	2 (2)	-	-
Irakaskuntza euskaraz	-	-	-	-	1	-
Irakasleen portaera	-	-	-	-	1	-
Jazarpena/Jazarpen portaerak	1	-	1	-	-	-
Lan baldintzak	4	2	2 (1)	5 (1)	6 (1)	3 (1)
Lankideen portaera	-	-	-	-	-	4
Lekualdaketa plazak/lehiaketa	2	1	3 (1)	2	-	3(1)
Merezimenduen ebaluazioa	2	-	-	1 (1)	-	1
Prezio publikoak	-	-	-	-	1	-
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-
Bestelakoak	-	1	1	1	1	-
<b>Guztira</b>	<b>11 (0)</b>	<b>9 (1)</b>	<b>14 (2)</b>	<b>16 (5)</b>	<b>14 (1)</b>	<b>12 (2)</b>

Amaitzeko, "Beste batzuk" kategorian (5. taula), "Ikasketetarako sarbidea", "Tituluak eta ziurtagiriak" eta "Bekak" epigrafeekin lotutako kasuak biltzen dira.

- "Ikasketetarako sarbidea": graduetako matrikulazioari eta gutxieneko notei buruzko gaiak.
- "Tituluak eta ziurtagiriak": atzerritik eginiko baliozkotzeak, UPV/EHUen eginiko ikasketen ziurtagirien eskaerak, etab.
- "Bekak": UPV/EHUko ikasle ohi batzuen kontsultak sartu ditugu hemen: graduko azken ikasturteetan Erasmus beka bat lortu zuten, eta urte batzuk geroago, beken deialdia egin zuen erakundeak bekaren zati bat itzultzea eskatzen die, harrera herrialdean justifikatu zuten egonaldi akademikoa beka ezarritakoa baino laburragoa izan zelako.

#### 5. taula. "Beste batzuk" kategoriaren aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Arazoak agintariekin	-	1 (1)	-	-	-	-
Bekak	3 (1)	1	-	1	2	2
Datuak babestea	-	-	-	1	-	-
Diziplina araubidea	-	-	-	-	1	1
Erretiroa	-	1	-	-	-	-
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	1
Etika zientifikoa	-	-	-	-	-	1
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	-	-	-	1
GAURen arazoak	-	-	1	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	-	-	-	-	1	-
Gradura egokitzea	-	-	-	-	1	-
Ikasketetarako sarbidea	-	3	7	4	1	3
Ikasleen ebaluazioa	-	-	1	-	-	-
Ikasleen portaera	-	-	1	-	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	1	-	-	-
Jazarpena/Jazarpen portaerak	-	-	2	1 (1)	-	-
Kontratazioa	-	1	-	-	-	-
Lan baldintzak	-	-	1	-	-	1
Lekualdaketa plazak/lehiaketa	-	-	-	-	-	1
Matrikula	-	-	2	-	-	-
Matrikula baliogabetzea	-	-	-	-	-	1
Merezimenduen ebaluazioa	3	-	-	-	-	-
Ordezkapen plazak/poltsak	7 (2)	6	4 (1)	2	1	-
Presoentzako arreta	-	-	-	1	-	-
Prezio publikoak	-	-	1	-	-	1
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1	-	1	1	4 (1)
Unibertsitatera sartzeko probak	-	-	3	1	-	-
Bestelakoak	-	1	2	2 (1)	-	3
<b>Guztira</b>	<b>13 (3)</b>	<b>15 (1)</b>	<b>26 (1)</b>	<b>14 (2)</b>	<b>8 (0)</b>	<b>20 (1)</b>

## 1.9. Bulegoaren esku hartzea

Bulegoan planteatu diren 164 aztergaien artetik, kontsulta guztiek (115, jada esan dugunez) erantzun egokia izan dute, eta 8 bitartekaritza eskaerei ere erantzun zaie.

41 kexen artetik, 4 atzera bota dira. Aldezleak hainbat arrazoiengatik bota ditzake atzera kexak: gaiak aldezearen eginkizunekin inolako zerikusirik ez duelako; prozedura arrunta agortu ez delako (presazkoak ez diren kexen kasuan); kexaren xede den jarduera egokitzat hartu delako; funtsik ez duelako; desadostasunak daudelako unibertsitate organo eskumendunek hartu dituzten eta eskubiderik urratzen ez duten erabakiekin; jada konponduta dagoelako; edo aldezleak gaian eskumenik ez duelako. 2017an, atzera bota diren kexa guztiak prozedura arrunta ez agortzeagatik izan da.

Beraz, 37 kexa onartu dira (% 90,2). Horietatik, 17 ezetsi dira, azterketa sakonago baten ondorioz ikusi delako eskaerek ez zutela lekurik zuzenbidean, eta kexa bat artxibatu egin da, eskaera egileak atzera egin ondoren. Beraz, azkenean 18 kexa baietsi dira (onartutakoen % 48,7). 6. taulan, datuak aurreko urteetakoekin konparatzen dira.

Beraz, aurten kexa kopurua gutxitu egin da, halere onartu diren kexak eta ontzat emandako kexak, biek gainditu dituzte 2016ako kopuruak.

6. taula. Jasotako, onartutako eta baietsitako kexak

	Jasoak	Onartuak (jasotakoen %)	Baietsiak (onartutakoen %)
<b>2012</b>	72	49 (%68,1)	34 (%69,4)
<b>2013</b>	65	37 (%56,9)	27 (%73,0)
<b>2014</b>	74	37 (%50,0)	21 (%56,8)
<b>2015</b>	50	32 (%64,0)	20 (%62,5)
<b>2016</b>	47	26 (%55,3)	17 (%65,4)
<b>2017</b>	41	37 (%90,2)	18 (%48,7)
<b>Guztira</b>	349	218 (%62,8)	137 (%62,8)

2017an, aurreko urteetan ohikoa izan denaz bestera, atzera botatuko kexen kopurua txikia izan da. Soilik 4 kexa bota dira atzera. Aldiz, 2016an, aurkakoa gertatu zen, eta aurreko urteetan bezala kexa kopuru handi bat baztertu zen (kexen herenaren eta erdien artean). Nolanahi ere, atzera botatuko kexa kopurua txikia izan bada ere, arrazoiak ohikoak izan dira; bereziki, ezarritako prozedura arrunta ez agortzea.

Aldezearen arautegiaren arabera, atzera botatuko dira kexak edo erreklamazioak "unibertsitate araudi edo protokoloetan ezarritako urrats eta errekurtsio guztiak agortu gabe daudenean" (15.5.g artikulua). Artikulu berak honako hau dio ondoren: "aldezleak azken buruan soilik esku hartuko du, bide arautu guztiak amaituta inolako erantzunik izan ez denean, edo erantzuna desegokitzat hartzen denean interes legitimoak urratzeagatik. Salbuespen gisa, prozedura arrunta oraindik amaitu ez denean esku hartu ahal izango du aldezleak". Presa handiko kasuak izango lirateke.

Praktikan, prozedura arruntaren oinarrizko tramiteetako bat bera ere hasi ez duten kasuak aurkitu ohi ditugu. Beste batzuetan, izapideak hasi badira ere, eskaera egin duen pertsonak uste du aldezeak bizkortu egin lezakeela bere kasua. Hala eta guztiz ere, gure bulegoak, beste zerbitzu eta organo batzuen lanari zor zaion errespetuagatik eta bere arautegiari jarraiki, salbuespenezko kasuetan bakarrik esku hartzen du ohiko prozedurak eta bideak amaitu aurretik (presazko gai bat denean, adibidez). 2017an, bi aldiz esku hartu dugu bide arruntak amaitu aurretik, gaiak presazkoak zirelako. Dena dela, errespetu instituzionala dela eta, ezin dugu organo eskumendun baten ordeztatu, eta gure zeregina mugatzen da funtsezkoak iruditzen zaizkigun alderdiak nabarmentzera, organo horrek kontuan har eta balora ditzan.

Edonola ere, garrantzitsua da ez nahastea epe barruan ebazpenik ez ematea eta epe barruan emandako ebazpen bat berantiarra izatea. Adibidez, demagun organo eskumendun batek atzera botatzen duela aurretik beste titulu edo ikastegi batean ikasi den irakasgai baten baliozkotze eskaera. Ondorioz, ikasleak gorako errekurtsio bat aurkezteko aukera izango du, hilabeteko epean, eskaera atzera botatzen duen erabakia jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Gorako errekurtsioa aurkezten den egunetik hasita (errekurtsioa presazko bidetik jarri ez bada), legeak hiru hilabeteko epea ezartzen du errekurtsioa ebatzi eta emaitzaren berri emateko. Hori horrela, litekeena da, epe barruan arituta ere, alde interesdunak gorako errekurtsioaren ebazpena ez jasotzea lehenengo ohiko deialdiari dagokion azterketa proba egiteko ezarritako egunaren aurretik. Horrelako gorabeherak saihesteko, komenigarria litzateke tramiteak arintzen saiatzea, eta, bereziki, lehenbailehen ematea baliozkotzeen batzordearen lehen ebazpena.

### 1.9.1. Baietsitako kexen gaiak

7. taulak baietsitako kexen gaiak biltzen ditu. Hondo urdin argiz, gutxienez hiru urtez errepikatu direnak nabarmendu dira.

Ikasleei dagokienez, honako hauek izan dira baietsitako kexen gaiak: "Arreta euskaraz", "Gatazkak ikaskideen artean", "Ikasleen ebaluazioa" eta "Matrikula". Irakasle-ikertzaileei dagokienez, kexen gaiak hauexek izan dira: "Jendearentzako arreta", "Ikasleen portaera", "Lan baldintzak", "Arautegia aplikatzeko modua" eta "Irakasleen hobekuntzarako plana - IHP". AZPko langileen kolektiboan, baietsitako kexak "Lekualdaketa plazak/lehiaketak" eta "Lan baldintzak" alorrean izan dira. Azkenik, "Beste batzuk" kolektiboan (UPV/EHUtik kanpoko pertsonak), baietsitako kexak alor hauetan izan dira: "Etika zientifikoa", "Tituluak eta ziurtagiriak" eta "Gardentasuna eta gobernu ona".

## 7. taula. Baietsitako kexen gaiak

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	Guztira
Arautegia aplikatzeko modua	-	2	-	-	-	-	2
Arautegia ez betetzea	-	-	1	-	-	-	1
Arazoak ikaskideekin	-	-	-	-	2	1	3
Arreta euskaraz	-	-	-	-	-	1	1
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	-	2 (1)	-	-	-	-	2 (1)
Bekak	-	1 (1)	-	1 (1)	-	-	2 (2)
Doktorego tesia	-	-	1	-	-	-	1
Ebaluazio berezia	3	-	-	-	1 (1)	-	4 (1)
Gradu/Master amaierako lana	-	-	-	1	-	-	1
Ikasketetarako sarbidea	4 (1)	-	-	-	-	-	4 (1)
Ikasleen ebaluazioa	1	2	-	1	3	3	10
Intimitaterako eskubidea	-	1	-	-	-	-	1
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	1	-	-	-	1
Jendearentzako arreta	-	2	-	-	-	-	2
Kanpoko praktikak	-	-	1	-	-	-	1
Matrikula	-	-	-	-	-	1	1
Mugikortasuna	-	-	-	1	-	-	1
Presoentzako arreta	-	-	-	-	1 (1)	-	1 (1)
Prezio publikoak	1	1	-	1	1	-	4
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	1 (1)	-	-	-	1 (1)
Bestelakoak	1	-	-	-	-	-	1
<b>Ikasleak guztira</b>	<b>10 (1)</b>	<b>11 (2)</b>	<b>5 (1)</b>	<b>5 (1)</b>	<b>8 (2)</b>	<b>6 (0)</b>	<b>45 (7)</b>
Arautegia aplikatzeko modua	-	1	1	-	-	2	4
Arazoak kideekin	-	3	-	-	-	-	3
Arreta euskaraz	-	-	-	-	1	-	1
Bekak	-	-	-	1 (1)	-	-	1 (1)
Burokrazia	-	-	-	-	2	-	2
Erosketak	-	-	-	1	-	-	1
Erretiroa	1	-	-	-	-	-	1
Etika zientifikoa (irakasleak)	-	-	1	-	-	-	1 (1)
Ikasleen ebaluazioa	-	1 (1)	-	-	-	-	1 (1)
Ikasleen portaera	1	-	-	-	-	1	2
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	-	1	-	-	-	1
Irakaskuntza esleitzea	2	-	1	1 (1)	2 (2)	-	6 (3)
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	-	-	1	-	-	1 (1)	2 (1)
JAP/Kredituak aitortzea	2 (1)	-	-	-	-	-	2 (1)
Jazarpena/Jazarpen portaerak	-	1	-	-	-	-	1
Jendearentzako arreta	-	-	-	-	-	1	1
Lan baldintzak	2	-	-	1	1	2 (1)	6 (1)
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	-	-	1 (1)	-	1 (1)
Ordezkapen plazak/poltsak	-	2 (1)	3 (1)	2 (1)	-	-	7 (3)
Osagarri gehigarriak	-	2	-	-	-	-	2
PIF ordainsariak	-	-	1	-	-	-	1
Prezio publikoak	1	-	-	-	-	-	1
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	1
<b>IRI guztira</b>	<b>9 (1)</b>	<b>10 (2)</b>	<b>10 (2)</b>	<b>6 (3)</b>	<b>7 (3)</b>	<b>7 (2)</b>	<b>49 (13)</b>
Arautegia ez betetzea	-	1	-	-	-	-	1
Errektoregoaren portaera	-	1 (1)	-	-	-	-	1 (1)
Erretiroa	-	-	-	1 (1)	-	-	1 (1)
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	1	-	-	-	1
Informazioa eskuratzeko eskubidea	1	-	1	2 (2)	-	-	4 (2)
Irakasleen portaera	-	-	-	-	1	-	1
Lan baldintzak	3	1	-	2 (1)	1 (1)	2 (1)	9 (3)
Lekualdaketa plazak/lehiaketa	2	-	1 (1)	-	-	1 (1)	4 (2)
Merezimenduen ebaluazioa	1	-	-	1 (1)	-	-	2 (1)
<b>AZP guztira</b>	<b>7 (0)</b>	<b>3 (1)</b>	<b>3 (1)</b>	<b>6 (5)</b>	<b>2 (1)</b>	<b>3 (2)</b>	<b>24 (10)</b>
Bekak	1(1)	-	-	-	-	-	1 (1)
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	-	-	-	1	1
Ikasketetarako sarbidea	-	2	2	1	-	-	5
Jazarpena/Jazarpen portaerak	-	-	-	1 (1)	-	-	1 (1)
Kontratazioa	-	1	-	-	-	-	1
Merezimenduen ebaluazioa	1	-	-	-	-	-	1
Ordezkapen plazak/poltsak	6 (2)	-	1 (1)	-	-	-	7 (3)
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	-	1 (1)	1 (1)
Bestelakoak	-	-	-	1 (1)	-	-	1 (1)
<b>Beste Batzuk guztira</b>	<b>8 (3)</b>	<b>3</b>	<b>3 (1)</b>	<b>3 (2)</b>	<b>-</b>	<b>2 (1)</b>	<b>19 (7)</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>34(5)</b>	<b>27 (5)</b>	<b>21 (5)</b>	<b>20 (11)</b>	<b>17 (6)</b>	<b>18 (5)</b>	<b>137 (37)</b>

### 1.9.2. Baietsitako kekek eragin dituzten kolektiboak eta organoak

8. taulan, baietsitako kekek eragin dituzten organoak eta kolektiboak ikus daitezke (aurreko taulan bezala, hiru urtez edo gehiagoz errepikatu direnak nabarmendu dira).

#### 8. taula. Baietsitako kekek eragin dituzten kolektiboak eta organoak

Kolektiboak eta organoak	2012	2013	2014	2015	2016	2017
Argitalpen Zerbitzua	-	-	-	-	1	-
Arkitektura GETko Zuzendaritza	-	1	-	-	-	-
AZP	-	-	-	-	-	1
Berrikuntzaren, Gizarte Konpromis. eta Kulturgintzaren arloko Errek.	-	-	-	-	-	1
Bilboko Ingeniaritza GETeko Idazkaritza	-	1	-	-	-	-
Bilboko Ingeniaritza GETko Zuzendaritza	1	-	-	-	-	-
Bilboko Irakasleen UEko Zuzendaritza	-	-	-	1	-	-
DBHko Irakasleen Prestakuntzako Masterraren Zuzendaritza	1	-	-	-	1	-
Epaimahai berezia	-	-	-	-	1	-
Erosketen atala	-	-	-	1	-	-
Errektoregoa	4	3	1	1	1	-
Euskara eta Eleaniztasunaren arloko Errektoreordetza	1	-	-	-	-	-
Farmazia F. Dekanotza	-	1	-	-	-	-
Gerentzia	8	1	-	-	1	1
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F. Dekanotza	-	1	-	-	-	-
Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errektoreordetza	6	3	1	-	-	-
Graduko eta Graduondoko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	1
Graduondokoen eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetza	-	-	-	1	1	-
Idazkaritza Nagusia	1	1	1	3	-	-
Ikaslea	1	1	-	-	2	2
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	2	1	1	2	1	-
IKT Gerenteordetza	-	-	-	-	-	1
Ikuskizunaren Arteak eta Zientziak Masterraren Zuzendaritza	-	-	-	1	-	-
IMHko Ingeniaritza Dualaren UE Zuzendaritza	-	-	-	-	-	2
Irakasle-ikertzaileak	-	5	1	-	3	1
Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza	6	3	5	3	3	3
Itsas Ingeniaritzako Masterraren Zuzendaritza	-	-	-	1	-	-
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F. Dekanotza	-	-	-	1	-	-
Kanpoko Praktiken Zuzendaritza	-	-	1	-	-	-
Lurralde Batzorde Bitarikoa UPV/EHU - Osakidetza	-	-	-	-	-	1
Master eta Doktorego Eskola	-	1	1	-	1	-
Master Profesionalaren Zuzendaritza	-	-	-	-	-	2
Medikuntza eta Odontologia F. Dekanotza	-	1	1	-	-	-
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	1	1	3	-	1
Psikologia F. Dekanotza	1	-	-	-	-	-
Psikologia Fakultateko Idazkaritza	-	1	-	-	-	-
Saileko zuzendariak	2	-	4	-	1	-
Sarbidea	-	-	2	1	-	-
Zerbitziburua	-	-	1	-	-	-
Zientzia eta Teknologia Fakultateko Idazkaritza	-	1	-	-	-	-
Zuzenbide F. Dekanotza	-	-	1	1	-	1
<b>Guztira</b>	<b>34</b>	<b>27</b>	<b>21</b>	<b>20</b>	<b>17</b>	<b>18</b>



### 1.10. Jasotako erantzuna

Kexak eragin dituzten pertsona eta organoengana jo dugunean, oso erantzun egokia eman digute: oraingoz, baietsitako 18 kexetatik 16tan, pertsonak edo organoek egoki eta zentzuz hartu dituzte bulegoak egin dizkien planteamenduak eta gomendioak. Bi kasu erantzunaren zain daude, eta ez dugu txartzat har daitekeen erantzun bakar bat ere jaso (ikus 9. taula).

**9. taula. Kexari erantzun behar izan dioten pertsonen edo organoen erantzuna**

Erantzuna	2012	2013	2014	2015	2016	2017	Guztira
Ona	27	22	15	18	15	16	113
Ona, neurri batean	3	2	3	2	2	-	12
Txarra	4	3	3	-	-	-	10
Erantzunaren zain	-	-	-	-	-	2	2
<b>Guztira</b>	<b>34</b>	<b>27</b>	<b>21</b>	<b>20</b>	<b>17</b>	<b>18</b>	<b>137</b>

### 1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen lankidetzak

Zerbitzu eta pertsona guztiek agudo eta prestasunez hartu gaituzte, salbuespenik gabe, laguntza eskatu diegunean kexa edo kontsulta bati egoki erantzuten saiatzeko.

2017ko txosten hau baliatu nahi dugu eskerrik beroenak emateko Aldezlearen zerbitzuarekin elkarlanean aritu diren eta gure eginkizuna betetzen lagundu diguten pertsona guztiei: ikastegi eta sailtetako idazkaritzetako langileei, ikastegietako dekanok eta zuzendariari, sailtetako zuzendariari, zerbitzuetako arduradunari, Errektorego taldeko kideei, ikasleei...

## 2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk

Kontsultak eta kexak edo bitartekaritza prozedurak jaso, izapidetu eta ebazteaz gainera, beste jardura batzuk egin dira, jarraian aipatuko ditugunak.

### 2.1. Lankidetzak G9 taldeko defendatzaileekin

UPV/EHU kide den G9 taldeko defendatzaileen bilera egin zen Madrilen, 2017ko otsailaren 2an eta 3an, eta bertan egon ginen. Bilera hartan, gai hauek aztertu ziren:

- 1) "Irakasleen prekarizazioa".
- 2) "Doktorego tesien ebaluazioa".
- 3) "Unibertsitate sistemari buruzko gogoetak, EUEn sartzean. 1. zatia: planteatutako helburuen betetze mailaren analisia, eta, 2. zatia: inplikazioak ikasleen eskubide eta askatasunen murrizketan"

- 4) "G9ko unibertsitateetan irakaskuntza ebaluatzeko prozeduretan erabilitako inkesten azterketa konparatiboa".
- 5) G9ko unibertsitateetan aurreikusitako eta ikasleei eskainitako laguntza programen analisi konparatiboa, zeinak, askotariko arrazoiak direla eta, beken deialdietatik kanpo geratzen baitira".

Adezlearen zerbitzuak hainbat txosten prestatzeko lanean parte hartu zuen, txosten bakoitzaren arduradunek bidalitako inkestei erantzunda.

## **2.2. Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren XX. Bilkura**

*Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen XX. Bilkura*, Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziak (CEDU) bultzatu eta Gaztela-Mantxako Unibertsitateak antolatu zuzena, Cuencan egin zen, 2017ko azaroaren 8tik 10era. Topaketa hartan gai hauek landu ziren:

- 1) "Jabetza intelektuala unibertsitatean (Irakasle-ikertzaileak eta ikasleak).
- 2) "Katedra askatasuna: kontzeptua, mugak eta beste eskubide eta betebeharrak batzuekiko harmonizazioa."
- 3) "Unibertsitate defendatzaileen zeregina: balantzea eta perspektibak."

## **2.3. CEDUren Batzar Nagusiaren 10. bilkura**

2017ko azaroaren 10an, Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren batzar nagusiaren 10. bilkura egin zen, Gaztela-Mantxako Unibertsitatean, eta bertan zuzendaritza batzordeko presidente berria eta 10 batzordekideak hautatu zituzten.

## **2.4. Lankidetzaren CEDUko defendatzaileekin erakunde horren foroetan parte hartuz**

Unibertsitate defendatzaileen arteko lankidetzaren iraunkorraren esparruan, ohikoa da gaiak posta elektronikoen bidez planteatzea, askotariko alderdiei buruzko informazioa eskatuta. 2017. urtean, gure bulegoak CEDUko defendatzaileekin kontsultatutako hainbat gaitan parte hartu du, eta ekarpenak ere egin ditu. Gainera, G9ko eta CEDUren bileretan aztertutako gaien buruzko informazioa eskatuz iritsi zaizkigun inkesta guztiei erantzun diegu.

## **2.5. CEDUren Zuzendaritza Batzordea**

Itziar Etxebarria agintaldian, 2017an, aldeak CEDUren Zuzendaritza Batzordearen bi bileretan parte hartu zuen. Bat Las Palmas Kanaria Handikoan egin zen, 2017ko martxoaren 2-3an, eta bestea, Madrilan, 2017ko maiatzaren 25-26an. Lehenengoan, Zuzendaritza Batzordeko hainbat kide hautatu zituzten, hutsik geratutako plazarak betetzeko, eta beste erabaki batzuk ere hartu ziren, hala nola maiatzean jardunaldi tematiko bat egitea. Bigarrenean, eztabaida jardunaldi bat egin zen, eta bertan unibertsitateko kolektibo guztien eskubideen aurka doazen alderdi nagusiak aztertu ziren.

## 2.6. Harremanak Arartekoarekin

2017ko azaroaren 17an, bilera bat egin zen Manuel Lezertua Arartekoarekin, haren taldeko kide batekin eta UPV/EHUko irakasle Rafa Sainz de Rozas jaunarekin. Bileran, giza eskubideen babesari buruzko gaiak aztertu genituen, haien defentsa eta zabalkundea lehentasunezko gaiak baitira bi erakunderentzat. Bereziki aztertu genituen hezkuntzarako eskubideari lotutako gaiak eta eskubide hori bete dadin egon daitezkeen oztopoak hainbat kolektiborentzat, hala nola ezgaitasuna duten pertsonentzat, ingurune kaltetuetan bizi direnentzat edo kartzelan daudentzat.

Etorkizunean lankidetzaren estuagoa izatea adostu genuen, berehala heldu beharreko zenbait gairekin hasita. Era berean, baterako ekintza batzuk zehaztu genituen, gai hauen inguruan: giza eskubideen dibulgazioa, bitartekaritza prozesuetan sakontzea, babes eta asilo eskubideen analisia, hezkuntza eta kultur eskubideak. Etorkizunean lankidetzaren bultzatzeari eta UPV/EHUko kolektiboek eragiten dieten kasuetan informazio trukea areagotzeari begira, zuzeneko harreman bideak ireki dira bi erakundeen artean.

## 2.7. UPV/EHUko Gobernu Kontseilua

Karguaren jabetza hartu dudanetik, maiztasunez joan naiz Gobernu Kontseiluaren bilkuretara, gonbidatu gisa. Kontseiluaren bilkura horietan, hobeto ezagutu ahal izan dut gure unibertsitatea, eta planteatutako arazoak ezagutu eta ulertu ahal izan ditut; hori guztia oso baliagarria izan da niretzat, eman dizkidaten zereginak egiteari begira. Joan naiz ere, gonbidatu gisa, Unibertsitateko Klaustro honen saioetara.

## 3. Urteko txosten ekonomikoa

2017ko aurrekontua 15.000 eurokoa izan da, aurreko urteetako kopuru bera. Hamargarren taulan, gastuak eta urteko ekitaldi ekonomikoa ixteko datari –abenduak 31– dagozkion kontuen egoera ikus daitezke.

### 10. taula. 2017ko laburpen ekonomikoa

<b>Hasierako aurrekontua</b>	<b>15.000,00 €</b>
<b>Gastuak</b>	
Bulegoko materiala, fotokopiak...	2.963,25 €
CEDUren bazkide kuota	225,00 €
Ikastaroak	3.930,75 €
Inprimagailua	121,00 €
Liburuak	28,32 €
Bidaiak eta dietak	6.902,14 €
Beste gastu batzuk	731,10 €
<b>Gastuak guztira</b>	<b>14.901,56 €</b>
<b>Saldoa</b>	<b>98,44 €</b>

#### 4. Ondorioak eta gomendioak

2017. urtean aurkeztutako kontsultak eta keak oinarri hartuta, gure bulegoetara iritsitako gai nagusiei buruzko hainbat gogoeta partekatu nahi genituzke unibertsitateko kideekin. Era berean, kasuren batean, hainbat ohar eta iradokizun egingo ditut, baloratu ahal izango direnak, sakonean planteatutako gaia ahal bezain ongi bideratzen ahalegintzeko, unibertsitateko zerbitzua etengabe hobetzen laguntzeko helburuarekin.

Ezer baino lehen, hainbat datu orokor emango ditut. 2017. urtean, UPV/EHUko Adezlearen zerbitzuaren bulegoetatik, guztira, 159 pertsona igaro dira zerbitzu eske, eta 164 kasu eman dira, hainbat pertsonak kasu bat baino gehiago planteatu baitute. Kopuru nabarmenak dira, eta azken urteetan erregistratutakoak gainditzen dituzte. Datu horiek oinarri hartuta, hainbat irakurketa egin daitezke. Alde batetik, pentsatzekoa denez, datuok erabat asebetetzen gaituzte; izan ere, zerbitzu bat eman ahal izan diegu gure erakundearengan konfiantza jarri duten unibertsitateko kide askori. Espero dugu huts egin ez izana. Lehen ikuspegi horretatik, poztekoa da guretzat azken urteetako beherako joera, bai kasuetan bai zerbitzuaren erabiltzaileengan, irauli izana. Edonola ere, datuek erakusten digute hazkundera ez dela agertzen intentsitate berberaz kolektibo guztietan; hala, AZPko langileekin ahalegin handiago bat egin behar dugu, gure zerbitzuen berri emateko eta erakundearen balioa azaltzeko, beren eskubide eta interes legitimoen defentsan.

Edonola ere, pertsona eta kasuen kopuruak gora egin duenez, irudi luke 2017an egoera gatazkatsuak areagotu direla gure unibertsitatean. Ideia hori, ordea, erlatibizatu egiten da beste datu batzuei erreparatuz gero; adibidez, kontsultak areagotu dira (joan den urtean jasotakoan ia bikoitza), guztira, 115, baina horren aurrean, 41 kexa izapidetu, eta 8 bitartekaritza kasu izan ditugu. Aurten kexa prozedurak ez dira areagotu, eta horiek izaten dira dokumentatuenak eta gai korapilatsuenak biltzen dituztenak. Eta hori horrela izan da, gure bulegoetara joandako pertsonen kopurua nabarmen areagotu bada ere. Gertaera horrek agerian uzten du, batetik, aurreko urteekin alderatuta gatazka maila ez dela areagotu, eta, bestetik, aztergai gehiago bideratu direla kontsulten bidez; hala, informazioa eman dugu, unibertsitateko kideek dituzten eskubideei buruz eta horiek bide arruntetan gauzatzeko moduei buruz.

Jarraian, guregana iritsitako gai batzuk aipatu, eta horiek sortutako auziak azalduko ditugu, 2017an sortu edo berriro errepikatu diren gai batzuei buruzko gogoeta orokor bat egiteari begira.

*Hurrenhera automatikulan.* Gai horri dagokionez, ikasleen hainbat idatzi jaso ditugu, eta, funtsean, zenbait irakasgairen kalifikazioa sistema informatikoan garaiz sartu ez izanaren arazoa planteatzen zuten; izan ere, horren ondorioz, kalifikazio horiek ezin dira kontuan hartu ikasleen automatikulak ordenatzeko unean, graduiko ikasketak kudeatzeko arautegiaren 27.4 artikulua ezartzen duen moduan. Gai horri dagokionez, kontuan hartu behar dugu, kalifikazio batzuk ez sartzeak talde osoari eragiten dion neurrian, ez dela planteatzen ari berdintasun printzipioaren haustura; alabaina, egia da kalifikazio horiek, garaiz sartu izan balira, aldaketak eragingo zituztela ikasleen hurrenkeran, eta modu horretan garaiz kanpoko kalifikazio horien onura jasoko zutenen itxaropen legitimoak urratuko liriatekeela. Gai horretan, azpimarratu behar dugu beharrezkoa dela irakasleek ahalik ez azkarren jardutea

aktak sinatzeko unean (bereziki hainbat irakaslek partekatutako irakasgaitan) eta behin betiko kalifikazio espedientera igarotzea ezarritako epeen barruan. Diligentzia horrek erabatekoa izan beharko luke, bereziki, azterketaren data aldia ixteko datatik gertu daukaten irakasgaien kasuetan.

*Matrikulatutako irakasgaien arteko bateraezintasuna.* Planteatu den kasu batean, ikasle bat ezin izan zen joan ikasturte berean matrikulatutako irakasgai guztietara, irakasgaien ordutegiak bateraezinak zirelako; horren ondorioz, ikasle horrek ezin izan zuen bukatu aukeratutako minorra. Gaiak eskaintzen dugun hezkuntza zerbitzuari eragiten dio, eta, zerbitzua hobetu nahi bada, ahalik eta lasterren zuzendu beharko litzateke beharrezkoak diren antolakuntza neurrien bidez.

*Irakasleak baloratzeko inkestak.* 2017. urtean, lehenengoz, irakasleak baloratzeko inkesten hainbat alderdirekiko desadostasunari buruzko kasu batzuk planteatu zaizkigu. Irakasgai eta talde bakoitzaren irakaskuntza amaitzean ikasleek egiten dituzten inkestak dira. Kasu batzuetan, aparteko egoerak eman dira, ikasleen talde jakin batzuegan eragina izan dutenak, hala nola ikasleen presentzia urria ebaluazioen bezperan eta horrek berak dakarren balorazioen adierazgarritasun arazoa, edo gatazka espezifikoren bat... Alabaina, hainbat planteamenduren atzean, irakasle-ikertzaileak baloratzeko inkestari promozio eta karrera profesionalerako ematen zaien balio handiari buruzko irakasle-ikertzaile batzuen iritzia dago (irakasle-ikertzaileen osagarri gehigarrien deialdiez edo irakaskuntza bosturtekoen aitortzaz ari gara); balorazio kritikoak jaso ditugu, halaber, irakaskuntza inkesten betetze sistematikotzat zer ulertu behar den zehazteko irizpideei buruz (Erabakia, 2015eko uztailaren 14koa, Gradu eta Berrikuntzako Ikasketen arloko eta Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeenak).

Alderdi horiei begira, abiapuntutzat hartu behar dugu irakasle-ikertzaileen irakaskuntza ebaluazioan eta administrazio zerbitzuen ebaluazioan parte hartzeko eta ebaluazio horien informazioa jasotzeko eskubidea aitortzen zaiela ikasleei araudian (UPV/EHUko Estatutuen 17.1.h artikulua, denentzat); era berean, unibertsitateko sail guztientzako irizpide komun bat finkatu izana positibotzat jotzen da, horrek tratu berdintasuna bermatzen duelako irakasle-ikertzaile guztientzat. Unibertsitateen Kontseiluak unibertsitateko irakasleen irakaslan ebaluatzeko irizpide orokorrak ezarri zituen (1990eko ekainaren 20an, unibertsitateko irakasleen ordainsariei buruzko abuztuaren 28ko 1086/1989 Errege Dekretuan aurreikusita zegoen moduan), eta adierazi zuen, halaber, unibertsitateek ikasleen inkesta erabil dezaketela irakasleen irakaslan zehatza ebaluatzeko, baldin eta inkestak behar adina kontrastatutako eredu bati erantzuten badio, dagokion kide anitzeko organoak onartzen badu, egin aurretik jendaurrean jartzen bada eta anonimotasuna bermatzen badu. Oinarri horien gainean eman dira gaur egun aplikagarriak diren arauak. Beste kontu bat izan daiteke ea inkesten emaitzek irakaskuntza merezimenduak baloratzeko irizpide bakarra osatu behar duten, haien pisua behar bezala haztatua dagoen edo emaitzak objektibatzen lagun dezaketen beste inguruabar batzuk kontuan hartu beharko lirartekeen; edonola ere, gaur-gaurkoz, ordainsari osagarrien egokitasuna onartzeko edo ez onartzeko 209/2006 Dekretuak eranskinean (64/2011 Dekretuak aldatutakoa) eta lehen xedapen gehigarrian ezarritakoa bete behar da, eta, horrenbestez, hor ezarritako adierazleei erreparatu behar zaie.

*Ebaluazioa.* Atal honen barruan, bereziki erreparatu behar zaie azterketen berrikuspenari buruzko kexei. Gai horri lotuta, egokia izango litzateke ikasleek

berrikuspen prozesu batetik zer espero dezaketen argitzea eta irakasleen funtzioa modu argian zehaztea.

Ez ditugu nahastu behar berrikuspen prozedura eta azterketaren akatsei buruzko informazio eskaera. Azken horiek eta horien bidez akatsak jakinarazteak balioa eransten diote ebaluazio prozesuari, prestakuntza balioa emanez; hortaz, irakasleek kontu handiz zaindu beharko lukete. Edonola ere, akatsen jakinarazpena eta berrikuspen prozedura bereizi beharko lirateke, azken hori ekintza formal bat baita, berme eta epe luzaezin batzuen menpe dagoena.

Ebaluazioari lotuta eta, bereziki, etengabeko ebaluazioaren probek eta jarduerak azken ebaluazioan duten balorazioa aintzat hartuta, negatiboki baloratutakoak errekuuperatzeko aukera planteatu beharko litzateke, beharbada. Aukera hori Irakaskuntza Gidan jaso daiteke; esate baterako, etengabeko ebaluazioaren sisteman egindako azken proban gaia sartuta, jardueraren beraren ezaugarriengatik errekuuperatu ezin diren irakasgaiak salbuetsita. Hori irakaskuntza jarduera egoki bat izan zitekeen, eta gaur egun, egin ere, askok egiten dute.

Aukera berdintasunaren printzipioa bermatzeari begira, zera azpimarratu behar dugu: gure araudiaren arabera, irakasgai bakoitzaren ebaluazioa irizpide eta prozedura berberen arabera diseinatu behar da, haztapenak barne, talde guztientzat (Graduko titulu ofizialetan ikasleen ebaluazioa arautzen duen Arautegiaren 8.1 artikulua); horrekin bat etorrita, kontuan hartu behar da ere irakasgaietako irakaskuntza gidek bakarrak izan behar dutela irakasgai bakoitzeko, eta horien barruan sartuta egon behar dutela ikaskuntzan espero diren emaitzak eta ebaluazio irizpideak eta sistemak, dagokien haztapenekin batera. Sailek onartutako irakasgaien irakaskuntza gidak, berriz, ikastegiek argitaratu behar dituzte webgunearen bidez, ikasturtearen matrikulazio epea ireki aurretik.

Garrantzitsua da, halaber, irakasleek ebaluazio sistemari buruz eman ditzaketen balizko "argibideen" mugak berriz ere azpimarratzea, 2017an ere halakoak hauteman ditugulako. Argibide horiek eta irakaskuntza gidan aurreikusitakoa kontraesankorrak izan daitezkeen neurrian, ezin zaie baliorik onartu. Izan ere, irakaskuntza gidan zehaztu behar da proba edo jarduera bakoitzaren haztapena irakasgaiaren kalifikazioan; era berean, gidan adierazi behar da proba nahitaezkoa den; hau da, irakasgaia gainditzeko proba nahitaez egin eta gutxieneko nota bat lortu behar den. Horiek dira irakaskuntza gidaren berezko edukiak, eta sailek ziurtatu beharko lukete alderdi horiek argi jasotzen direla, onartzeko unean interpretaziorako tarterik utzi gabe.

Ebaluazioari dagokionez, zuzendutako ebaluazio proba idatziak eskuratzeko eskubideari buruzko gaia ere planteatu zaigu. Ikaslearen eskubide bat da, bera interesduna den neurrian; hortaz, ikasleak gauza dezake, eta irakasleak ezin du ukatu. Era berean, kontuan hartu behar da proba eskuratzeko eskubidea eta, bereziki, berrikusteko eskubidea ez direla mugatzen azken probara; hau da, kalifikazioa emateko orduan kontuan hartutako proba edo ebidentzia guztiak sartzen dira.

*Irakasgaiak koordinatzea.* Aztertu dugun kasuren batean, akatsak hauteman ditugu irakasgaiak taldeen artean koordinatzeko sisteman. Irakasgai bera taldeen artean egoki koordinatzea oinarrizkoa da, ikasleen berdintasun aukeren printzipioa bermatzeko; hortaz, sailek diligentzia handiz jardun beharko dute alderdi horri



dagokionez. Koordinaziotik espero denari dagokionez, jakin behar dugu orain dela gutxi onartu dela, Graduako eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordearen proposamenez, "irakasgaiko koordinatzailearen figurari buruzko graduako ikasketak kudeatzeko arautegiaren Arau Osagarria", 2017ko abenduaren 14koa. Arau horrek exijitzen du langileak koordinatzea, baldin eta irakasgai bat irakasle batek baino gehiagok ematen badute ikastegi edo atal baten barruan. Honako alderdi hauek finkatu dira: koordinatzailea izendatzeko modua, haren zereginak, inplikaturako gainerako irakasleen betebeharrak, bileren erregimena ikasturtean, eta irakasgaiko koordinatzailearen azken txostenaren edukia.

*Iruzurra ebaluazioan.* 2017. urtean ere ebaluazio probetan egindako iruzurrari buruzko kontsultak eta kezak jaso ditugu, hainbat estamentutatik. Irakasleak kezkatuta daude gai horrekin, eta jakin nahi dute nola jokatu behar duten azterketetan kopiatzeak hautematen dituztenean, eta behar besteko bermerik gabe neurriren bat hartzen denean, ea neurria eraginik gabe gera daitekeen, edo haien kontrako ondorioak izan ditzakeen. Gai hori iristen da ere Gradu Amaierako Lanen balizko plagioetara. Irakasleen kezka iturri ere bada kopiatzeko sistemen sofistikazio gero eta handiagoa, "txuleta" klasikotik edo hurbil dagoen ikaskideari erantzuna esatetik hasita, ahotsa eta datuak sistema elektronikoen bidez transmitzeraino.

Jarrera iruzurti horiek unibertsitatearen oinarrizko balioen aurkakoak dira, eta kanporatu beharrekoak; beraz, ebaluazio probak gainditzeko bitarteko iruzurren erabilerari aurre egin behar zaio. Izan ere, ikasleen betebeharrak bat hau da: "Balioespen probetan, egin beharreko lanetan edo unibertsitatearen dokumentu ofizialetan iruzurrezko prozedurarik ez erabiltzea eta horietarako laguntzarik ez ematea" (Unibertsitateko ikaslearen estatutua onartzeari buruzko abenduaren 30eko 1791/2010 Errege Dekretuaren 13.2.d artikulua). Era berean, gure araudiaren arabera, ebaluazio proba batean kopiatu izanaren egiaztapen frogagarria izanez gero, inplikaturako ikasleek gutxiegi kalifikazioa jasoko dute proba horretan, horregatik legokiekeen bestelako erantzukizunik alde batera utzi gabe. Egiaztapena proba egin bitartean egiten bada, inplikaturako pertsonaren proba berehala eten daiteke (Ikasleen ebaluazioa arautzeko Arautegiaren 11.3 artikulua).

Edonola ere, gai horrek gure unibertsitateko irakasleen artean sortzen dituen zalantzak ikusita, gomendagarria izan daiteke protokolo bat egitea, langileei jardutea ahalbidetuko diena, kopiatze egoeretan legitimoki har ditzaketen neurriak ezagututa eta kasu bakoitzean jaso beharreko ebidentzien eta irizpideen berri izanda; halaber, "egiaztatze frogagarria" terminoaren interpretazio zuzenerako argibideak eman beharko lirarteke.

Bestalde, ikasleren batek kezaren bat aurkeztu du ere azterketen balizko plagio edo kopia batean oinarritutako gutxiegi kalifikazio baten inguruan; ustezko kopiatze edo plagioa ez zen hauteman proba egiteko unean, azterketa idatziak zuzentzeko unean baizik. Kasu horietan, gaiari buruzko jurisprudentziaren arabera, iruzurra modu frogagarrian egiaztatzeko indizio, ebidentzia eta lekuko guztiak jaso beharko lirarteke, baita azterketa beraren idazketa antzekoak ere. Lehen aipaturako protokoloa oso lagungarria izan daiteke horrelako gaiak modu egokiagoan bideratzeko.

Protokolo hori oso erabilgarria izan daiteke ere irakasleen jardura ildoak deskribatzeko, ikasleen portaera desegokiaren edo diziplinarik gabeko egoeren aurrean;

horrelako egoerak oso ezohikoak diren arren, horien berri izan dugu, tamalez, 2017. urtean jasotako kontsulta baten bidez.

*Irakaskuntza esleitzeko irizpideak.* Lehen eranskinean, irakaskuntza esleitzeko irizpideei buruzko gomendio bat aurkituko duzue, eta horretara jo dezakezue. Hemen bakar-bakarrik nabarmendu nahi dut eranskin horretan aurkituko dituzuen eta sailek ezarri beharko lituzketen proposamenak bete-betean sartzen direla unibertsitate politikaren arloan, organo eskudunen eskumenekoak direlako, eta Aldezlearen zerbitzuak jokaera neutrala eduki behar duela horiekiko, betiere araudira egokitzen badira.

*UPV/EHUn Jarraitzeko Arauen interpretazioa.* Lehen eranskinean topatuko duzue, halaber, UPV/EHUKo Graduako Ikasketetan Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikulua interpretatzeko proposamen bat (UPV/EHUKo Gizarte Kontseiluak 2010eko uztailaren 14ko bileran onartutakoa eta 2014ko apirilaren 15eko EHAAn argitaratutakoa). Aipatutako arauaren 2.1 artikulua honela dio: "Ikasleak aurreko mailetan gainditzeke dituen irakasgai guztietan matrikulatu behar du". Horri buruz planteatzen den gaia honako hau da: arau horren hitzez hitzeko interpretazio baten oinarriaren gainean, giltza irakasgaien kasuan, gure iritziz, halakoren bat gainditu ez duen ikasleari gehiegi murrizten zaio ikasketetan aurreratzeko aukera. Kasua hau izango litzateke: demagun hirugarren mailako talde batean sartuta dagoen ikasle batek bigarren mailako irakasgai bat gainditzeke duela eta hori giltza dela hirugarren mailako irakasgai bat egiteko; bada, ikasle horrek, hirugarren maila amaitzean, ezin izango da laugarren mailako irakasgai bakar batean ere matrikulatu, aurreko mailako (hirugarren maila) irakasgai batean ez delako matrikulatu bigarren mailako giltza irakasaia gainditzeke duelako.

UPV/EHUn Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikulua helburua, funtsean, ikasleek beren nahierara aurreko mailetan gainditu ez dituzten irakasgaiak matrikulatu gabe uztea dela ulertzen dugu. Alabaina, beste kontu bat da hurrengo mailako irakasgaiak egin ahal izateko Ikasketa Planean ezarritako eskakizunen eraginez ikasleak aurreko ikasturteko irakasgaiak matrikulatu ezin ahal izatea. Bi egoera desberdin dira. Lehen kasuan, arauak ikaslearen ahalmena mugatu nahi du, bere nahieran irakasgai jakin batzuk egin gabe utz ez ditzan; bigarren kasuan, ordea, ikasleak ez du aukerarik, Ikasketa Planak berak haren borondatea mugatzen duelako. Bigarren kasu horretan, gainditzeke dituen irakasgai guztietan matrikulatu nahi balu ere (hori baita araudi aplikagarriaren 2.1 artikulua lortu nahi duena), ezingo luke halakorik egin haren esku ez dauden arrazoiengatik, eta horrek bere ikasketan aurrera egitea eragotziko lioke. Gauzak horrela, Aldezlearen zerbitzuak interpretazio hau proposatzen du: UPV/EHUKo Graduako Ikasketetan Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikulua interpretazioa hau izatea: "Ikasleak aurreko ikasturteetan gainditzeke dituen eta ikasketa planak uzten dion irakasgai guztietan matrikulatu beharko du". Hala, irakasgai baten matrikulazioa aurreko ikasturteko beste irakasgai bat gainditzearen baldintzapean egonez gero, aurreko ikasturteko irakasgaiak matrikulatzea nahitaezkoa izango da UPV/EHUn Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikulua betetzeko, baina hurrengo ikasturteko irakasgaiak matrikulatzeko ezintasunak (baldintza betetzen ez delako) ez du baldintzatuko mailen arteko aurrerapena edo beste irakasgai batzuetan matrikulatzeko aukera.

*Irakasle-ikertzaile ezgaituen laneratzea sustatzea.* Zerbitzu honek gai horri buruz emandako beste gomendio bat aurkituko duzue eranskinean. Horren bidez, helburu



hori betetzeko hainbat irizpide eta prozeduraren onarpena bultzatu nahi da, beste unibertsitate batzuetan egindakoaren harira.

*Ikasketetan lehia bidez sartzeko prozesuetan parte hartzaileek izandako emaitzak argitaratzea.* Bestalde, sarbidea lehia bidezko irizpideen bidez egiten denean, UPV/EHUn ikasketak egiteko hautagaiek lortutako puntuazioak jasotzen dituzten zerrenden argitalpenik eza legezketasunera egokitzearen gaia planteatu zaigu. Horri buruzko gomendio bat idatzi da, eranskinean jasota dagoena. Hala, Gardentasun Legeak 15.3 artikuluan eskatutako haztapena egin ondoren eta kontuan hartuta gaiari buruzko irizpide jurisprudentzialak, bai eta Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren eta Gardentasun eta Gobernu Egokiaren Kontseiluaren interpretazioa ere, gomendatzen da hautagaiek masterretara sartzeko lortutako puntuazioak ematen dituzten zerrendak argitaratzea, lehia bidezko prozesuaren informazio esanguratsua eskuratzeko moduan jarrita, parte hartzaileek prozeduraren inpartzialtasuna egiazta dezaten, horretan parte hartu baitute eta plaza berak lortzeko lehiatu baitira. Zerrendak datuak bereizteko moduren batean argitaratzea proposatzen da, edo parte hartzaileak NAN zenbakiaren edo eskaera zenbakiaren bidez identifikatzea.

*Erantzunik gabeko eskaerak.* Alderdi hori behin eta berriro planteatu izan da, baina azken aldian ez da lehengo maiztasunez errepikatzen. 2017ko kasuei erreparatuta, zerbitzu guztietan hobekuntza bat eman dela nabarmendu behar dugu, berandutako erabakien salbuespenetan izan ezik; horrelakoen berri izan dugunean, dena delako zerbitzuari edo sailari erantzuteko eta erabakia epearen barruan jakinarazteko betebeharra gogorarazi diogu.

Nolanahi ere, eskaerei buruzko hainbat alderdi argitu behar ditugu; izan ere, haien izaeraren arabera, ez da araubide juridiko bera aplikatzen. Hala, hainbat suposamendu bereizi behar dira: gerta daiteke, lehenik eta behin, eskaera eskatzeko eskubidean oinarrituta egotea, iradokizun bat, ekimen bat, informazio bat, kexa adierazpen bat, edo erregu bat tartean sartuta. Eskatzeko eskubidearen xedearen ezaugarria da zabala izatea eta interes orokor, kolektibo edo partikularreko edozein gairi buruzkoa izatea. Halere, izaera administratiboko prozedura formal espezifikoekiko ordezkio izaera duenez, hertsiki aukerakoa edo adeitsua izatearen eremura mugatu da, bereziki araututako prozedura baten xede ez den horretara. Horrelako kasuetan, epe barruan ez erabakitzeari buruzko prozedura eta ondorioak eskatzeko eskubidea arautzen duen azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoaren xedapenen bidez bideratu behar dira.

Bigarren kasu bat eman daiteke eskaeraren xedea informazio publikoa eskuratzeko eskubidean oinarritzen denean, eskubide horren titularrak pertsona guztiak baitira eta gauza baitaiteke eskaera arrazoitu beharrik gabe. Eskubide hori soilik muga daiteke informazioaren izaeragatik beharrezkoa den kasuetan edo babestutako beste interes batzuekiko gatazka sortzen denean, 19/2013 Legearekin bat etorrira (abenduaaren 9koa, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa). Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzeko erraztasunak emate aldera, Lege horrek prozedura bizkor bat ezartzen du, erantzun epe labur batez. Informazio publikoa eskuratzeko bideari buruzko gaietan emandako erabakiak, edo erabaki eza, zuzenean errekurritu daitezke Administrazio auzien jurisdikzioaren aurrean, Informazio Publikoa Eskuratzeko Euskal Batzordearen

aurrean hautazko erreklamazio jartzeko aukera eragotzi gabe, aukerako izaera edukita eta administrazio auzibidean aurka egin aurretik.

Hirugarren kasu bat eman daiteke unibertsitateko organoek eskatutako informazioa jendaurrean jarri behar dutenean UPV/EHUren gardentasun atarian.

Eta laugarren kasua izango litzateke eskaera unibertsitate araudiak araututako prozedura bati erantzuten dionean; horrelakoetan, erregimen orokorra aplikatuko da, zeina jasota baitago Administrazio Publikoen Prozedura Administratibo Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean, baita unibertsitate araudi espezifikoan ere.

Informazio xedeetarako, gomendagarria da legediak dokumentuak aurkezteko ezarritako eskakizun formalak betetzeko betebeharrari buruz ohartaraztea, baldin eta gero legediak administrazio erabakiak epean ez jakinarazteari lotzen dizkion eskubideak baliarazi nahi badira, hala nola dokumentu horiek administrazio erregistroen bidez aurkeztea. Edonola ere, eta guztiaren balorazio gisa, esan dezakegu gure unibertsitatean, kalitatea eta gardentasuna hobetzeko, zorrotasunez bete behar dela aurkeztutako eskaera guztiei epe barruan erantzuteko betebeharra.

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet berriro Adezlearen zerbitzuarengan konfiantza jarri duten pertsona guztiei, baita gure lana eta gure independentzia errespetatu duten unibertsitate zerbitzu eta agintaritzak akademiko guztiei ere, ulertu baitute gatazketatik hainbat irakurketa atera daitezkeela bai gure unibertsitatearen aurrerabiderako, bai gure xede den gizarteari ematen diogun zerbitzu publikoa hobetzeko.

## **I ERANSKINA. Gomendioak**

- 1. Irakaskuntza esleitzeko sistemaren irizpideak**
- 2. Graduako Ikasketetan (UPV/EHU) Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikuluaaren interpretazioa**
- 3. Irakasle-ikertzaile ezgaituen laneratzea sustatzeari buruzko gomendioa**
- 4. Ikasketetara lehia bidez sartzeko prozesuen parte hartzaileen emaitzak argitaratzeari buruzkoa.**



## GOMENDIOA

Erref.

S. 648 / K.730 / Irak/2017

Donostia, 2017ko uztailaren 18a

**GAIA:** Irakaskuntza esleitzeko sistemaren neurri osagarriei buruzko txostena [████████████████████ Saila].

2017ko ekainaren 19an Irakaskuntza esleitzeko sistemari buruzko idazki bat jaso genuen UPV/EHUko Aldezlearen zerbitzuan. Horren bitartez eskatu zitzaigun egungo irakaskuntza esleitzeko sistema sail jakin batean baloratzeko (████████████████████ Saila – ██████████ irakasgaia) eta, halaber, egun ezartzen diren irizpideez gain beste batzuk txertatzeko aukera aztertzeke.

Zehatzago esanda, jasotako idazkian hainbat egoera zeuden jasota, zeinak, antza denez, irakaskuntza esleitzeko orain arte erabili izan den sistemaren emaitza diren. Egoera horien artean, honako hauek dira nabarmentzekoak:

- Bost irakaskuntza programatan parte hartu duen irakasle bat (2014/2015 ikasturtea).
- Irakaslana 09:00etan hasi eta 21:00etan amaitzen duen irakasle bat (2016/2017 ikasturtea).
- Oinarrizko irakasgai baten talde batean hiru irakaslek irakasten dute (2013/2014, 2014/2015, 2015/2016, 2016/2017 ikasturteak).
- Ez dago iraunkortasun bermerik irakasgaietan. Urte batean programa berria prestatu ostean, irakasgaia hurrengo urtera lekualdatzen da.

Jasotako eskaerari erantzunez, UPV/EHUko Aldezlearen zerbitzuak honako txosten hau igorri du:

## TXOSTENA

### A. ARAUDI APLIKAGARRIA

Irakaskuntza esleitzeari dagokionez, honako arau multzo honek osatzen du, nagusiki, araubide juridiko aplikagarria:

1. UPV/EHUko Estatutuak (otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren bidez onartuak). UPV/EHUko Estatutuek hiru organori aitortzen diete irakaskuntza esleitzeko zeregina: Gobernu Kontseilua, errektorea eta Saileko Kontseilua.

Gobernu Kontseiluak, Estatutuen 25.2 artikuluekin bat etorruta, "irakaskuntzaren alorreko betebeharrak eta eskolak esleitzeko irizpide orokorrak zehaztuko ditu". Kasu jakin batzuetan, aurreikusita dago errektoreak irakaskuntza esleitu ahalko dizkiela irakasleei antzeko jakintza arloetan, Gobernu Kontseiluak ezarritako irizpideekin bat etorruta eta aldez aurretik irakasle-ikertzaileak ordezkatzeko dituzten organoekin negoziatuta, indarreko legedian ezarritako baldintzetan (25.3 artikulua). Azken kasu horri lotuta, Estatutuetako Hirugarren Xedapen Iragankorrak honela dio: "25.3

artikuluaren aipaturiko irizpideak onartu artean eta salbuespenez, errektoreak berak esleitu ahalko ditu irakaslanak beharrezkoa baldin bada zerbitzua bermatzeko”.

Bestalde, Saileko Kontseiluaren zereginen artean, arau bereko 211. artikulua d) letrak dio “Saileko irakasleei irakats betebeharrak eta haien balizko aldaketak esleitzea” dagoela.

Labur esanda, irakaskuntza esleitzeari dagokionez, Gobernu Kontseiluak esleitzeko irizpide orokorrak ezarri behar ditu; errektoreak irakaslanak esleitu behar du, antzeko jakintza eremuetako irakasleei esleitu beharrezko kasu berezietan, eta, oro har, Saileko Kontseiluak irakats betebeharra esleitu behar du.

Eskumenen ikuspegitik kanpo, ikuspegi erreal edo material batetik, Estatutuaren 41.2 artikulua honako hau dio: “Irakasle eta ikertzaileen irakats betebeharrak berdintasunez banatuko dira, estatutuaren 27.4 artikuluan jasotako irizpideei jarraiki”. Estatutuek, hortaz, irakaskuntzaren banaketa berdintasunaren printzipioari jarraiki egitea eskatzen du, aintzat hartuta Estatutuaren 27.4 artikuluan adierazitako irizpideak:

“Gobernu Kontseiluak, kontuan hartuta irakaskuntzaren eta ikerketaren alorreko premiak eta ikasketen planak, irakasleen plantilla eguneratu, egokitu eta berritzeko irizpideak ezarritako ditu, bai eta karguak betetzeari eta irakasle eta ikertzaileen bestelako jardueri erantzuna emango dietenak ere. Irizpide horiek alde aurretik negoziatuko ditu irakasle eta ikertzaileen ordezkari organoekin.

Gainera, ustekabeko egoeretan eskolak ematen direla bermatuko du, kasu kasuko lanpostua araz betetzeko prozesua amaitu arte”.

Transkribaturiko artikulua aipaturiko irizpideak jarraian aipaturiko dugu JAPen bitartez garatu dira (eskola kredituak aitortzeko sistema zuzentzen duena).

## 2. JAPen araudia 2017/2018 ikasturterako (UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen Jardun Akademikoaren Plana, Gobernu Kontseiluak 2015/10/01ean onartutakoa).

Txosten honetan aztertutako gai nagusiari dagokionez, 2017/2018 ikasturterako JAPen araudiak kredituak egozteko prozedura arautzen du, eta honako hau ezartzen du 5. orrialdean:

“...irakaslanak banatzean sailak sailatuko dira irakasgai bera ez banatzen irakasle bat baino gehiagoren artean, hori irakasle kalterako dela pentsatzen baita. Horretarako, sailek kontuan hartuko dute Irakaskuntza Aldi Baterako Esleitzeko eta Irakasle Artean Banatzeko Arautegiak aukera ematen duela irakaslan hainbat urtetarako banatzeko, eta, hortaz, JAPak markatzen duena baino irakaslan gehiago egiten duten irakasleei hurrengo ikasturteetan eman ahal izango zaiela horren ordaina, irakats betebeharrak gutxiago esleitzuz.

Araudi hori ez zaie aplikatuko lanpostu hutsean ez dauden irakasle kontratatuei, ez eta arduraldi partzialeko irakasleei ere, irakasle horien kontratuak irakaslan bakarrik hartzen baitu.

3. Sailen Oinarrizko Arautegia (Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak 2011ko abenduaren 22ko akordioaren bidez onartutakoa)

Sailen Oinarrizko Arautegiak ez du irakaskuntzaren esleipena arautzen. Soilik eskumenen alderdia jasotzen du, eta Saileko Kontseiluaren zereginen artean, honako hau dago: “d) Saileko irakasleei irakats betebeharrak eta haien balizko aldaketak esleitzea, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak onartutako indarreko arautegiari jarraiki” (12. d artikulua).

UPV/EHUko Estatutuek ezarritakoaren haritik, Saileko kontseiluak irakats betebeharra esleitzeko eta aldatzeko ardura du, eta halaxe egingo du Gobernu Kontseiluak horretarako ezarritako irizpideen arabera, horien baldintzapean egongo baita. Irakaskuntzaren esleipena egin daiteke, hala behar bada, dagozkion atalek aurkeztutako proposamenen arabera.

4. Irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegia (Gobernu Kontseiluaren 2011ko martxoaren 10eko akordioaren bidez onartua, eta UPV/EHUko irakasleen arloko errektoreordearen 2011ko martxoaren 23ko erabakiaren bidez argitaratua)

Gai horri buruzko arau erabakigarriak UPV/EHUko irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegian jasota daude. Beste sail bateko langileei (edo beste sail bati) irakaskuntza aldi baterako esleitzeko prozedura alde batera utzita, kasu honetan ez baita halakorik ematen, arautegi horrek irakaskuntza irakasleen artean esleitzeko irizpideak ezartzen ditu. Zentzu horretan, txosten honetan aztertzen ari garen kasurako oinarrizko arauak honako hauek dira:

- 10.2 artikulua. “Irakasle bakoitzaren irakats betebeharrak betetzeko, irakasgai (irakasgai talde) osoak esleitzeko zaizkie, ahal baldin bada, irakasle eta ikertzaileei”. [letra etzana jarri dugu]
- 10.5 artikulua. “Irakasle eta ikertzaileei, salbuespen moduan, kontratatutakoa baino irakats zama handiagoa esleitu ahal izango zaie (kontuan hartzeke irakats lanagatik aitortu beharreko kredituak, hau da, eskuz bete beharreko irakats betebeharrak). Halakoetan, irakaskuntzaren urte anitzeko plangintzaren barruan orekatuko da gehiegizko zama. Sailak zehaztuko du nola eta zein epetan orekatuko den gehiegizko zama urte anitzeko plangintzaren barruan, eta jakinaren gainen jarriko du Irakasleen errektoreordea”.

Aipatutako printzipio horiek albo batera utzita, irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegiak irakaskuntza banatzeko irizpide orokorrak aurreikusten ditu. Honela dio:

13. 1 artikulua. “Irakaskuntza proportzionalki banatu behar da saileko irakasle eta ikertzaileen artean, kontuan hartuta, ahal den neurrian, irakats betebeharrangatik aitortu beharreko kredituak (eskuz idatzi beharreko irakats betebeharrak), kontratatutako irakats ahalmena esleitutakoa baino handiagoa bada aplikatuko direnak, kalterik egiteke horregatik campusen, ikastegien, jakintza arloen eta hizkuntzaren arabera egon daitezkeen aldeei. Proportzionaltasuna ikasturte berean errespetatzerik ez dagoenean, urte

anitzeko epean errespetatuko da, eta irakaskuntza esleitzeko akordioan adieraziko da epe hori zenbatekoa izango den.

Laguntzaileek, irakasle atxikiek, prestakuntza bidean dauden ikertzaileek eta ordezkoez ez dute izango, oro har, proportzionalki dagokiena baina arduraldi handiagoa”.

- 13. 7 artikulua.”Irakaskuntza banatzean kontuan izango dira, besteak beste, irakasle bakoitzak eman beharreko gaien edo irakasgaien kopurua, horien arteko kidesuna, ikasleen kopurua, eta ordutegia.

Esleitzeko irizpide orokorrak UPV/EHUn irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegiaren 17. artikuluan ezartzen dira; artikulua horren 4. paragrafoan aurreikusten denez, irakaskuntza esleitzeko proposamena egitean sailak aintzat hartu beharko ditu prestakuntza bidean dauden irakasle eta ikertzaileak (laguntzaileak, irakasle atxikiak eta prestakuntza bidean dauden ikertzaileak) eta, hortaz, esleituko zaien irakaskuntzak aukera eman beharko die irakaskuntzaren eta ikerketaren alorrean prestatzeko. Horretarako kontuan izango ditu, besteak beste, eman beharreko gai edo irakasgaien kopurua, horien arteko kidesuna, eta ikasleen kopurua. Edonola ere, irakaskuntza modu proportzionalan banatuko da, eta bermatu egingo da kontratuaren prestakuntza xedea.

Bestalde, arautegi beraren 18. artikuluan, irakaskuntza esleitzeko akordioa eta irakaskuntza hautatzeko lehentasun irizpideak aipatzen dira, eta, pasarte luzea bada ere, komeni da transkribatzea:

18.1 artikulua.- Irakasle eta ikertzaileei beren lehentasunak eskatu aurretik, sailak irakaslana esleitzeko irizpide orokorrak eta osagarriak erabaki ditzake (enborreko eta nahitaezko gaiak kategoria handieneko irakasle eta ikertzaileek emango dituzte...), arrazoitu egiten baditu eta arautegi honetan xedatutakoa errespetatzen badu, betiere.

2.- Irakaskuntza esleitzeko azken erabakiak irakasgai guztiak hartu behar ditu kontuan.

3.- Irakaskuntza kasuan kasuko irakasleen artean banatuko da, akordioz.

4.- Akordiorik ez badago, beren irakats konpromiso osoa batera eskatuko dute irakasle eta ikertzaileek. Gertatzen bada irakasle edo ikertzaile batek baino gehiagok eskatzen dituela eskola berak, ondorengo lehentasun hurrenkeraren arabera banatuko dira irakasgaiak:

a) Karrerako irakasle funtzionarioek eta kontratuko irakasle iraunkorrek lehentasuna dute bitarteko eta aldi baterako irakasleen aldean.

b) Kategoria akademikorik handieneko irakasleek lehentasuna dute, honako ordena honetan:

-Unibertsitateko katedradunak, irakasle osoak eta ikerketa irakasleak.

Unibertsitateko irakasle titularrak, irakasle agregatuak eta ikertzaile doktoreak.

-Irakasle atxikiak

-Irakasle lankideak, irakasle elkartuak eta bitarteko irakasle kontratatuak.



-Laguntzailea

- c) Diplomaturetan, ingeniaritza teknikoetan eta arkitektura teknikoan izan ezik, irakasle doktoreek lehentasuna dute, saileko arautegiak bestelakorik adierazi ezean titulazio horiei buruz.
- d) Kidegoko antzinasun edo kontratu kategoriarik handieneko irakasleak. Antzinasuna neurtzeko, arduraldi partzialeko zerbitzuak haztatu egin behar dira 0,5 koefizientea erabilita.

Ordezkoa egiteko kontratua ez bada izango irakaskuntza esleituta dagoen aldi osorako, ordezkatua izango den irakasleak aukeratuko du irakaskuntza, bere egoera pertsonalaren arabera dagokion txandan.

Baina irakasle baten ordezkoari egingo zaion kontratua irakaskuntza esleituta dagoen aldia baino luzeagoa izango bada, ordezkoak aukeratuko du irakaskuntza, bere egoera pertsonalaren arabera dagokion txandan.

5. Aurreko irizpideen bitartez lehentasuna ezartzerik ez badago, zozketa egingo da.

6.- Irakasgai edo talderen bat ez badu irakasle batek ere eskatu, artikulua honetako 4. atalean jasotako irizpideak erabiliko dira horiek esleitzeko, baina alderantzizko ordenan (betiere, sailak ez badu beste irizpiderik zehaztu). Aurreko irizpideen bitartez irakasle eta ikertzaileen artean lehentasunak finkatzerik ez badago egoera berean daudelako guztiak, zozketa egingo da.

Azkenik, irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegiaren laugarren xedapen gehigarriak ordutegiaren malgutasuna aipatzen du, laneko eta familiako kontziliazioari begira, eta honako hau ezartzen du:

“Irakaskuntza osoa behin esleituta, taldeak banatzean eta ordutegiak egitean gogoan izan beharko da Lan Kontratudun Irakasle eta Ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboko 83. artikuluan jasota dagoen ordutegia malgutzeko eskubidea, familiako bizitza eta laneko bizitza bateragarri egiteko”.

- 5. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan baldintzak arautzeko akordioa, 1996 (Gobernu Kontseiluak 1996ko urriaren 10ean onartua eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen 1996ko urriaren 23ko erabakiaren bidez argitaratua)

Langileen lan baldintzak arautzeko akordioak behin aipatzen du irakaslanaren banaketa, eta honela dio:

75. artikulua.- “UPV/EHUren Estatutuetan eta Gobernu Batzarraren Hitzarmenetan ezarritako xedapenei kalte egiteke, Sailen barruko irakaskuntza-asignazioa egiteko, kontuan hartuko dira Irakasle bakoitzaren gain utziriko irakasgaiaren kopurua, horien arteko kidetasuna, orduen artikulazioa, eta irakaskuntza-iharduera behar bezala burutzeko eragina izan dezaketen zirkunstantzia guztiak, hango irakasleen artean bereizkeri egoerarik jar ez dadin”.

6. UPV/EHUko Lan Kontratudun Irakasle eta Ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboa (EHAA, 251 zk., 2010ko abenduaren 31)

Aipatutako hitzarmen kolektiboak laneko lotura duten irakasleei eragiten die, eta haren 83. artikuluan, honako hau ezartzen du:

83. artikulua.- Orduategia malgutzea familiako bizitza eta laneko bizitza bateragarri egiteko.

1. Langileak zaindu egin behar dituen mugikortasun arazoak edo gaixotasun larri luzea duten bigarren mailarainoko odolkidetasuneko edo ezkontza ahaidetasuneko senideak, edo urrunagoko mailakoak, langilearekin biziz gero, edo horien ardura hartu behar duenean, eskubidea izango du malgutasuna izateko. Malgutasun hori kontuan hartuko da irakaskuntza ordutegiak egiterakoan, baina ez du ekarriko eskola edo tutoretza orduak gutxitzerik eta eskatu ahal izateko, medikuaren ziurtagiri bidez egiaztatu beharko da senidearen egoera.

2. Hamabi urtetik beherako seme-alabak dituzten langileek ikasturteak dirauen artean ordu erdi gehiagoko malgutasuna izango dute. Malgutasun hori ere kontuan hartuko da irakaskuntza ordutegiak egiterakoan, baina ez du ekarriko eskola edo tutoretza orduak gutxitzerik.

3. Orduategi malgutasunak ikastegiak zehaztutako irakaskuntza ordutegia aldatzea dakarrenean, irakaslanari buruz sailen oinarritzko arautegiak xedatutakoaren barruan, sailak interesatuarekin adostuko du ordutegi malgutasuna eta sailak esleitutako irakats betebeharrak nola bateratuko diren.

7. Irakasleen gestiorako arautegia (UPV/EHUko Irakasleen errektoreordearen 2010eko otsailaren 12ko erabakiaren bidez argitaratua. Horren bidez argitaratu zen EHAA 2010eko martxoaren 15ean)

Arautegi hori, UPV/EHUko Estatutuak baino lehenagokoa bada ere, indarrean legoke, Estatutuetako lehen xedapen iragankorraren arabera. Seigarren eta zazpigarren artikuluetan, irakaskuntza arduraldiaren eta irakaskuntza esleipenaren zenbaketa aipatzen da. Azken horri dagokionez, 7. artikulua hainbat irizpide aurreikusten ditu, sailak irakaskuntza banatzean aintzat hartu beharrekoak. Hona zer dioen:

7.1 artikulua. - Irakasleen artean irakaskuntza lana esleitzean, Sailak bermatu behar du, lehenetasun hauen arabera, euskarazko enborreko eta nahitaezko irakasgai guztiak (UPV/EHUk onartutako hizkuntza plangintzaren arabera) eta baita gaztelaniazkoak ere, hala aginduta daukaten Ikastegi eta ikasketa-plan guztietan eskaintzea. Era berean, ikasleek egin beharreko hautazko irakasgai guztiak eskainiko direla bermatu beharko da.

2.- Irakaskuntza esleitzeko lehenetasun-irizpidea lehendik ezarrita dagoena da:

Nahitaezko irakaskuntza (gradua eta graduondoa).

Graduko titulua lortzeko gutxieneko hautazko irakaskuntza.

Gainerako hautazko irakaskuntza (gradua eta graduondokoa)

Beste era bateko irakaskuntza.

3.- Irakaskuntza esleitzeko prozeduran, Saileko Kontseiluak kontuan izan behar du 2005eko irailaren 20an UPV/EHUko idazkari nagusiak ebazpen bidez argitaratutako Sailen Esparru Araudian xedatutakoa (2005eko urriaren 26ko EHAAn) eta lan baldintzei buruz hartutako erabakietan xedatutakoa: irakaskuntza-kategoria jakin baten asteko irakastorduak murriztu edo zenbait egoera pertsonali erreparatu (adb: doktore-tesia egiten aritzea).

8. ██████████ Sailaren Batzorde Iraunkorrek akordio bat du, 2014ko maiatzaren 7koa.

██████████ Sailak onartutako irizpideen arabera (Batzorde Iraunkorra, 2014ko maiatzaren 7koa), *sabana* izeneko sistema erabiltzen da, eta horren bidez, irakasleak kategoriaren arabera ordenatzen dira, irakats betebeharra hautatzeari begira.

“Asignación docente ██████████ 2017-2018” izeneko dokumentuan, aplikatutako sistema deskribatzen da. Dokumentu horretan, honako hau irakur daiteke: “elegimos sesiones, porque a la hora de grabar en Gaur el sistema nos exige sesiones completas. A los profesores euskaldunes les corresponden las sesiones en castellano que figuran en el documento de asignación”

## B. BALORAZIOA

Irakaskuntza esleitzeari buruz UPV/EHU, oro har, aplikatzen den araudia irakurrita, hainbat alderdi nabarmendu behar dira:

- ❖ Saileko Kontseilua da irakaskuntza esleipena egiteko organo eskuduna, alde batera utzi gabe irakaskuntza beste sail edo atal bateko irakasleei esleitzeko aukera, non errektoreari baitagokion esleipena egitea.
- ❖ Irakaskuntza irakasleen artean esleitzeko unean kontuan hartu beharreko alderdi materialei dagokienez, oinarritzko ideiak honako hauek dira:
  - Araudiak *irakasgai* (irakasgai baten taldeak) *osoak irakasle-ikertzaileei esleitzeko lehenetsia* ezartzen du, irakats betebeharrak indibiduala asetzeari begira (Irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta ikasleen artean banatzeko arautegiaren 10.2 artikulua).  
Horri dagokionez, planteatzen den gaia da “sabana” izeneko sistema, zeina irakaskuntza saioen hautaketan oinarritzen baita, bat ote datorren araudi orokorrarekin, edo ez. Galdera horri emandako erantzuna bi faktoreen arabera izango da: lehena, sabana sistemaren egituratze praktikoa, bereziki, irakaskuntza saioen aukeraketa talde berari dagozkion saioekin bat ote datorren, edo aukeraketa irekia den, talde baten saioak bete gabe uzteko aukera edukita; eta bigarrena, araudiaren interpretazioa. Azken alderdi horri dagokionez, aintzat hartu behar dugu arauak talde osoak esleitzea lehenesten duela, baina ez duela horrela egitea agintzen. Hau da, lehenetsitako irizpidea irakasgai bati talde osoak esleitzea bada ere, ez da aginduzkoa horrela egitea. Halere, kontrako zentzuan, saioak hautatzeko sistema irakasgaien taldeak

aintzat hartu gabe erabiltzeak egoera zailak sor ditzake, antolakuntza akademikoaren oinarrizko printzipioekin nekez uztartu daitezkeenak; izan ere, gerta daiteke lehentasun handieneko irakasleek ordutegi onenen saioak bakarrik hautatzea, talde bereko beste batzuk hartu gabe, edo eskolarik ez ematea asteko egun jakin batzuetan, non taldeko saioak programatuta dauden, taldearen irakaskuntza beste irakasle batzuen bidez osatzeko beharra eraginez.

Gure iritziz, arauaren interpretazio sistematiko bat eginez gero, ulertu behar da esleipena irakasgai talde osoekiko egin behar dela eta bestelako esleipen moduak (talde baten esleipen partziala) soilik salbuespenetan egingo liratekeela. Bi irakaslek edo gehiagok talde berean interesa duten kasuetan, aukeraketa talde osoaren gainean egingo da, eta irakasleen irakats ahalmena amaitzean bi aukera geratuko lirateke: taldeak partekatzea edo irakaskuntza gehiago onartzea (batez bestekoa baino handiagoa, baita kontratatutakoa bera baino handiagoa ere). Lehenengoz hautatzen duenaren lehentasunen oinarriaren gainean, irakasgai bera *hiru irakaslek edo gehiagok* partekatzeak dakarren esleipen sistema batek, lehenik eta behin, UPV/EHUn irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko araudiaren irakurketa behartuegia egiten du, nekez egokitu daitekeena bai ikuspegi pedagogikotik bai gure xedea den unibertsitate zerbitzu publikoaren ikuspegitik.

- Lehen esandakoaren harira, UPV/EHUn aplikagarria den araudiak irakasle bati kontratatutakoa baino *eskola ordu gehiago esleitzeko aukera aurreikusten du* (Irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko araudiaren 10.5 artikulua), gehiegizko irakaskuntza hori urte anitzeko plangintza baten bidez konpentsatuz gero. Kontratututako irakats ahalmena gainditzeko aukerak, borondatezkoa betiere, eta hori konpentsatzeko aurreikuspenak, zeinak sailak zehaztu behar baitu irakasleen errektoreordeari jakinarazita, izatezko arrazoia izango lukete irakasleei irakasgaien talde osoak esleitzearen ideian, irakaslana irakasle askoren artean banatzeko aukera mugatze aldera.

Irakaskuntza gehitzearen balizko mugari dagokionez, 898/1985 Errege Dekretuak, apirilaren 30ekoak, unibertsitate irakasleen araubideari buruzkoak, kasu espezifiko bat aipatzen du: ikerketa beharrei erantzuteko irakasle batzuei irakaskuntza betebeharrak aldi baterako salbuestetik eratorritakoa. Horrelakoetan, sailek arduraldi osoko irakasle batzuen irakaskuntza betebeharrak areagotu ahal izango dituzte, baina igoera hori ez da inoiz izango asteko hiru eskola ordutik gorakoa.

- Irakaskuntzaren banaketak *ekitate printzipioa* bermatu behar du. Ekitatera jotzen denean, badirudi araudiaren beraren interpretazio irizpide bat sartzen dela eta horren bidez saihestu nahi direla irakaskuntza hautatzeko lehentasun irizpideen hitzez hitzeko aplikazio zorrotz batek, kasu batzuetan, ekar ditzakeen gehiegikeriak, irizpideak errealitatera egokitu daitezen. Ekitatea, bere zentzu hertsian, ez da zuzenbide iturri bat, araudia interpretatzeko eta aplikatzeko arau bat baizik.
- Era berean, UPV/EHUko araudiak ezartzen duenez, *proporzionaltasun printzipioak* oinarrizko irizpidea izan behar du, irakaskuntza sailletako

irakasleen artean banatzeko orduan. Saileko irakasle-ikertzaileen artean irakaskuntzaren banaketa proportzionala izatea da oinarrian dagoen ideia. Araudiak "proportzionaltasun" terminoa erabiltzen du (irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegiaren 13.1 artikulua). Proportzionaltasunak ez dakar berdintasun printzipioaren aplikazio zorrotza saileko kide guztien artean, nahiz eta printzipio horrekin bateraezina ez izan. Izan ere, arauak berak aipatzen ditu campusen, ikastegien, jakintza arloen eta hizkuntza profilen arabera sor daitezkeen desberdintasunak. Berriro ere, banaketak emaitza proportzionalik eman ezean, urte anitzeko ikuspegi batetik printzipio hori errespetatzen bilatuko dela aurreikusten da, eta haren iraupena irakaskuntza esleitzeko akordioaren barruan sartuko da. Hau da, banaketaren ondorioz proportziorik eza emango balitz irakasleren baten kasuan (haren irakaslanaren esleipena sail edo atalaren batez bestekoa baino handiagoa izanik), gehiegizko irakaslan hori hurrengo ikasturteetan konpentsatu beharko litzateke.

- Edonola ere, proportzionaltasun printzipioak baditu ere zenbait muga negatibo, kolektibo jakin batzuekiko. Hala, *laguntzaileek, irakasle atxikiek, prestakuntza bidean dauden ikertzaileek eta ordezkoez* ezingo dute eduki proportzionalki dagokiena baino arduraldi handiagoa. Kolektibo horiei dagokienez, sailak zaindu beharko du irakaskuntza esleipen egokia jasotzen dutela beren irakasle eta ikertzaile prestakuntzarako, eta, horrez gain, beste faktore batzuk ere kontuan hartuko ditu, hala nola esleitutako gai edo irakasgai kopurua, horien arteko kidetasuna, eta ikasle kopurua (Irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegiaren 13.1 eta 17.4 artikulua).

Araudian hauteman daitekeen ideien arabera, irakaskuntzara sartzen diren pertsonen egoera berezia aintzat hartu behar da, eskola ordu gehiegi izateak haien irakasle eta ikertzaile prestakuntza eragotz dezakeelako.

- Araudiak ezartzen du *zer irizpide hartu behar diren kontuan* irakaskuntza banatzeko orduan. Irizpide horiek ezin dira albo batera utzi, irakasgai taldeak hautatzeko unean irakasle batzuek beste batzuen gaineko lehentasuna dutelako. Hala, alderdi hauek aztertu behar dira: *irakasle bakoitzari esleitutako gaien edo irakasgaien kopurua, haien arteko kidetasuna, hartutako ikasleen kopurua eta ordutegia* (Irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegiaren 13.7 artikulua).

Arauzko irizpideak dira, irakaskuntza esleipena onartzeko unean kontuan hartu behar direnak, kasuak banan-banan aztertuz eta zehaztuz. Irakaskuntzaren banaketa batean, akordiorik ezagatik, azken lekuan hautatzen duten irakasleei esleituko balitzaizkie irakasgai edo gai nabarmen gehiago, talde handiagoak edo gai desberdinak, edo eskolen artean ordutegi alde handiak izango balituzkete, bada, banaketa hori ez litzateke bat etorriko aplikazio arautegian aurreikusitako irizpideekin. Edonola ere, irizpide horien aplikazioa sail bakoitzaren egoera zehatza kontuan hartuta egin beharko da.

- UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko akordioak ere irizpide horiek berak aipatzen ditu, eta *bazterkeria ezaren printzipioaren* oinarriaren gainean

finkatzen ditu. Hala, ulertzen da bazterkeria eman daitekeela, baldin eta sailak onartutako banaketan alderdi hauek aintzat hartzen ez badira: irakasle bakoitzari esleitutako irakasgai kopurua, horien arteko kidetasuna, haren ordutegia, eta irakaslana egoki egiteko kontuan hartu beharreko inguruabar guztiak (75. artikulua). Irizpide horiek, berriro diogu, kasuak banan-banan aztertuta zehaztu beharko dira.

- *Familia eta lanaren kontziliazioa* irakaskuntzaren banaketan kontuan hartu beharreko beste irizpide bat da. Araudian ordutegi malgutasunari lotuta ageri da, baina ez da zehaztasunez garatzen. Familia eta lana kontziliatzeko ordutegi malgua izateko eskubidea aurreikusita dago bai taldeen banaketan (alderdi horrek sailari eragiten dio) bai ordutegiak egitean (alderdi horrek fakultateari eragiten dio). Araudiak, edonola ere, ez du agindurik ematen, eta "gogoan izan beharko da" esatera mugatzen da. Haren aplikazio eremua, bestalde, lan kontratudun langileei mugatuko litzateke, hasiera batean. Alderdi horren gaineko irakurketa orokorra izan daiteke sailak ezin duela familia eta lanaren kontziliazioa albo batera utzi irakaskuntza banatzeko orduan, transkribatutako UPV/EHUko Lan Kontratudun Irakasle eta Ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboan ezarritako baldintzetan, zeinari erreferentzia egiten baitiogu.
- Sistemaren elementu giltzarria *irakaskuntza hautatzeko lehentasunen sistema* da. Halere, irakasleen arteko lehentasunak hautatzeko unean ezin ditu aintzat hartu gabe edo bazterrean utzi aipatu ditugun gainerako irizpideak eta printzipioak, araudi aplikagarrian aurreikusten diren neurrian (ekitatea, irakasle taldearen minimizazioa irakasgaiko, etab.), edo beste batzuk, hala nola irakasleen espezialitatea.
- Taldeak hautatzeko lehentasun irizpideak UPV/EHUko irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean batzeko araudiaren 18. artikuluan finkatu dira, eta hura irakurrita, honako alderdi hauek nabarmentzen dira:
  - Lehenik eta behin, arauak gaitasuna ematen dio sailari *irakaslana banatzeko irizpide gehigarriak eta orokorrak modu arrazoituan bereganatu* ditzan, eta adibide hau aipatzen du: "enborreko eta nahitaezko gaiak kategoria handieneko irakasle eta ikertzaileek emango dituzte...". Horren irakurketa hau izango litzateke: lehendabizi, sailak *tartea* du esleitzeko irizpideak zehazteko; bigarrena, zehazteko ahalmen horrek errespetatu behar ditu beti aplikazio araudian jasotako aginduak, araudiaren aurkako irizpideak erabili gabe. Eta, hirugarrena, zehaztapenak behar beste arrazoitua egon behar du.
  - 18. artikuluan aurreikusitako metodologiaren hasieran *atariko fase* bat dago, non irakasle guztiei eskatzen zaien beren lehentasunak adierazteko.
  - Irakasleen artean irakaskuntza esleitzeko ohiko irizpidea *akordioa* da. Bakoitzak adierazitako lehentasunetatik abiatuta, arauak akordioa bilatzea bultzatzen du. Guk ulertzen dugunez, arauaren arabera ez litzateke egokia izango bat etortzeen kasurako pentsatutako lehentasun



irizpideak zuzenean erabiltzea taldeen aukeraketan, alde zuzenetik lehen fase horretan jardun ez balitz.

- Akordioa lortzen saiatu eta emaitzarik lortuko ez balitz, arauak aurreikusitako irizpide subjektiboen arabera bigarren fase bat hasiko litzateke, zeina hurrenkeraren arabera aukeraketan oinarritzen baita. Zehazten denez, irizpide horiek, segidan aipatuko ditugunak, irasle batek baino gehiagok *irakasgai bera ematea eskatzen dutenean* aplikatuko dira. Ematen du, beraz, arauak irakasle bakar batek eskatutako irakasgaiak albo batera uzten dituela. Fase horretan, irakasle-ikertzaileek batera eskatu behar dute beren irakaskuntza konpromiso osoa.
- Modu jarraituan aplikatu beharreko irizpideak, laburbilduta, honako hauek dira:
  - 1.- Irakasle-ikertzaile iraunkorrek lehenetsia dute ez-iraunkorren aurretik (bitartekoak edo aldi baterakoak).
  - 2- Kategoria handienetik txikienerako irakasle-ikertzaileak.
  - 3- Irakasle-ikertzaile doktoreek, ez-doktoreen aurretik (salbuespenak izanda diplomak, ingeniari teknikoak eta arkitektura teknikoaren kasuak).
  - 4- Kidegoan edo kontratu kategorian antzintasun handienetik txikienerako irakasle-ikertzaileak.
  - 5- Azken irizpidera iritsi ondoren berdinketa emanez gero, zozketa bidezko sistema aplikatuko da.

- Arau espezifikoak aurreikusten dira, ordezkapenen kasuan aintzat hartu beharreko pertsona zehazteko (ordezkoa edo titularra), ordezkapenen iraupenaren arabera.
- ❖ Kategoriaren eta antzintasunaren irizpideek Justizia Auzitegien jurisprudentziaren babesa izan dute (ikus guztientzat Auzitegi Gorenaren 1999ko otsailaren 16ko epaia). Halere, jurisprudentziak ez du ukatzen beste irizpide batzuk aplikatzeko aukera, irakaskuntzaren esleipena arautzeko unean. Gogoan izan bitez alderdi hauek: eman beharreko gaiari buruzko irakasleen espezializazioa –bereziki graduondokoetan–, irakasgai jakin bat prestatzeko irakasleek egindako ahalegina konpentsatzeko urte antzintasuna irakasgaiak ematean, edo ikasle talde berari irakasgaiak emateko balizko jarraitutasuna... Sailak irizpide horiek guztiak har ditzake kontuan. Guk ulertzen dugunez, kategoria eta antzintasun irizpideak baldintza bertsuetan (edo berean) dauden irakasleen artean aplikatu beharko lirateke. Halere, abiapuntutzat hartzen bada irizpide horiek beste batzuekin bateragarriak izan daitezkeela eta beste irizpide horiek irakasleak abiapuntu desberdinetan jar ditzaketela, bada, gure ustez, kategoriak eta antzintasuna abiapuntu egoera horien gainean aplikatu beharko lirateke, eta ez beti horiek baino lehen.

### C. PROPOSAMENAK

Jarraian, hainbat proposamen egiten ditugu, haien gaineko kontsiderazioa lagungarria izan daitekeelakoan Aldezlearen zerbitzuari eskaera egin dion irakasleari dagokion sailarentzat. Edonola ere, argi geratu behar du zerrendatutako neurriak bete-betean sartzan direla unibertsitate politikaren arloan, organo eskudunen eskumenekoak izanik, eta Aldezlearen zerbitzuak jokaera neutrala eduki behar duela horiekiko, betiere araudiarekin bat datozen aukerak badira. Era berean, aldez aurretik ohartarazi nahi dugu jarraian egindako proposamen batzuek UPV/EHUko sailei aitortutako gaitasuna gainditzen dutela; hori dela eta, haien analisisa, beharbada, gaian eskumena duen Errektoreordetzak bultzatutako arau, instrukzio edo ildo orokorrago baten testuinguruan egiteko aukera baloratu beharko litzateke.

Proposamenak honako hauek dira:

- Irakaskuntzaren esleipena irakasgaietan edo irakasgai taldetan oinarritu beharko litzateke. Irakaskuntza saioen oinarriaren gaineko hautaketa sistemak talde osoak hautatzeko irizpidearekin bateragarria izateari begira interpretatu beharko litzateke.
- Interesgarria izango litzateke kautela neurriak sartzea, irakaskuntzaren gehiegizko zatiketari aurre egiteko; horren harira, talde edo irakasgai beraren irakaskuntza esleituta eduki dezaketen irakasleen kopurua mugatu beharko litzateke. Esate baterako, *gehienez ere bi irakasleren* muga jar daiteke. Arau horri salbuespenak gehi diezazkioke, hala nola kopurua soilik handitu daitekeela, baldin eta justifikatutako eta irakasle taldeen boluntariotasunean oinarritutako arrazoiak badaude.
- Kontrako zentzuan, kautela neurriak proposa daitezke aukeratzen duen azkena irakasgaien zati asko bere gain hartzera behartuta egon ez dadin.
- Hainbat irakaslek talde edo irakasgai baten irakaskuntza partekatzen duten kasuetarako, komenigarria izan daiteke taldeko koordinatzaile bat izendatzea. Koordinatzailea izendatzeko modua zehaztu beharko litzateke. Sailak berak izendatu lezake, edo taldeaz edo irakasgaiaz arduratzen den irakasle taldeko kideek, ados jarrita. Era berean, koordinatzailearen zereginak zehaztu beharko lirateke, eta tartean sartu beharko litzateke honako hauek: irakaskuntza koherentzia bermatzea, programa osorik betetzea, eta azterketa prestatzea, irakaskuntza gidetan jarritakoaren arabera.
- Baliagarria izan daiteke irakaskuntzaren esleipenean nolabaiteko balioa ematea urte aniztasunari, hautatzen duten azkenekoak (ziur asko, beren irakasle karrera hasi berri dutenak) irakaskuntza maiz aldatzera behartuta egon ez daitezen bestek egindako aukeraketaren baitan. Horretarako, urte aniztasunari nolabaiteko puntuazioa eman dakioke, betiere arrazoi objektiboz justifikatuta badago (materialak, gidak, ariketak... prestatzea).
- Irakasleen espezialitatea baloratu beharko litzateke, haien ikerketa ibilbideen edo ibilbide profesionalen bermepean, bereziki, gai espezializatuak eta, zehazki, graduondokoak esleitzeko unean.



- Baloratu beharko litzateke oinarrizko irakasgaietan eta irakasgai espezifikoetan eta hautazkoetan irakaskuntza eskuratzeko irizpide espezifikoak sailak finkatzea egokia den.

- Zatiketa murrizte aldera, irakaskuntza norbanakoen prestutasunaren gaintetik emateko aukera baloratu beharko litzateke. Horri lotuta, bi suposamendu bereiz daitezke: lehen kasua, sail edo atalaren batez bestekoa gainditzea, eta, bigarrena, kontratutako irakats ahalmena gainditzea; azken kasu horretan, irakaslan gehiago hartzeko aukerak borondatezkoa eta egoeraren araberakoa izan beharko luke.

Bi kasuetan, irakaslanaren gehikuntza:

- a) Urte anitzeko plangintza batez konpentsatu beharko litzateke.
- b) Soilik eragin beharko lieke unibertsitateko kidegoko irakasleei eta lan kontratu mugagabeko irakasleei.

Bestalde:

- a) Arduraldi osoko irakasleen eskola orduen igoeraren metaketa lizentzia sabatikoak errazteko edo ahalbidetzeko baliagarria izateko aukera aztertu beharko litzateke.
- b) Edonola ere, emandako irakaskuntza gehiago hori ziurtatu beharko litzazieke hala eskatzen duten irakasleei.
- c) Irakasle ordezkot bati irakaskuntza lauhileko batean metatzen zaiola ziurtatzeko, zentzuzko aurreikuspen bat egin beharko litzateke enplegu erlazioa ikasturte osoan indarrean egon dadin.


- Ordutegi tartearen irizpidea: era berean, eskolen arteko gehiegizko denbora tartearak mugatzeko hainbat irizpide proposa daitezke, esate baterako:

- Irakaslearen eguneko irakaslanaren hasiera eta amaiera artean gehienez igaro daitezkeen orduak mugatzea (esate baterako, 7,5 ordu).
- Ez dira emango, esate baterako, 5 eskola ordu baino gehiago egunean. Edonola ere, eskola ordu gehiago emateko aukera aintzat hartu beharko litzateke, baldin eta eraginpeko irakaslea ados badago.

- Kontziliazioari buruzko irizpideak: familia eta lanaren arteko kontziliazio egokia ahalbidetzen duten neurriak aztertu beharko lirateke. Esate baterako, aukeraketan nolabaiteko lehentasuna eduki beharko lukete adin txikikoak edo nagusikoak zaindu behar dituzten pertsonak, eta, edonola ere, egoera horiek kontuan hartu beharko lirateke irakaskuntza banatzeko akordioa itxi aurretik.

- Graduak irakaskuntza bermatu beharko litzateke, beste irakats betebeharrak batzuekiko lehentasuna emanez. Modu berean, nahitaezko edo oinarrizko prestakuntzako irakasgaien irakaskuntza bermatu beharko litzateke, beste irakats betebeharrak batzuekiko lehentasuna emanez. Eta, era berean, aurreko irizpideak errespetatuta, prestutasuna egongo balitz, graduak titulua lortzeko hautazkoen gutxienezko irakaskuntzak lehentasuna izan beharko luke, gainerako hautazkoen irakaskuntzaren aurrean.

UPV/EHUko Aldezearen zerbitzuak txosten hau igortzen du, zuzenbidean oinarri hobeak dituzten beste batzuk eragotzi gabe.



Iñigo Urrutia Libarona  
UPV/EHUko Aldezlea  
Aldele de la UPV/EHU

## GOMENDIOA

Ref.

S. 671-682-689/ K. 759 / Ikas/2017

Donostian, 2017ko irailaren 27an

**AZTERGAIA:** Graduako Ikasketetan UPV/EHUn Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikulua interpretazioa (UPV/EHUn Gizarte Kontseiluak 2010eko uztailaren 14ko bileran onartutakoa eta 2014ko apirilaren 15eko EHAAn argitaratutakoa).

## GERTAKARIAK

2017ko abenduaren 14an [REDACTED] eta hiru ikasle gehiagok sinatutako idazki bat jaso genuen Aldezlearen zerbitzuan, eta bertan azaltzen zuten, [REDACTED] Fakultateko ([REDACTED]) [REDACTED] Graduaren laugarren mailako irakasgaietan matrikulatzeko aukera ukatu zitzaienten, bigarren mailako ([REDACTED]) irakasgai bat gainditu ez dutelako, irakasgai hori giltza baita hirugarren mailako irakasgai batean ([REDACTED]) matrikulatu ahal izateko. Azaltzen zuten, halaber, UPV/EHUn Graduako Ikasketetan Jarraitzeko Arauaren aplikazioa izan zela eman zitzaienten arrazoiak. Beren promozioko ikaskideekin batera laugarren mailako ikasketetan matrikulatzeko aukera ez izatearen ondorioz, 2017/2018 ikasturtean soilik gainditzeke dituzten irakasgaiak egin ahal izango dituzte. "[REDACTED]" bigarren mailako bigarren lauhilekoan ematen da.

2017ko irailaren 22an, [REDACTED] Fakultateko ([REDACTED]) [REDACTED] Graduan matrikulatuta dagoen ikasle batek, [REDACTED], sinatutako idazki bat jaso genuen Aldezlearen zerbitzuan, non, funtsean, egoera bera azaltzen baitzuen. Kasu horretan, adierazi zuen abuztuaren 1ean GAUR programaren mezu bat jaso zuela, bere behin betiko matrikularen berri emateko; hala, matrikulatuta zegoen "[REDACTED]" irakasgaietan (bigarren mailakoa, eta giltza hirugarren mailako "[REDACTED]" irakasgaia egiteko), [REDACTED]" (hirugarren mailakoa), eta laugarren mailako gainerako irakasgaietan. Ikasleak zegozkion tasak ordaindu zituen. Ikasturtearen hasieran, [REDACTED] Fakultateko laugarren mailako taldean sartu zen. Irailaren 19an, [REDACTED] Fakultateko idazkaritzatik telefonoz deitu zioten, bertara joan zedin, eta han adierazi zioten laugarren mailako irakasgaien matrikula baliogabetu ziotela, Graduako Ikasketetan Jarraitzeko Arauaren aplikazioa zela eta.

2017ko uztailaren 27an, [REDACTED] Fakultateko ikasle baten, [REDACTED], kexa bat jaso genuen Aldezlearen zerbitzuan, non gai bera azaltzen baitzuen. Ezin zen matrikulatu [REDACTED] graduako laugarren mailako irakasgai bakar batean, ez duelako gainditu bigarren mailako "[REDACTED]" irakasgaia. Hori dela eta, ezin da matrikulatu hirugarren mailako "[REDACTED]" irakasgaietan, eta, beraz, ezin da matrikulatu ere laugarren mailako irakasgai bakar batean, UPV/EHUn Jarraitzeko Arauaren 3.1 artikulua gainean egindako interpretazioa dela eta.

Aldezlearen Funtzionamendu Arautegiaren 10.1.e artikulua bertutez, honako GOMENDIO hau ematen dugu, jarraian aipatutako oinarriak aintzat hartuta.

## OINARRIAK

Eskatzaileek ezin dute matrikulatu laugarren mailako irakasgaietan, tartean bi arau nahasten direlako, hau da:

Alde batetik, [REDACTED] Graduaren Ikasketa Planak "[REDACTED]" irakasgaiari lotutako murrizketa hau ezartzen du:

"[REDACTED]" irakasgaien matrikulatzeko, "[REDACTED]" gainditu behar da".

Bestalde, Graduako Ikasketetan Jarraitzeko Arauaren (goian aipatutakoa) 2.1 artikulua honako hau ezartzen du:

"Ikasleak aurreko mailetan gainditzeke dituen irakasgai guztietan matrikulatu behar du".

Bi arauak batera hartuta eman daitekeen interpretazio baten arabera, ikasle batek bigarren mailako irakasgai bat ("[REDACTED]") gainditu ez badu, ezingo da matrikulatu hirugarren mailako irakasgai batean ("[REDACTED]"), eta horren ondorioz ezingo da matrikulatu laugarren mailako irakasgaietan, aurreko ikasturteko (hirugarren maila) irakasgai batean matrikulatu ez delako. Bestela esanda, interpretazio horren baitan, ikaslea "[REDACTED]" irakasgaien matrikulatzen ez den bitartean, ezingo da matrikulatu [REDACTED] Graduaren laugarren mailako irakasgaietan. Edonola ere, "[REDACTED]" irakasgaien ez matrikulatzeak ez dio ikaslearen nahiari erantzuten, giltza irakasgai den "[REDACTED]" gainditu ez izanaren ondorioa baita.

UPV/EHUren aldezelek uste du interpretazio horrek Graduako Ikasketetan Jarraitzeko Arauak bilatzen ez duen ondorio bat dakarrela eta gainera modu neurrigabeen mugatzen duela unibertsitate ikasketetan aurrera egiteko aukera. Gure iritziz, UPV/EHU Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikulua irismenaren gaineko beste interpretazio bat egin daiteke, haren espiritura eta zuzenbidera hobe egokitzen dena eta jarraian proposatuko duguna.

UPV/EHU Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikulua bilatzen du, funtsean, ikasleek aurreko mailetan gainditu ez dituzten irakasgaiak matrikulatu gabe uztea, beren nahierara. Gure iritziz, ikasleek, beren borondatez eta hurrengo ikasturteetan aurrera egin asmoz, aurreko ikasturteko irakasgai bat matrikulatu gabe uzteko aukera mugatu nahi du arauak. Irakasgai berriekin batera gainditzeke (aurreko ikasturteetakoak) dauden irakasgaietan matrikulatzeko arauaren eskakizunaren logika horretan datza, hain zuzen ere.

Alabaina, beste kontu bat da ikasleak aurreko irakasgaien matrikulatzeko aukera ez izatea, Ikasketa Planean hurrengo mailako irakasgaiak egin ahal izateko aurreikusitako eskakizunen eraginez.

Bi egoera desberdin dira. Lehen kasuan, arauak ikaslearen ahalmena mugatu nahi du,

bere nahieran irakasgai jakin batzuk egin gabe utz ez ditzan; bigarren kasuan, ordea, ikasleak ez du diskrezionaltasunik, Ikasketa Planak berak haren borondatea mugatzen duelako. Bigarren kasu horretan, gainditzeke dituen irakasgai guztietan matrikulatu nahi balu ere (hori baita araudi aplikagarriaren 2.1 artikulua lortu nahi duena), ezingo luke halakorik egin haren esku ez dauden arrazoiengatik, eta horrek ikasketetan aurrera egitea eragotziko lioke.

Bi egoerei erantzun juridiko berbera aplikatzean, ondorioa guztiz bestelakoa da. Hala, lehen kasuan, arauaren helburua zentzuzkoa da, eta aurreikusitako eta helburuarekiko proportzionala den neurriaren bidez bermatzen da; bigarren kasuan, ordea, ez da gauza bera gertatzen, horrek dakarren ondorioa oinarritzko eskubide batean aurrera egiteko ezintasuna baita, eta hori ez dator bat arauaren xedearekin.

Ikasketan Planean bi irakasgaien artean baldintzak ezartzera daramaten irizpideek ez lukete eragina izan beharko gainerako irakasgaietan, ezta ikasleek ikasketen gainerako irakasgaietan aurrera egiteko duten eskubidean ere, albo batera utzi gabe [REDACTED] Graduaren ikasketa planaren balizko eraberritze batean eskakizun horiek mantentzeari buruzko gogoeta bat egiteko aukera, noiz edo noiz UPV/EHUko Graduako Batzordeak iradoki izan duenaren harira.

Aldezlearen iritziz, bi suposamenduetan UPV/EHU n Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikulua bereizi gabe aplikatzeak neurrigabe muga dezake unibertsitate hezkuntza jasotzeko eskubidea. Hala izanik, Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikulua interpretazio bat egin beharko litzateke, zeinak, azaldutako kasuak kontuan hartuta, bakoitzari erantzun proportzionala emango baitio. Honako hau da:

#### PROPOSAMENA:

I. UPV/EHUko Graduako Ikasketetan Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikulua honela dio: "Ikasleak aurreko mailetan gainditzeke dituen irakasgai guztietan matrikulatu behar du", eta horren interpretazioak hau izan beharko luke: "ikasleak aurreko ikasturteetan gainditzeke dituen eta ikasketa planak uzten dion irakasgai guztietan matrikulatu beharko du". Hala, irakasgai baten matrikulazioa aurreko ikasturtearen beste irakasgai bat gainditzearen baldintzapean egonez gero, aurreko ikasturteko irakasgai matrikulatzea nahitaezkoa izango da Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikulua betetzeko, baina hurrengo ikasturteko irakasgai matrikulatzeko ezintasunik (baldintza betetzen ez delako) ez du baldintzatuko mailen arteko aurrerapena edo beste irakasgai batzuetan matrikulatzeko aukera, Graduako Ikasketetan Jarraitzeko Arauaren 2.2 artikulua mugen barruan.

II. Aurrekoa eragotzi gabe, eta proposatutako interpretazioak planteatutako arazoa konpontzen badu ere, irakasgai batzuetan matrikulatzeko beste batzuk gainditzearen eskakizunak mantentzeari buruzko gogoeta egin beharko litzateke, [REDACTED] Graduaren ikasketa planaren erreforma bat emango balitz, dagokion sailak hala proposatuta.

III. Era berean, proposamen honen I. puntuari jasotako interpretazioa oinarri hartuta, eskatzaileen eskaerak onestea proposatzen da.

Hori gomendatzen du UPV/EHUko Aldezlearen zerbitzuak.



Iñigo Urrutia Libarona  
UPV/EHUko Aldezlea

## GOMENDIOA

Erref.

S. 639 /K. 721/ Irakas./2017

S. 668 /K. 756/ Irakas./2017

Donostia, 2017ko abenduaren 19an

### UPV/EHUko irakasle-ikertzaile ezgaituen laneratzea sustatzeari buruzko gomendioa

2017. urtean, bulego honetan hizpide izan da hainbat aldiz UPV/EHUK egindako plazen deialdietan eta ordezkapen poltsen deialdietan %33tik gorako ezgaitasun maila duten irakasle-ikertzaileei emandako tratamendua, kasuren batean kontsulta huts gisa, baina beste batzuetan kexa esplizitu gisa.

Pertsona horiek adierazi digutenez, unibertsitateak ezgaituentzako plazen kupo bat gordetzeko legezko betebeharra errespetatzen du AZPko langileentzako deialdietan eta ordezkapen poltsen deialdietan; alabaina, zalantzak zituzten erreserba kupo hori irakasle-ikertzaileen izendapenetan eta kontratazioetan aplikatzeari dagokionez, eta, aldi berean, UPV/EHUn irakasle-ikertzaile gisa lanean sartzeko kupo hori benetan erreserbatzeko eskatzen zioten unibertsitateko gobernari.

Eskaera horiei erantzuteko, gainbegiratuko dugu: pertsona ezgaituen lan sustapena eta laneratzea arautzen duen araudi esparru orokorra, haren aplikazioa Administrazio Publikoaren zerbitzura dauden pertsonen kasuan, eta esparru hori unibertsitateko araudian jasotzeko modua. Ondoren, UPV/EHUn lanpostuak betetzeko prozedura eta deialdietan arau horiek nola aplikatzen diren aztertuko dugu, arreta berezia jarrita irakasle-ikertzaileei lotutakoetan.

Hasteko, gogoratu behar dugu **Espainiako Konstituzioak** honako eskubide hau onartzen duela: *"baldintza berdinetan herri-funtzio eta -harguetara heltzeko eskubidea dute, baldin eta legeek adierazten dituzten eskakizunak betetzen badituzte"* (23.2 art.). Era berean, berriaz adierazten du botere publikoei dagokiela *"gizabanakoaren eta horrek osatzen dituen taldeen berdintasuna benetakoak eta eraginkorrak izan daitezen bideak sustatzea; berdintasun osoa eragozten edo zailtzen duten oztopoak baztertzea; eta hiritar guztien parte-hartzea politika-, ekonomia-, kultura- eta gizarte-bizitzan erraztea"* (9.2 art.). Gainera, botere publikoek, konstituzioaren aginduz, *"ezindu fisiko, sensorial eta psikikoentzat aurreikuspen-, tratamendu-, errehabilitazio- eta integrazio-politikak egingo dituzte, batez ere, Titulu honetan hiritar guztientzat onartzen diren eskubideen gozamenen babestuko dituzte"* (49. art.).

Pertsona ezgaituak lan publikoaren arloan integratzeko konstituzioaren agindu hori betetzeko, **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren** Legearen Testu Bateratua (aurrerantzean EPOELTB) onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak kolektibo hori funtzio publikoan errazago sartzeko ekintza positiboko ekintzak jasotzen ditu, oinarrizko neurri gisa. Testu horrek Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legea ordezkatzeko du, eta literalki errepikatzen ditu lege horretan gai horren gainean emandako xedapenak (portzentajea % 5etik % 7ra igota), eta, hark bezala, honek ere

honela dio 59.1 artikuluan: *"Enplegu publikoaren eskaintzetan bete beharreko lanpostuen ehuneko zazpiko kupoa gordeko da gutxienez, ezgaitasunen bat duten pertsonak bete ditzaten, (...) betiere, hautaketa-prozesuak gainditu, ezgaitasuna egiaztatu eta ezgaitasun hori bete beharreko zereginekin bateragarri dela erakutsita, horrela, arian-arian, Herri Administrazio bakoitzak dituen langile guztien ehuneko bira iritsi arte."*

Oinarrizko lege horretan, beraz, lege agindu bat ematen zaigu, eta horren arabera, lan publikoko eskaintzetan, gutxienez plaza hutsen % 7ko kupoa erreserbatu behar dugu nahitaez pertsona ezgaituentzat. Arretaz aztertuko dugu agindu horren edukia, zeinak ezgaitasun mailaren bat aitortua duten pertsonak funtzio publikora sartzeko plazen kupo bat erreserbatua izateko duten eskubidea babesten baitu.

Lehenik eta behin, zehaztu behar dugu lege horren ondorioetarako pertsona ezgaitutzat hartzen direla **pertsona minusbaliatuen eskubideei eta beren gizarteratzeari buruzko lege orokorraren** testu bateratuaren 4. artikulua 2. atalean horrela definitutakoak. Testu bateratu hori azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen, eta bertan, honako hau ezartzen da: *"desgaitasunen bat duten pertsonak direla joko da ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortu zaien pertsonak"*.

Eta, ezgaitasunen bat duten pertsonen kolektiboak zenbateko aniztasuna biltzen duen kontuan hartuta, EPOELTBren 59.1 artikulua honako hau gehitzen du: *"Gutxienerako ehuneko zazpi hori erreserbatzeko orduan gutxienez eskaintzako plazen ehuneko bira adimen-desgaitasuna egiaztatzen duten pertsonak bete beharko dute eta eskaintzako gainerako plazak beste edozein desgaitasun mota egiaztatzen dutenek"*.

Bigarrenez, argitu behar da nahitaezko plazen erreserba horrek lan eskaintza publikoei egiten diela erreferentzia. Hau da, betebeharrak ez ditu hartzen Administrazio Publikoak egindako deialdi guzti-guztiak; haatik, 6801/2009 STSk horri buruz zehazten duen moduan, lege horrek honako betebeharrak ezartzen du: *"obligación de reserva general que vincula a las ofertas de empleo público, que son las que tienen que precisar, directamente o por delegación en otro acto administrativo general, los términos en que han de concretarse las reservas en las distintas convocatorias"*. Horrek zera esan nahi du: lan eskaintza publikoetan nahitaezko erreserba portzentajea errespetatuz gero, onartzen da administrazioak berak egitea erreserbatutako plazen banaketa. Hala, plaza hutsak erreserbatzean, lehentasuna edo kupo erreserba handiagoa eman dezake kidego eta kategoria jakin batzuetan, baldin eta langile horiek eskuarki egindako jarduerak bateragarriak izan badaitezke balizko ezgaitasunen batekin.

Bestalde, lan eskaintza publikoa beharrezko tresna bat da, funtzionarioen eta lan kontratadun langileen plazak betetzeko. Hortik ondorioztatu daitekeenez, karrerako funtzionario gisa edo lan kontratadun langile finko gisa funtzio publikora modu iraunkorrean sartzeko aukera ematen duten plazen eskaintzetan exijitzen da erreserba betebeharrak hori, zeinak, esan bezala, lan eskaintza publiko osoa hartzen baitu. Egia da EPOELTBk ez duela ezer esaten lan publikoen eskaintzan aldi baterako edo behin-behineko plazak erreserbatzeari buruz. Gai hori aurrerago aipatuko dugu.



Azkenik, erreserba kupo bat mantentzeko betebeharrak barne promozioko plazei ere lotzen zaiela berresteko, berriro joko dugu Auzitegi Gorenak 6801/2009 STS epaian emandako argibideetara, non adierazten baita plazen erreserba honela ezartzen dela: *"sobre el conjunto de la oferta de empleo público y no únicamente sobre las plazas de nuevo ingreso, pues el término ofertas de empleo público comprende no sólo la parte de la oferta que corresponde a las plazas de nuevo ingreso...sino también las plazas de promoción interna que van dirigidas al personal ya incorporado a la Administración"*.

Dena dela, kupo horretarako gordetako plazak hautapen prozesuak gainditu dituzten eta aitortutako ezgaitasun maila eta lanpostuaren eginkizunetik haren bateragarritasuna egiazta dezaketen pertsonak beteko dituzte. Eta hautapen probak gainditzeari dagokionez, pertsona guztien aukera berdintasuna bermatzeko, EPOELTBren 59.2 artikulua honako hau ezartzen du: *"Administrazio publiko bakoitzak hartu beharreko neurriak hartuko ditu hautaketa-prozesuan denborak eta bitartekoak arrazoizkoa den eran moldatzeko eta egokitzeko, eta, behin prozesu hori gainditutakoan, dagokion lanpostua desgaitasuna duen pertsonaren beharrezan egokitzeko"*.

Azken batean, EPOELTBren 59. artikuluan ezarritakoa laburbilduz, esan daiteke lege agindu batek administrazio publikoak (autonomia erkidegoetakoak barne) lotzen dituela eta lotura horren arabera administrazioek beren lan eskaintza publikoetan pertsona ezgaituentzako ehuneko bat erreserbatu behar dutela, eta hori hala dela bai funtzionario eta lan kontratadun langileen plazak betetzeko, bai plaza berriak eta barne promoziokoak betetzeko.

5/2015 LEDren 59. artikulua oinarritzko izaera du, eta funtzio publikoari buruzko araudi autonomikoaren bidez garatu daiteke. EAEn, Euskal Enplegu Publikoaren Legea onartu arte, **Euskal Funtzio Publikoaren** uztailaren 6ko 6/1989 Legean ezarritakoa bete behar da, eta bere garaian indarrean zegoen estatuko araudia birsortzen duen lege horrek bere zazpigarren xedapen gehigarrian pertsona ezgaituen onartuak izateko eskubidea onartzen du: *"Ermaidunak, euskal Administrazio Publikoen zerbitzura sartzeko, egitekoak betetzeko gaitasun-baldintzak betetzen badituzte, gainerako funtzionari nahikoen aukera beraz onartuko dira"*. Eta, aukera berdintasuna bermatzeko, probak egiteko denbora eta bitartekoak egokitzeko eskubidea jasotzen du, betiere probaren edukia gutxitu edo eskatu beharreko gaitasun maila murriztu gabe. Halere, euskal legeak ere ez du inolako aurreikuspenik jasotzen pertsona ezgaituen laneratzea sustatzeko aldi baterako kontratupeko plazetan edo bitarteko izendapenetan.

Aldi baterako lan eskaintzetan plazen erreserbari buruzko berariazko aipamen bat aurkitzeko, **ezintasunen bat duten pertsonak enplegu publikora iristea eta lanpostuak betetzea arautzen duen abenduaren 3ko 2271/2004 Errege Dekretura** jo behar dugu. Haren 6. artikulua honela dio: *En las convocatorias para la cobertura de plazas por personal temporal que incluyan fase de oposición y en las que se convoquen 20 plazas o más en un mismo ámbito de participación, se reservará un cupo no inferior al cinco por ciento de las plazas en dichos ámbitos para ser cubiertas entre personas con discapacidad cuyo grado de minusvalía sea igual o superior a 33 por ciento. Las plazas del cupo reservado que queden vacantes se acumularán a las libres.*

Aurreikuspen hori garrantzitsua da; izan ere, Arartekoak martxoaren 4ko 4/2013 Gomendio Orokorrean dioen moduan, aldi baterako edo bitarteko langile gisa sartzea *"administrazioan lehen aldiz sartzeko biderik ohikoena. Gainera, ezin dugu ahaztu, gaur egun kontratu-formula horiek behin betikoak baino ugariagoak eta malguagoak direla, eta beraz, herritar gehienek enplegu publikora iristeko duten bide urrietako bat ere badela"*. Testuinguru horretan, Arartekoak gomendio hau egiten die euskal administrazio publikoei: *"ezgaitasunen bat duten pertsonen euren ezaugarrietarako egokiak diren lanpostuetara iristea erraztuko dieten diskriminazio positiborako neurriak ezar ditzatela euren aldi baterako kontratazio-burtsak arautzen dituzten araudietan"*.

Unibertsitateko araudiari erreparatzen badiogu, **Unibertsitateei** buruzko abenduaren 21eko **6/2001 Lege Organikoak** bere hogeita laugarren xedapen gehigarrian aukera berdintasuna bermatzeko eskatzen die unibertsitateei: *"la igualdad de oportunidades de los estudiantes y demás miembros de la comunidad universitaria con discapacidad, proscribiendo cualquier forma de discriminación y estableciendo medidas de acción positiva tendentes a asegurar su participación plena y efectiva en el ámbito universitario."* Era berean, unibertsitateei eskatzen die: *"acciones para favorecer que todos los miembros de la comunidad universitaria que presenten necesidades especiales o particulares asociadas a la discapacidad dispongan de los medios, apoyos y recursos que aseguren la igualdad real y efectiva de oportunidades en relación con los demás componentes de la comunidad universitaria"*. Horrenbestez, unibertsitateek legezko gaitasuna dute, ezgaitasun motaren bat duten pertsonen laneratzea bultzatzeko ekintza positiboak egiteko.

Amaitzeko, **UPV/EHUko** unibertsitate araudiari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu unibertsitateak legezko agindua bere gain hartzen duela eta bere **Estatutuetan** konpromiso bat jasotzen duela pertsona guztiei aukera berdintasuna bermatzeko eta pertsona ezgaituen lana sustatzeko plazen kupo bat erreserbatzeko. Hortaz, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen estatutuak onartzen dituen otsailaren 15eko 17/2011 Dekretuaren 68.1 artikulua honako hau ezartzen du: *"UPV/EHUk bermatu egingo die aukera berdintasuna ezintasunak dauzkaten ikasleei eta unibertsitateko gainerako kideei. Beraz, debekatu egingo du edozein diskriminazio mota eta ekintza positiboa bultzatuko du, aipatutako pertsonen parte hartzea erabatekoa eta eraginkorra izan dadin unibertsitatean"*. Eta, segidan, 68.5 artikulua hau gaineratzen du: *"UPV/EHUk kontuan hartuko du ezintasunak dauzkaten pertsonen lana emateko arautegietan xedatutakoa, eta aplikatu egingo du langileak hautatu eta kontratatzean."*

UPV/EHUk pertsona ezgaituentzako lana erreserbatzearen alde hartutako konpromisoa esplizitua izanik, konpromiso hori nola betetzen den eta unibertsitateak pertsona ezgaituen lana bultzatzeko egindako ekintza positiboak aztertuko ditugu, honako arlo hauetan: 1) UPV/EHUk argitaratutako azken lan eskaintza publikoak, 2) karrerako funtzionarioei erreserbatutako lanpostuak betetzeko lehiaketak, eta 3) bitarteko izendapenak edo aldi baterako kontratazioak egiteko poltsen deialdietan, eta arlo horietan guztietan aintzat hartuko dira bai irakasle-ikertzaileak bai AZPko langileak.

Hasteko, Gobernu Kontseiluaren 2016ko uztailaren 7ko akordioaren bidez administrazio eta zerbitzuetako lan kontratudun langileentzat onartutako 2016ko Lan Eskaintza Publikoan, lan kontratudun langile finko gisa betetzeko 44 plaza eskaini ziren, hainbat kategoria eta espezialitatetan banatuta. Akordio horren laugarren puntuak honela dio: *"2- Eskaintza hau osatzen duten plaza guztietatik, ehuneko zazpiren gutxieneko kupo gordeko da, eskaintza honen ondorioz egin beharreko hautapen probetarako deialdian, minusbaliotasun maila ehuneko 33ren berdina edo goragokoa duten pertsonen artean bete daitezten. Desgaituei gordetako plazen artean, hutsik geratuko liratekeenak txanda libreari gehituko ahal zaizkio. 3.Hautaketa prozesuetan, denbora eta bitartekoei dagokienez, egin beharreko egokitzapenak egingo dira, halakorik eskatuko luketen pertsona minusbaliatuentzat; hauen eta gainontzeko gurakoen arteko baldintza berdintasuna bermatzeko asmoz."* Horrenbestez, AZPko langileentzako 2016ko LEPak pertsona ezgaituen enplegua sustatzeko ekintza positiboko legezko neurriak jasotzen dituela ondoriozta daiteke.

Irakasle-ikertzaileentzako 2016ko Lan Eskaintza Publikoak, Gobernu Kontseiluaren 2016ko uztailaren 7ko akordioaren bidez onartu eta organo beraren 2017ko ekainaren 15eko akordioaren bidez zuzendu zenak, funtzionario eta lan kontratudun langileen 97 plaza eskaini zituen, baina AZPko langileentzako eskaintzan ez bezala, honetan ez zen aurreikuspenik jaso pertsona ezgaituek enplegua lor dezaten. Prozesua arautzeko unibertsitateak onartutako arautegiak ere ez zuen inon jaso gai horri lotutako ekintza positiborik. Aurreikuspenik ez da jasotzen **Irakasle kontratatu iraunkorrek hautatzeko eta kontratatuzko prozeduraren araudia** argitaratzeko UPV/EHUko Irakasleen arloko errektoreordearen 2008ko ekainaren 23ko Erabakian, ezta pertsona ezgaituen aipamenik ere **irakasle funtzionario kidegora sartzeko lehiaketan araudia** argitaratzeko UPV/EHUko Irakasleen arloko errektoreordearen 2009ko irailaren 15eko Erabakian, eta **UPV/EHUko irakasle-ikertzaileen lan kontratudun langileen II. Hitzarmen Kolektiboak** ere ez du ezer aurreikusten zentzu horretan.

Arreta jarriko dugu orain **barne promozioko** plazetan. UPV/EHUko administrazio eta zerbitzuetako karrerako funtzionarioei erreserbatutako lanpostuak betetzeko lehiaketan, zeinaren deialdia UPV/EHUko Gerentearen 2011ko abenduaren 22ko Erabakiaren bidez egin baitzen, ekintza positiboko neurri gisa, lantokia hautatzeko lehentasuna ematen da; hala, bosgarren oinarriak honela dio: *"Ezintasuna legez aitortuta daukaten Euskal Herriko Unibertsitateko karreko funtzionarioei lanpostua lortzeko erraztasuna emateko, langile horiek lehentasun osoa izango dute berek eskatutako udalerrian eta berek eskatutako lanpostua esleitzerakoan. Lehentasun hori izateko baina, langile ezinduek mugitzeko arazoak izan behar ditu eta hori horrela dela erabaki beharko du balorazio batzordeak kontuan izanda unibertsitate honetako Prebentzio Zerbitzuak egindako txostena"*. Kasu honetan, AZPko langileentzako barne promozioko plazak betetzeko deialdi bat denez, ez da ezgaituentzako erreserba kupo bat ezartzen, baina lanpostua betetzeko udalerrria aukeratzeko lehentasuna ematen zaie.

Azken batean, AZPko langileen LEPek Euskal Herriko Unibertsitatearen AZPko langileen III. Hitzarmen Kolektiboak ezarritakoari jarraitzen diote (2010ko abenduaren 3a), 14. artikuluan honako hau ezartzen baitu: " 1.-Hitzarmen kolektibo honetako 15. eta 16. artikuluek arautzen dituzten prozesuetan (hau da, lanpostu hutsak betetzeko prozesuetan eta barne promoziorako prozesuetan) hutsik geratutako

*lanpostuak izango dira UPV/EHUko lan kontratudun langileentzako lan eskaintza publikoan sartuko direnak.”...“3.- UPV/EHUk sindikatuekin negoziatuko ditu unibertsitatean sartzeko prozeduretarako deialdien oinarriak. Administrazio eta zerbitzuetako lan kontratudun langileentzako lan eskaintza publikorako deialdien multzoak kupo bat gorde beharko du, gutxienez bete beharreko lanpostu hutsen ehuneko bosta, lehentasuna eta erreserba kupo handiagoa emanez balizko minusbaliotasunen batekin bateragarriak diren jarduerak dituzten plaza hutsei.”*

Bestalde, **unibertsitateko katedradun kidegora sartzeko barne promozioko plazei erreserbatutako** lehiaketaren deialdia egiteko UPV/EHUren 2015eko abenduaren 17ko Erabakiak ez du pertsona ezgaituei buruzko aurreikuspen bakar bat ere egiten, ezta, genioen moduan, prozesua arautzeko unibertsitate araudiak ere.

Amaitzeko, **aldi baterako beharrei erantzuteko** AZPko langileen eta irakasle-ikertzaileen ordezkapen poltsen bidez egindako deialdietan irakasle-ikertzaile ezgaituen desabantailak konpentsatzeko jasotako ekintza positiboak aztertuko ditugu.

**Lan poltsak eratzeari eta kudeatzeari eta haien kideak antolatzeari buruzko 2010eko martxoaren 26ko Akordioak**, **administrazio eta zerbitzuetako langileei aplikatzen zaienak**, langile ezgaituentzako aurreikuspen bat jasotzen du 15. artikuluan, non honako hau adierazten baita: *“Bereziki aintzat hartuko dira ezgaitasuna modu frogagarrian egiaztatzen duten poltsetako kide diren langileak, bai haientzat gorde beharreko eskaintza kopuruari dagokionez, eskaintzen % 5 gutxienez (edo hogei eskaintzatatik bat gutxienez), bai eskaintzen izaerari dagokionez, bete beharreko eginkizunak pertsonaren beharretara ahalik eta ondoren egokitze aldera.”*

Ostera, UPV/EHUko **irakasleak ordezkatzeko hautagaien zerrenda kudeatzeko Araudiak**, zeina UPV/EHUko irakasleen arloko errektoreordearen 2011ko martxoaren 11ko Erabakiaren bidez argitaratu baitzen, ez du erreserbarik egiten irakasle-ikertzaile ezgaituentzat, ezta ekintza positiboko neurririk jasotzen ere.

Ondorioz, egiaztatu dugunez, bai lanpostu iraunkorretan eta aldi baterakoetan, bai txanda librean eta barne promozioan, unibertsitatean AZPko langileei lana eskaintzeko prozesuak arautzeko unibertsitate araudiak errespetatzen du pertsona ezgaituen laneratzea bultzatzeko ekintza positiboko neurriak hartzeko legezko betebeharra, eta, zehazki, eskaintako plazen kupo bat gordetzen da, % 33tik gorako maila batean ezgaitasunen bat modu frogagarrian egiaztatzen duten pertsonen plaza horiek bete ditzaten. Alabaina, UPV/EHUn irakasle-ikertzaileen laneratzea arautzen duen araudiak ez du inolako neurri positiborik aurreikusten irakasle-ikertzaileen lanpostuetan pertsona ezgaituen sarrera sustatzeko.

Erakunde honetan, pertsona ezgaituen laneratzea sustatzeko legea bete dadin eskatzeko jasotako keak helarazi dituzten pertsonen aldarrikapena babesten dugu, bai irakasle-ikertzaileen plazak betetzeko deialdietan, bai aldi baterako kontratazio beharrak asetzeko ordezkapen poltsen deialdietan.

Pertsona ezgaituei erreserbatutako kupoaren bidez lanpostu batera sartzen diren pertsonen beren ezgaitasuna eta bete beharreko lanarekiko ezgaitasunaren bateragarritasuna egiaztatu behar dutela aintzat hartuta, hasiera batean, ez da

arrazoirik ikusten erreserba hori irakasle-ikertzaile plazetatik kanpo uzteko; aitzitik, ulertzen dugu hori egitea behar-beharrezkoa dela irakasle-ikertzaile ezgaituek irakaskuntza eta ikerketa jardueretan erabat sartzeko eta parte hartzeko izan ditzaketen zailtasun bereziak konpentsatzeko.

Eta, jakina, hori guztia lan publikorako sarbidea zuzendu behar duten merezimen eta gaitasun printzipioak albo batera utzi gabe (103. art., CE). Printzipio horiek irakasle-ikertzaile ezgaituei laguntzeko neurriekin bateragarriak izateko modu bat izan daiteke zuzentze koefizientea sartzea merezimenduen baremoetan. Horrelako zerbait bereziki egokia izan daiteke oposizio faserik gabeko prozesuetan edo bere aplikazio eremuaren barruan plazen kopuru txiki bat eskaintzen duten prozesuetan. Adibide gisa, **Murtziako eskualdearen autonomia erkidegoaren unibertsitate publikoetako irakasle-ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboan** sartutako neurri hau aipa dezakegu: *"En los procesos selectivos se favorecerá a las personas con discapacidad que se hallen en condiciones de desempeñar la plaza, acreditado todo ello a través de la oportuna certificación oficial, mediante la aplicación del coeficiente 1.05 en los distintos baremos"*.

Edonola ere, funtzionarioen kidegoko plazak edo kontratatu iraunkorreko postuak oposizio bidez betetzeko prozesuetan, eskainitako plazen kopuruak dagokion ehunekoa aplikatzea ahalbidetzen duenean, ez dugu justifikatutako arrazoirik ikusten legeak ezarritako eta AZPko langileen kolektibo osoari aplikatutako % 7ko kupo ez gordetzeko. Kidego eta kategoria kopuru nabarmen bat jakintza arlo askorekin konbinatu beharraren eraginez irakasle-ikertzaileen plazak betetzean kupoaren aplikazioak duen zailtasun handiagoaz jabetzen bagara ere, kolektibo horretan ere kupo erreserbatzea ahalbidetuko duten formulak bilatu behar direla irizten diogu.

Adibide gisa, **Oviedoko Unibertsitatean** aurkitutako formula ematen dugu, non Gobernu Kontseiluaren 2017/03/17ko akordio bidez onartu baitira: *"los criterios para la asignación de plazas a áreas de conocimiento en las convocatorias de plazas de cuerpos docentes universitarios, de forma que se dé respuesta a las demandas de los departamentos, de las áreas de conocimiento y de los agentes sociales"*. Akordio horretan ezartzen denez, deialdi bakoitzean jakintza arlo bakoitzerako eskainitako plazen % 93 akordioan zehaztutako hainbat irizpide aplikatuta esleitzen dira, hala nola arloaren irakats arduraldia, arloko langileen zerrendako zahartzea, antzinatasuna arloko irakasleen kidegorako akreditazioan, langileen zerrendako egitura, eta arloko irakasleen seiurtekoen kopurua. Eskainitako plazen % 7 gordetzen dira, ordea, pertsona ezgaituek bete ditzaten, EPOELTBren 59. artikulua betetzeari begira (bai unibertsitateko irakasle katedradunen promozioan, bai unibertsitateko irakasle titularren dotazioetan).

Ildo berean, unibertsitateko irakasle titularrentzako plazen horniduran eta deialdietan lehentasuna ezartzeari begira, **Malagako Unibertsitateak** 2017ko maiatzaren 5eko Gobernu Kontseiluan onartutako prozedura eredu aplikagarria izan daiteke gure unibertsitatean. Kasu horretan, unibertsitatean dagoeneko kontratatuta dauden eta unibertsitateko irakasle titularren akreditazioa lortu duten langileek unibertsitateko irakasle titular plaza eskuratzeko egindako eskaerekin bi lehentasun zerrenda egiten dira: lehen zerrendan, % 33tik gorako ezgaitasun maila egiaztatzen ez duten eskatzaileak sartzen dira, eta bigarrean, baldintzak beteta, ezgaitasun maila hori egiaztatu dezaketen eskatzaileak. *"En cada lista se ordenan las solicitudes"*



*recibidas en función de la fecha de solicitud de promoción, entendiéndose que ésta es la de registro en el propio Departamento. En caso de empate, se utiliza en primer lugar la fecha de acreditación y en segundo término la de antigüedad en la plaza de la que se parte para acceder a la promoción."*

Azken batean, bulego honetan jasotako kexetara itzulita, non hainbat irakasle-ikertzailek zalantzan jartzen baitzuten UPV/EHUk irakasle-ikertzaileen plazak betetzeko deialdi publikoetan pertsona ezgaituentzako kupo erreserba betetzen duenik, zera adierazi behar dugu: pertsona horien eskaera babesten duen araudi esparrua, azken lan eskaintza publikoetan araudi horrek izandako aplikazioa eta beste unibertsitate batzuetan aplikatutako prozedurak aztertu ondoren, gomendagarritzat irizten diogu erreserba kuota unibertsitateko irakasle-ikertzaile plazak betetzeko prozeduretan eta deialdietan aplikatzeari, nola sarbidea aldi baterakoa eta behin betikoa denean, hala sarbide libreko kasuetan eta barne promoziokoetan.

Azaldutako guztia aintzat hartuta, erakunde honek, 2013ko martxoaren 18ko erabakiaren bidez argitaratutako Aldezlearen Erakundearen Funtzionamenduari buruzko Arautegiaren 10.1.e) artikulua ematen dizkion ahalmenez baliatuta, honako **GOMENDIO** hau egiten dio UPV/EHUko errektoreari:

**Pertsona ezgaituentzako % 7ko kupa gordetzeko legezko betebeharra betetzeko beharrezkoak diren irizpide eta prozeduren onarpena bultzatzea, lan eskaintza publikoetan eta barne promozioetan irakasle-ikertzaileei eskainitako plaza hutsetan, eta ekintza positiboko neurriak sartzea irakasle-ikertzaileen ordezkapenetarako hautagaien zerrendaren kudeaketan, % 33tik gorako ezgaitasun maila duten kideei aldi baterako kontratazioetan aukera berdintasuna bermatzeko.**



Iñigo Urrutia Libarona  
UPV/EHUko Aldezlea

## GOMENDIOA

Erref.

S. 653/ K. 738 / Ikas./2017

Donostia, 2017ko uztaillaren 06a

**AZTERGAIA:** Aldezlearen Funtzionamendu Arautegiaren 13. artikularen eta hurrengo babespean aurkeztutako erreklamazio bati buruzko gomendioa, ikasketetara lehia bidez sartzeko prozesuen parte hartzaileen emaitzak argitaratzeari buruzkoa.

██████ek 2017ko ekainaren 16an aurkeztutako erreklamazioari erantzunez, UPV/EHUko Aldezlearen zerbitzuak, jarraian zehaztuko diren Aurrekariak eta Oinarri Juridikoak aintzat hartuta, honako ERABAKI hau hartu du:

### AURREKARIAK

1. 2017ko ekainaren 16an, ████████ek erreklamazio bat jarri zuen Aldezlearen zerbitzuan, eta bertan, gertaerak eta oinarri juridikoak oinarri hartuta, ████████ Unibertsitate Masterrera sartzeko hautagaien puntuazioak jasotzen zituzten zerrendak jendaurrean jartzeko eskatzen zuen, datu pertsonalak babesteko beharrezkoak diren bermeekin, gardentasun printzipioa bermatze aldera; eskatzen zuen, halaber, behin-behineko baremazioan akatsik ez zeudela eta hura zuzen eta objektibotasunez egin zela egiaztatzeko.
2. 2017ko ekainaren 16an, Aldezlearen zerbitzuak erreklamazioa hartu izanaren agiria jaso zuen; espediente zenbaki bat esleitu zion; eta, erreklamatzeari jakinarazi zion.
3. Aldezlearen zerbitzuak erreklamazioa izapidetzea onartu zuen, ulertu baitzuen onartuen zerrenda argitaratzeko eskaerak, lehia bidezko prozedura bat izanik, nahikoa oinarri juridikoa zuela Aldezlearen Funtzionamendu Arautegiaren 15. artikularen oinarriaren gainean onartzeko. Edonola ere, puntuazioak egiaztatzeari buruzko eskaera ezin da onartu, erreklamazio prozedura bide zehatz bat duelako jada, Unibertsitate Masterrak Kudeatzeko Arautegiaren 5.2 artikuluan aurreikusita dagoena. Hori izango da, beraz, eskatzaileak hartu beharko duen bidea.
4. 2017ko ekainaren 27an, ████████ Unibertsitate Masterreko zuzendariari jakinarazi zitzaion erreklamazioa izapidetzea onartu zela eta jarduerak egingo zirela, eta eskatu zitzaion, halaber, egoki irizten zizkion alegazioak eta dokumentuak aurkezteari edo zegozkion txostenak igortzeari, hamabost egun balioduneko epe batean. Zehazki, informazioa eskatu zitzaion UPV/EHUko ████████ Masterrean sartzeko hautagaiei onartuak eta baztertuak izan direnak jakinarazteko moduari buruz, baita zerrendak argitaratzeko aukerari buruz ere, datu pertsonalen bereizketa bermatuta.

5. 2017ko ekainaren 27an, UPV/EHUko [REDACTED] Unibertsitate Masterraren zuzendaritzak interesdunak aurkeztutako erreklamazio idatzia eskatu zion Aldezlearen zerbitzuari. Erreklamatzaileri onespena eskatu eta haren datu pertsonalak ezabatu ondoren, erreklamazioaren kopia bat igorri zitzaion Masterraren zuzendaritzari 2017ko ekainaren 28an.
6. Gero, 2017ko ekainaren 28an, [REDACTED] Unibertsitate Masterraren zuzendaritzak erreklamazio egilearen identitatea eskatu zion Aldezlearen zerbitzuari, eta zerbitzu horrek uko egin zion eskaerari, Aldezlearen Funtzionamendu Arautegiaren 4.3 artikulua aplikatuta, non honako hau ezartzen baita: "Aldezleak konfidentzialtasuna gordeko du, bere zereginetan lorturiko datu eta informazio pertsonal edo erreserbatuetan", eta "Ikerketak egitean, bai eta bere bulegoak eginiko izapideetan ere, aintzat hartuko ditu beti erreserba eta konfidentzialtasun-printzipioak eta datu pertsonalen babeserako legeria..."
7. 2017ko uztailaren 3an, [REDACTED] Masterraren Batzorde Akademikoaren erantzuna jakinarazi zitzaion Aldezlearen zerbitzuari. Bertan, UPV/EHUren [REDACTED] Unibertsitate Masterrera sartzeko eta onartua izateko baldintzak azaltzen dira, eta adierazten da ikasle guztien balorazioa ez dela argitaratu Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa bermatu nahi delako; era berean, Masterraren Batzorde Akademikoak interesdunari bere balorazioari buruzko informazioa emateko prest dagoela adierazten du, hala eskatzen badu.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Aldezlearen Arautegiaren 17. artikuluekin bat etorrita, haren egitekoa justizia printzipioan oinarrituko da, ordenamendu juridikoak ahalbidetzen dituen aukeren barnean betiere, eta egiteko horren emaitza izan daitezke iradokizunak, gomendioak, oroitarazpenak, ohartarazpenak edo unibertsitate zerbitzuak ondo aritu izanaren egiaztapenak.
2. Aztertzen ari garen kasuari lotuta, UPV/EHUK ez du onartu graduondoko ofizialetan onartuen eta baztertuen zerrendak argitaratzeko moduari buruzko arautegi espezifikorik.
3. Kasu honetan zuzenean aplikatzen ez bada ere, gogoratu behar da Unibertsitateen abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoa aldatzeari buruzko apirilaren 4/2007 Lege Organikoaren 21. xedapen gehigarriak honako hau ezartzen duela: "no será preciso el consentimiento de los estudiantes para la publicación de los resultados de las pruebas relacionadas con la evaluación de sus conocimientos y competencias ni de los actos que resulten necesarios para la adecuada realización y seguimiento de dicha evaluación". Hartara, legegilea onartzen ari da unibertsitate ikastegiei interes publikoa hauteman dezaketela aipatutako ebaluazioen emaitzak jakitera emateko. Hala, interes hori ikasleen borondatearen gainera egongo litzateke, eta emaitzen argitalpena ahalbidetuko luke, interesdunen onspena izan gabe.



4. Oro har, gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legea unibertsitate publikoetan aplikatu daiteke, haren 2.1.d. artikuluan aurreikusten den moduan.

Lege horrek, 12. artikuluan, informazio publikoa eskuratzeko pertsona guztien eskubidea onartzen du, eta Lege beraren 13. artikulua arabera informazio publikoa da: "titulu honen aplikazio eremuan aipatutako subjektuen esku dauden eduki edo dokumentuak, haiek beren funtzioen jardunean egin edo eskuratu dituztenak, edozein formatu edo euskarritan daudela ere."

UPV/EHUko lehiaketa prozedura batean, parte hartzaileen datuak eskuratzeko aukera, beraz, Gardentasun Legearen mende dago, zeinak informazio publikoa eskuratzeko eskubidea aitortzen eta arautzen baitu, informazio hori unibertsitatearen esku dagoelarik bai berak sortu duelako, bai eman zaizkion zereginak betetzean eskuratu duelako.

5. ██████████ Unibertsitate Masterraren zuzendaritzak hautagai guztien balorazioaren zerrenda argitaratzeko eskaerari uko egin zion, ulertzen zuelako Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa bermatu behar zela.

Gai honetan sakonean planteatzen ari den gaia, laburbilduta, honako hau da: informazio publikoa jasotzeko eskubidearen eta datu pertsonalak babesteari buruzko oinarritzko eskubidearen artean eman daitekeen talka.

Horri dagokionez, Gardentasun Legearen 15. artikulua, datu pertsonalen babesa oinarri hartuta, informazio publikoa eskuratzeko muga batzuk ezartzen ditu, eta, zehazki, jarraian transkribatzen dugun hau ezartzen du:

"1. Eskatutako informazioak Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikulua 2. paragrafoan aipatutako datu bereziki babestuak baditu, informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da eragiten zaionaren berariazko idatzizko baimena izatea; dena dela, ez da baimen hori behar izango, baldin eta, eskuratzeko eskaera egin baino lehen, eragiten zaion horrek datuak ageri-agerian ezagutzera eman baditu.

Informazioak abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 7. artikulua 3. paragrafoan aipatutako datu bereziki babestuak edo arau-hausleari ohartarazpen publikorik ez dakarkioten arau-hauste penal edo administratiboei buruzko datuak baditu informazio hori eskuratzeko nahitaezkoa izango da eragiten zaionaren berariazko baimena edukitzea edo lege mailako arauen baten babesa izatea.

2. Oro har, organoen antolamendu, funtzionamendu edo jarduera publikoari buruzko identifikazio datu hutsak jasotzen dituen informazioa eskuratzeko baimena emango da, salbu eta ezin bada ezagutarazi, informazioa ezagutzera ematearen interesen publikoari datu pertsonalak babestea edo Konstituzioak babesteko beste eskubideren bat gailentzen zaiolako.

3. Eskatutako informazioak ez duenean datu bereziki babesturik, eskaera jaso duen organoak informazioa eskuratzea baimenduko du, informazioa ezagutarazteak daukan interes publikoa eta eskatutako informazioan ageri diren datuen jabeen eskubideak (bereziki datu pertsonalak babesteko oinarrizko eskubidea) behar bezala aztertu eta kontuan hartuta.

Erabaki hori hartzeko, organoak bereziki kontuan hartuko ditu irizpide hauek:

a) Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 57. artikulua ezarritako epeak igarotzeak eragindakoei ahalik eta kalte txikiena eragitea.

b) Eskatzaileek justifikatzea beren eskaera eskubide batez baliatuta egiten dutela edo ikerlariak direla eta informazioa helburu historiko, zientifikoa edo estatistikoekin eskuratu nahi dutela.

c) Eragindakoen eskubideei ahalik eta kalte txikiena egitea, dokumentuetan haiek identifikatzeko datuak bakarrik badaude.

d) Eragindakoen eskubideak ahalik eta gehien bermatzea, dokumentuko datuek haien intimitatean edo segurtasunean eragina izan badezakete, edo adingabekoei buruzkoak badira.

4. Aurreko ataletan ezarritakoa ez da aplikatu beharko informazioa eskuratu aurretik datu pertsonalak bereizi badira eta, modu horretan, eragiten zaien pertsonak identifikatzea ezinezkoa bada.

5. Datu pertsonalak babesteko araudia aplikatu beharko zaio informazioa eskuratzeko eskubidearen bidez eskuratutako datuen tratamenduari.

Gardentasun Kontseiluak muga horiek interpretatu zituen maiatzaren 21eko CI/002/2015 Interpretazio Irizpidearen bidez.

6. Kasu honetan, eskatutako informazioan ez daude datuen babesari begira araudiak bereziki babestutako datuak, ez baitira aipatzen ideologia, sindikatu afiliazioa, erlijioa, sinesmenak, arraza, osasuna, bizitza sexuala, edo zigor edo administrazio arloetako arau hausteak.

Bereziki babestutako datuak ez direnez, dagokion entitate edo organoaren antolakuntzari, funtzionamenduari edo jarduera publikoari lotutako identifikazio datu hutsak ote diren baloratu beharko da, eta, hala bada, informazioa argitaratu edo denon esku jarriko da, non eta datu pertsonalaren babesak eta konstituzioak babestutako beste eskubide batzuk dibulgazioaren interes orokorrari gailentzen zaizkion.

Eta, azkenik, datu pertsonalak ez badira soilik organoaren antolakuntzari, funtzionamenduari edo jarduera publikoari lotutako identifikazio datuak, edo ez badira soil-soilik horrelakoak –aztertzen ari garen kasuan halakoak direla

dirudi- Gardentasun Legearen 15. artikuluan aurreikusitako haztapena egingo litzateke.

Nolanahi den, eraginpeko pertsonen identifikazioa eragozteko aldez aurretik datu pertsonalak bereizten badira, arauak ez lituzke mugak planteatuko informazioa eskuratzeko, datuen babesaren ikuspegitik.

7. Gardentasun eta Gobernu Onaren Kontseiluak lehiaketetan eskatzailearenak ez diren beste hautagaien puntuazioak, ariketak barne, eskuratzeko aukerari buruzko adierazpena egin du. Besteak beste, ikus R/0381/2016, non adierazten baita datu pertsonalen babesak ezin duela oztopo izan hautapen prozesuaren informazio esanguratsua, parte hartu duten hirugarrenen datu pertsonalak barne, interesdunari –sarbidearen eskatzaileari– emateko, lehiatu den prozeduraren inpartzialtasuna egiaztatzeko aukera izan dezan.
8. Datuak Babesteari buruzko Espainiako Agentziak, 0178/2014 zenbakidun txostenean, datu pertsonalak babesteko eskubidearen eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidearen harremana aztertu du, hainbat ikuspegitatik, eta, bereziki eta hemen interesatzen zaigunari dagokionez, lehia bidezko prozesuen ikuspegitik.
9. Auzitegi Nazionalaren Administrazioarekiko Auzien Salaren lehen atalaren 2012ko apirilaren 26ko epaia lehia bidezko hautapen prozesuetan emandako kalifikazioen datuak emateari lotutako auzi bati buruz eman zen. Epaia honako hau zioen:

“En el caso presente, al tratarse de un procedimiento de concurrencia competitiva debemos atender a lo que señala el artículo 103 de la Constitución cuando afirma que la Administración Pública sirve con objetividad los intereses generales y actúa de acuerdo con los principios de eficacia, jerarquía, descentralización, desconcentración y coordinación, con sometimiento pleno a la Ley y al Derecho (párrafo 1).  
[...]

Obviamente, las garantías que exige el tratamiento de datos personales no puede servir para empañar ó anular estas exigencias generales que obligan a que los procesos se conduzcan cumpliendo unas mínimas exigencias de transparencia y publicidad. La superioridad de estos otros valores aconseja que en este caso se entienda que no era exigible el consentimiento del interesado para el tratamiento del dato de la nota...

Desde este punto de vista, debemos concluir que no es exigible el consentimiento de aquellas personas que participen en un procedimiento de concurrencia competitiva para el tratamiento de las calificaciones obtenidas en dicho procedimiento y ello como garantía y exigencia de los demás participantes para asegurar la limpieza e imparcialidad del procedimiento en el que concurren (...)

Es cierto que la Ley Orgánica 15/1999 no recoge expresamente exenciones o excepciones al régimen de tratamiento de datos personales en ella contenida con fundamento en las garantías de

transparencia de los procesos competitivos por lo que será preciso ponderar los intereses en conflicto para poder determinar cuál de ellos debe prevalecer. Efectuada dicha ponderación, y valorando las circunstancias que aquí concurren, es claro para este Tribunal que debe prevalecer en este caso la garantía de publicidad y transparencia del proceso competitivo sobre el derecho a la protección de datos.”

## ERABAKIA

Aurreko oinarriak aintzat hartuta, Gardentasun Legeak 15.3 artikuluan eskatzen duen azterketa eginda eta aipatutako irizpide jurisprudentziala kontuan hartuta, baita Datuak Babesteko Espainiako Agentziak eta Gardentasun eta Gobernu Onaren Kontseiluak horri buruz egindako interpretazioa ere, Aldezlearen zerbitzuak

## GOMENDATZEN DU:

1. [REDACTED] Unibertsitate Masterrera sartzeko lehiari hautagaiek lortutako puntuazioak dituzten zerrendak argitaratzea, lehiaketa prozesuaren informazio esanguratsua eskura jartzeko, plaza berberak lortzeko lehiatu diren parte hartzaileek prozeduraren inpartzialtasuna egiazta dezaten.
2. Zerrendak ahalik eta berme handienekin argitaratzeko, datuak bereizteko moduren bat erabil daiteke, edo parte hartzaileak NAN zenbakiarekin edo eskaera zenbakiarekin identifikatu daitezke.
3. Gomendio hau UPV/EHUko graduondoko guztietara zabaltzea, eta bereziki lehiaketa prozeduren bidezko sarbidea duten horietara.



**Sin.: Iñigo Urrutia**  
UPV/EHUko Aldezlea

## II. ERANSKINA: 2017an bideratutako eskaerak

### Gakoak

Taldea	Aztergai mota
<b>IK:</b> Ikasleak	<b>KE:</b> Kexa
<b>IRI:</b> Irakasle-ikertzaileak	<b>KO:</b> Kontsulta
<b>AZP:</b> Administrazio eta Zerbitzuetako langileak	<b>B:</b> Bitartekaritza
<b>Beste batzuk:</b> UPV/EHUtik kanpoko pertsonak	

Zk.	Taldea	Aztergai mota	Gaia
652	AZP	KO	Jardutea, ikasle bati zabal dakioken espedientearen aurrean.
653	IK	B	Bitartekaritza, ikastegiko zuzendariarekin izandako gatazkan.
654	IRI	KO	GRALak esleitzeko irizpideak.
655	IK	KO	Irakaslea ordezkatzeta, irakasgaiaren irakaskuntzaren azken astean.
656	Beste batzuk	KO	Beka berri baten onura oraingoa amaitu arte luzatzeko aukera.
657	IK	KO	Askotariko antolakuntza arazoak Gradu bikoitzean: lan karga gehiegi, ordutegi txarrak, etab.
658	IRI	KO	Zer egin plaza baten epaimahaian dagoen pertsona batekin haserre bagaude lehengo errekurtsio batengatik.
659	IRI	KO	Doktorego programa aldaketaren ondorioak, kontratu aurreko kontratuan.
660	IK	KE	Soilik gaztelaniaz emandako Master profesionalari buruzko informazioa.
661	IK	KO	Erasmus plaza bat lortzeko aukera, beste batzuek atzera egiten badute.
662	AZP	B	Era askotako eta behin eta berriro errepikatzen diren arazoak lankide batekin.
663	IK	KO	MALerako kalifikazioak berrikusteko prozedura.
664	IK	KO	Zitazio judicial bat dela eta, azken azterketaren data aldatzeko aukera.

665	Beste batzuk	KO	UPV/EHUri dagozkion auzoko zenbait arazo.
666	IRI	KO	Osasun arrazoiak direla eta, azterketaren data aldatzeko aukera.
667	IRI	KE	Ikasle oso oldarkorra, azterketa berrikustean.
668	IRI	KO	Familia kontziliazioa zailtzen duten ordutegiak.
669	IK	KO	Ikasleak zenbat deialditarako eskubidea duen Graduako irakasgai batean.
670	IK	KO	Ebaluazio sistema desberdina erabiltzeko aukera, irakasgai beraren hainbat taldetan.
671	IRI	KO	Jardutea, ordainsari osagarrien erreklamazioari ez erantzutearen ondorioz.
672	IK	KE	Irakasle baten irakaslanari buruzko hainbat kexa.
673	IRI	KO	Ikasleek azken ebaluazioa egiteko duten eskubidea.
674	IK	KO	Nola jokatu ikerketa Master baten hainbat alderdirekin asebeteta egon ezean.
675	IRI	B	Bitartekaritza errektoregoarekin, hainbat irakasle unibertsitatera itzul daitezten.
676	IK	KO	Hainbat zalantza practicum bat gainditzeko dauden deialdiei buruz.
677	IRI	KO	Lankide baten portaera desegokia.
678	IK	KE	Notak epearen barruan ez argitaratzea.
679	IK	KO	Erasmus bekaren zenbatekoa itzultzeko erreklamazioa.
680	IK	KO	Erasmus bekaren zenbatekoa itzultzeko erreklamazioa.
681	Beste batzuk	KO	Erasmus bekaren zenbatekoa itzultzeko erreklamazioa.
682	AZP	KE	Desadostasuna, poltsako langileak hartu beharrean kanpo zerbitzuak kontratatu direlako.
683	IK	KE	Kexa hezkuntza laguntzako kontratua amaitzeagatik.
684	IK	KO	Azterketaren aparteko deialdiari uko egiteko eskubidea.
685	IK	KO	Desadostasuna irakasgaia ebaluatzeko moduarekin.
686	AZP	KE	Desadostasuna lan poltsa bat eratzeko erabakitako merezimenduen ebaluazioarekin.

687	Beste batzuk	KO	Desadostasuna poltsako langileak hartu beharrean kanpo zerbitzuak kontratatu direlako.
688	IK	KO	Espedientea lekuz aldatzeko aukera ez izatea baldintzak ez betetzeagatik.
689	IRI	KO	Tratu desagokia jasotzea sailean, adierazpen kritikoak egiteagatik.
690	IK	KO	OMgatik prezio publikoen kostua ez itzultzea, hurrengo ikasturtea UPV/EHUn bertan egiten ez bada.
691	IRI	KO	Irakaslanerako bigarren ordenagailua lortzeko aukera.
692	IRI	KO	Lehentasun irizpideak irakaskuntzaren esleipenean.
693	IK	KO	MALa defendatzeko data aurreratzeko aukera.
694	IRI	KO	Sailaren Erreklamazio Batzordearen erabakia errekurritzeko aukera.
695	AZP	KO	Lanpostuen Zerrendako plaza baten definizioa aldatzeko aukera.
696	IRI	KO	Irakasle-ikertzaileen poltsen arautegia aldatzeko aukera.
697	IRI	KE	UPV/EHUK Ikerbasque Research Fellow-ren % 40ren kontratazioa bere gain ez hartzea.
698	IRI	KO	Tesia amaitzeko hainbat aukera posible, doktore aurreko kontratua amaitu ondoren.
699	IK	KE	Irakasgaiaren Ikasketen Gidaliburuan datorren ebaluazio mota egiteko aukera ez izatea taldearen gehiengoaren erabakiaren ondorioz.
700	Beste batzuk	KE	Ikasle bati ezarritako zigorra berrikusteko aukera.
701	IK	KO	Kalte ordaina jasotzeko eskubidea doktore aurreko kontratua amaitzeagatik.
702	AZP	KO	Lankide batek bere portaera dela eta jarritako salaketa funsgabea.
703	AZP	KO	Hierarkian gorago dagoenaren portaera desagokia.
704	AZP	B	Beste AZPko langile batek bere jokaerari buruz esandako gezurra.
705	AZP	KO	Bizikidetza arazo larria lankide batekin.
706	IK	KO	Ebaluazio epaimahaitik irakasle-ikertzaile bat kentzeko aukera, hari buruz ebatzi gabeko kexa bat dagoelako.

707	IK	KO	Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko moduak Gradu bat lortzeko.
708	IK	KO	Jardutea, irakasle-ikertzaile batek izandako hainbat portaera desegokiren aurrean.
709	IRI	KO	Sail bateko irakasleen artean irakaskuntza esleitzeko irizpideak.
710	IRI	KO	Erabaki proposamen baten aurka alegazioak egiteko eskubidea.
711	IK	KO	GRALa skipe bidez aurkezteko aukera, lana dela eta defentsaren egunean atzerria egoteagatik.
712	AZP	KE	Ez erantzutea lan poltsa baten deiei buruzko informazioa eskaerari.
713	IK	KO	Doktore berrientzako UPV/EHUren zubi bekaren deialdia ez egotea 2017an.
713	IK	KO	Doktore berrientzako UPV/EHUren zubi bekaren deialdia ez egotea 2017an.
714	IK	KO	MALaren kalifikazioa berrikusteko prozedura.
715	IRI	KO	Hizkuntza ez-ofizialetan eskolak ematen dituzten irakasleen baldintzak.
716	IK	KO	Hainbat zalantza irakasgai bat ebaluatzeko sistemari buruz.
717	IK	KO	Desadostasuna irakasgai baten ebaluazioarekin.
718	IRI	B	Desadostasunak ikasle taldearen eta irakaslearen artean.
719	IK	KE	Bizikidetasun arazoak ikasle batekin.
720	AZP	KO	Desadostasuna bere lanpostuaren balorazioarekin.
721	IRI	KO	Irakasle-ikertzaile ezgaituentzako plazen erreserba.
722	IK	KO	Europako txapelketetan parte hartzeko aukerarik ez izatea.
723	IK	KO	Azken azterketaren ondoren, bere garaian egin ezin izan zen ebaluazio mintegi bat egiteko aukera.
724	IRI	KO	Sail batean irakasle-ikertzaileei irakaskuntza banaka esleitzeari buruzko arautegiaren aplikazioa.
725	IK	KO	Practicum baten kalifikazioa errekurritzeko aukera.
726	IRI	KO	Desadostasuna ordainsari osagarri gehigarrien ebaluazioan lortutako puntuazioarekin.



727	IRI	KO	Desadostasuna ordainsari osagarri gehigarrien ebaluazioan lortutako puntuazioarekin.
728	IRI	KE	Kategoria bereko irakasleekiko kontratu baldintza desberdinak edukitzea.
729	IK	KO	Jarduteko aukera, irakasle bat atzeratu delako ikasle batzuei notak jartzean.
730	IRI	B	Esku hartzeko eskaera, sail bateko kideen artean sortzen ari den giro txarra arintzeko.
731	IK	KO	Jardutea, eskoletara ez joateagatik irakasgai bat gainditzeko zailtasunen aurrean.
732	IK	KO	Desadostasuna irakasgaiaren irakaskuntza gidan sartuta ez dagoen ebaluazio irizpide baten aplikazioarekin.
733	IK	KO	Forma akatsa, bosgarren deialdiko irakasgai baten ebaluazioan.
734	IRI	KO	Matrikula baliogabetzeko eta prezio publikoak itzultzeko ikaslearen eskubidea, ezustean izandako gaixotasun batengatik.
735	IK	KO	Ikaslearekiko bazterkeria tratua bizilekuagatik, erakunde laguntzaileak bultzatutako unibertsitate programa batean.
736	IK	KO	Irakasgai baten kalifikazioa erreklamatzeko prozedura.
737	IK	KO	Kalifikazioak argitaratzeko eta azterketa berrikusteko epeak ez betetzea.
738	Beste batzuk	KE	Gardentasun falta, Master profesional baterako ikasleak hautatzean.
739	Beste batzuk	KE	Aparteko arrazoiengatik matrikula baliogabetzea eta prezio publikoak itzultzea ukatzea.
740	Beste batzuk	KE	Kontratua amaitzeagatiko kalte ordain eskaera ukatzea.
741	IK	KO	Arazoak bizi den probintzian praktikak egiteko.
742	Beste batzuk	KO	Espediente akademiko bat jasotzeko epea, dagokion tasa ordaindu ondoren.
743	IK	KE	Babesgabetasuna, azterketa batean iruzurra egin izanaren irakaslearen salaketaren aurrean.
744	IK	KO	Kalifikazioak erreklamatzeko prozedurari buruzko arautegia.

745	Beste batzuk	KO	Espediente akademiko bat zuzentzeko aukera; bertan, gainditu gabe gisa ageri baita irakasgai bat, titulua eskatzeko nagusiaz bestelako modalitatekoa dena eta eskaeraren ondoren gainditu zena.
746	IK	KO	Hainbat zalantza bere eskubideei buruz, doktore aurreko kontratu bat amaitu ondoren.
747	IK	KO	Guztiz desagokitzat iriztitako GRALeko tutoretza bati buruz kexa bat aurkezteko prozedura.
748	IRI	KE	Ez erantzutea IHP deialdian laguntza ukapenaren aurka jarritako birjartze errekurtsioari.
749	IK	KO	Konparaziozko bidegabekeriaren aurrean jarduteko aukera, irakasgai bateko hainbat taldeen artean azken azterketan izandako aldeak direla eta.
750	IK	KE	Ikastegiak ez ditu GAUREn argitaratu zenbait irakasgairen behin betiko kalifikazioak.
751	Beste batzuk	KE	Balizko akatsak, bere espediente akademikoaren ziurtagirian.
752	Beste batzuk	KO	Arazoak, UPV/EHUra sartzeko bere eskaeraren emaitza egiaztatzeko.
753	Beste batzuk	KO	Nora jo behar den bere unibertsitateari lotutako hainbat gai argitzeko.
754	Beste batzuk	KO	Gradu batera sartzeko nota hobetzeko aukerak.
755	IK	KO	Jardutea, automatrikularako lortutako puntuazioaren kalkuluarekiko desadostasunaren aurrean.
756	IRI	KO	Ezgaituentzako erreserba kupoa betetzea, irakasle-ikertzaileen LEPetan.
757	IK	KO	Jardutea, automatrikularako lortutako puntuazioaren kalkuluarekiko desadostasunaren aurrean.
758	IK	KO	Jardutea, automatrikularako lortutako puntuazioaren kalkuluarekiko desadostasunaren aurrean.
759	IK	KE	Graduko azken mailan matrikulatzeko aukerarik ez izatea, giltza irakasgai bat gainditu gabe edukitzeagatik.
760	Beste batzuk	KE	Ez erantzutea berezko titulu bat homologatzeko ziurtagiri eskaerari.
761	IRI	KO	Aukerak, diziplina zigorraren berehalako exekuzioaren aurrean

762	Beste batzuk	KE	Desadostasuna espedientearen leku aldaketa bidez unibertsitatera sartzeko irizpideekin.
763	IK	KE	Unibertsitatearen ondarezko erantzukizuna erreklamatzeari, kirol ekitaldi batean jasandako kalte batengatik.
764	IK	KE	Desadostasuna erakunde humanitarioekin lankidetzan egindako jardueren aitortza ukatzearekin.
765	IRI	KE	Hainbat zerbitzutako AZPko langileek ez diete telefono deiei erantzuten.
766	IK	KO	Zalantzak doktore aurreko kontratu baten amaierari buruz.
767	IK	KO	Beste unibertsitate bateko Master batean matrikulatzeko aukera, Graduak titulua lortu gabe izanda ingeleseko B2 eskakizuna ez betetzeagatik.
768	IK	KO	Kredituak aitortzeko aukera, Lanbide Heziketako Goi Mailako Teknikari titulu batetik.
769	IK	KO	Unibertsitatera sartzeari, haren egoera akademikorako egokia ez den bide batetik.
770	IK	KO	Kalifikazioak erreklamatzeko prozedura batean jarritako errekurtsio bati erantzuteko epea.
771	IK	KE	Minorrean matrikulatzeko aukerarik ez izatea, ikastegitik nahitaez lekualdatu ondoren.
772	IK	KE	Bere espezialitateko nahitaezko bi irakasgaitan eskola orduak bat etortzea.
773	IK	KO	Jardutea, behin betiko kalifikazioak argitaratzean eta azterketa berrikustean ustez urratutako eskubideen aurrean.
774	IRI	KO	Txanda kontratu bati lotutako irakasle atxiki baten kontratuaren baldintzak.
775	Beste batzuk	KO	Gradu batera sartzeko aukera, lehengo ikasketa planen antzeko titulu batetik.
776	IK	KO	Eskakizunak, euskarako C1 eta C2 mailekiko baliokide diren tituluak egiaztatzeak salbuetsita egoteko.
777	IRI	KO	Kontratua ukatzea, plazaren jakintza arlokoa ez izateagatik.
778	Beste batzuk	KO	Graduko matrikula baliogabetzea, lizentzian ikasketa berdina egiteagatik.
779	IK	KO	Kalifikazioak egokitze arazoak, mugikortasun programan

780	IK	KE	Deustun curriculumeko praktikak egiteko ezintasuna.
781	IRI	KO	Irakasleen inkesta baliogabetzeko eskaera.
782	IRI	KO	Doktore aurreko laguntza denbora partzialeko beste kontratu batekin uztartzeko ezintasuna.
783	IRI	KO	Hirurtekoak aitortzea, fundazio eta institutu batean egindako lanagatik.
784	IK	KO	Master amaierako lana ingelesez aurkezteko aukera.
785	IK	KO	Desadostasuna, MAL bat ez gainditzeagatik.
786	IK	KE	Desadostasuna ohorezko matrikula emateko irizpideekin.
787	IK	KO	MAL baten kalifikazioa erreklamatzeko prozedura.
788	IK	KO	Automatrikulan gaztelaniako talde batean matrikulatzeko aukera ez izatea.
789	IK	KO	Desadostasuna MAL baterako eskatutako kredituen aitortzaren ukapenarekin.
790	IK	KO	Eskolen arteko atsedenaldiak kentzea.
791	IRI	KO	Irakasle-ikertzaileak sailari sartzeko eskatutako baldintzen legezketasunaren analisia.
792	IK	KE	Ikasleen portaeragatik eskolen arteko atsedenaldietan sortutako eragozpenak, eta irakasleen pasibotasuna horien aurrean.
793	IRI	B	Gatazka doktorego tesi baten zuzendaritzan.
794	IK	KO	Matrikula ordaintzea, doktorego programa lekuz aldatzeagatik.
795	IK	KO	Talde bereko ikasleak sistema desberdinez ebaluatzea.
796	IRI	KO	Desadostasuna adinagatiko murrizketa eskaeraren ukapenarekin.
797	IRI	KO	Irakaslanaren salbuespena onartzea, kargu akademikoaren eginkizuna amaitzean.
798	AZP	KO	Zalantzak lan kontratuaren amaieran jasotako kitatzearekin.
799	IK	KO	Lehen lauhilekoaren ebaluazioen data ofizialak ez ezagutzea.
800	IK	KO	Gradua aldatzeko aukera, ikasketak hasi ondoren.
801	AZP	KE	Ez erantzutea lanpostuen balorazioari lotutako gaiak aztertzeko Gerentziari igorritako eskaerari.

802	IK	KO	Eskolara joateko aukera, matrikulatuta egon gabe.
803	IRI	KE	Desadostasuna osasun laguntza emateko esleitutako norakoarekin, haren irakaslanari eta ikerketari eragiten baitio.
804	IRI	KO	Jarduteko aukerak, unibertsitatera sartzeko lehiaketa batean hautagaiaren merezimenduen balorazioarekiko desadostasunaren aurrean.
805	IK	KO	GRALa aurkezteko deialdia aurreratzeko ezintasuna.
806	IRI	B	Bitartekaritza errektoregoarekin, hainbat irakasle unibertsitatera itzul daitezten.
807	IK	KO	Graduaren 2. lauhilekoari dagozkion tasak ez ordaintzeko aukera, matrikula baliogabetuz gero.
808	IRI	KE	Desadostasuna ikasleen parte hartzearekin irakasleen irakaskuntzaren balorazioan.
809	IRI	KO	Hainbat zalantza Graduondoko baten irakats betebeharra egozteari buruz.
810	IRI	KO	Arazoak irakaskuntza esleipenarekin.
811	IRI	KE	Taldea lagatzeko ezintasuna, aurrekoa entregatu gisa agertzen ez delako.
812	IRI	KE	Ez erantzutea irakasle-ikertzaileen errektoreordeari bidalitako idatziari.
813	Beste batzuk	KO	Gastuak konpentsatzeko eskubidea, hauteskunde mahai bateko kidea izateagatik.
814	IRI	KE	Desadostasuna unibertsitate ikastegi baten zuzendaritzak ospakizun erlijioso bati emandako publizitatearekin.
815	IRI	B	Gatazka lan taldean izandako gorabeheren aurrean ikastegi baten jardunarekin ados ez dagoen ikasle batekin.
816	IK	KO	Hainbat kontsulta practicumaren eta GRALaren ebaluazioari buruz.
817	Beste batzuk	KE	Desadostasuna unibertsitate aldizkari zientifiko batek artikulua bat onartzeari buruz izandako jarduerarekin.
818	IRI	KE	Desadostasuna irakasle-ikertzaile lan kontratudunen plaza bat hornitzeko lehiaketa batean emandako balorazioarekin.

---